

Francisco Javier Rojo Cobos

Irakurketaren xarma

150 iruzkin literario

Oihane Calvo Ugarte (arg.)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FRANCISCO JAVIER ROJO COBOS

Irakurketaren xarma

150 iruzkin literario

FRANCISCO JAVIER ROJO COBOS
Irakurketaren xarma
150 iruzkin literario

Oihane Calvo Ugarte (arg.)

Sarrerak:

Jon Kortazar Uriarte

Oihane Calvo Ugarte

Ángel Basanta

Fernando Valls

José María Pozuelo Yvancos

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. *Unibertsitateko Biblioteka*

Francisco Javier Rojo Cobos [Recurso electrónico]: Irakurketaren xarma, 150 iruzkin literario / argitalpena, Oihane Calvo Ugarte ; sarrera, Jon Kortazar, Oihane Calvo Ugarte. – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2023]. – 1 recurso en línea : PDF (191 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-569-8.

1. Literatura vasca. 2. Literatura – Historia y crítica. 3. Libros – Recensiones.
I. Calvo Ugarte, Oihane, ed. II. Kortazar, Jon, pr. III. Rojo Cobos, Javier, homenajeado.

(0.034)891.69.09.



EL CORREO

Bilboko Hezkuntz Fakultateko Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila. Departamento de Didáctica de la Lengua y la Literatura de la Facultad de Educación de Bilbao. UPV/EHU.

Azaleko irudia: Susana Jodra

Hizkuntza-orrazketa: UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak lagundutako liburua.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-569-8

Oharra

Liburu honetan Javier Rojok 25 urtetan zehar *El Correoko Territorios* kultura gehigarrian eta *El Diario Vasco*ko literatura sailean idatzitako euskal argitalpenen kritika batzuk bildu dira, artikulua pdf formatuan lortu ondoren, kritikak zeuden moduan ebaki eta zehaztuz, nahiz eta horietako askoren izenburuan akats ortografikoak izan. Horrela, bildutako 1996ko lehen kritikatik 2021ko azken kritikara pdf kalitateari dagokionez alde handia nabari da. Izan ere, XXI.mendearen digitalizazioaren prozesuak aurrerapen handiak izan ditu, eta hori dela eta, 90eko hamarkadako kritiken kalitatea ez da 2000.urtetik aurrerako kritiken kalitatea bezain ona. Hala ere, kalitate ez hain ona duten lehenengo kritikak bilduman nahitaez ageri behar zirela erabaki da, Javier Rojoren ibilbide luzearen zati izateaz gain, euskal kritikari egindako ekarpen garrantzitsuak baitira.

Aurkibidea

<i>Sarrera. Javier Rojo. Irakurketari gorazarre</i> Jon KORTAZAR / Oihane CALVO UGARTE.	11
Ángel BASANTA / Fernando Valls <i>Javier Rojo Kritika Sarian, bi proposamen xumerekin</i>	15
José María POZUELO YVANCOS <i>Literatura-kritikaren funtzioak egunkari batean</i>	19
150 iruzkin literario	
Lehen Atala. Alfa eta Omega	25
Bigarren Atala. Egile kanonikoak	29
Hirugarren Atala. Kontakizuna.	91
Laugarren Atala. Poesia.	157
Bosgarren Atala. Saiakera	181
<i>Eranskina. Artikuluen datak</i> Oihane CALVO UGARTE.	189

Sarrera

Javier Rojo. Irakurketari gorazarre

Agur irakurle bati

Javier Rojok urteetan euskal kritikaren alorrean bete dituen tokia eta lana utzi ditu. Eta ongi merezia du liburu honen bidez egiten diogun omenaldia. *El Correoko Territorios* kultura gehigarrian lehenik, eta *El Diario Vasco*ko literatura sailean ondoren, lan eskergea egin du astero-astero euskal argitalpenen berri emanez 25 urte luzetan. Agur esan du, berak gogoko duen eran, isil-isilik, joanaren berri ia inori eman gabe. 2021eko otsailaren 27an argitaratu zuen bere azken irakurketaren berri *Territoriosen*, eta Bernardo Atxagaren *Kilker bat autopistan* liburua aukeratu zuen despedida gisa.

Noizbehinka adiskideen artean zegoenean gustukoa zuen gogoratzea zenbat iruzkin argitaratu zituen egunkari horietan. Horrelakoetan *Zubitegia.armiarma.eus* web orria zabaldu, Kritika atalera jo, eta han Hedabideak zutabea zabaldu, *El Correoko* lerroa bilatu, klikatu eta harrotasun izpi txiki batez irakurri ohi zuen: «Begira 1.000 kritikatik gora, eta gehienak, guztiak ez esatearren, nireak dira».

Langile nekaezina

*Zubitegi*ako kontabilitatea aldatu egin dute eta Javi Rojoren artikuluak *El Diario Vascon* agertzen hasi zirenetik kazeta horren izenburuaren azpian ageri dira haren kritikak, eta bai, web orriak zehaztasunez dioenez, 1.029 liburu iruzkin argitaratu ditu Javier Rojok.

Zubitegian begiratu dugu noiz hasi zen lanean Javier Rojo *El Correon* euskal literaturaren kritika eta irakurketa egiten, eta ikusi hor ageri den lehena 1996ko martxoaren 7koa dela. Beraz, data sinbolikoa aukeratu du joateko orduan: lanean hasi eta 25 urtegarrenean egin du adioa. Juxtu 25 urte, astero-astero euskal literaturaren berri ematen.

Orrian gorde denaren arabera lehen iruzkinaren gaia Koldo Biguriren *Ezpataz hil* lana izan zen. Lekutan dago itzultzaile gisa ospe nabarmena hartu duen Koldo Biguriren lan hori! Lehen pauso haietan Biguriz gain, Joxe Arratibelen *Kontu zaharrak: ipuin zaharren bilduma berria* izan zuen aipagai eta hirugarren etorri zen

Andolin Eguzkitzak Olga Omatosekin batera egin zuen Konstantino Kavafis poeta greziarraren *Poema-antologia*. Hiru iruzkin horiek oso garbi utzi dute zein izan den Javier Rojo irakurlearen estrategietako bat: aniztasuna, kanonean bakarrik ez geratzea eta arreta jartzea itzulpenetan, literatura berrian, zaharrea...

Paperera eramandako irakurketa goiztiar haietan gure literaturako izen nagusiak ageri dira aipatuak martxo eta ekaina bitartean: Juan Gartziairen *Fadoa Coimbran*, Jokin Muñozen *Hausturak*, Jose Angel Irigarayen *Urdinkarak*, Kafkaren *Ipuinak*, Inazio Mujika Iraolaren *Matriuska*, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*, Jose Luis Otamendiren *Lur bat zure minari*, Juan Mari Irigoienen *Poliedroaren hostoak*, eta Juan Mari Lekuonaren *Ibilaldia*, bere poema liburuen bilduma. Ez da uzta makala hasi berria den kritiko batentzat hiru hilabeteren buruan *Hamaika pauso* eta *Poliedroaren hostoak* bezalako liburu mardulak irakurtzea.

Irakurle arretatsua

Denboraren poderioz ikasi zuen ezin zela horrelako erritmorik mantendu, eta liburu mardulak eta finak tartekatzen zituen behar zen moduan behar zena irakurtzeko. Nobela handi baten ondoan liburu fina. Generoak nahastuz eta agertzen zenari arretaz jarraituz.

Jakin badakigu liburu asko erosten zituela Javier Rojok, ez zegoela argialetxeek bidaltzen zizkioten liburuen zain. Eta arretaz irakurtzen zituela. Askotan ikusi dugu, eta bereziki eragozten zuen kontu honek, nobelagile batek kronologian huts egin zuela eta kexaka. Ezin zituen anakroniak onartu. Ez zuen arrangura hori argitaratzen, baina ahoz gora kexatzen zitzaigun adiskideoi, berendiak hura gaizki kontatu zuela eta urliak akats nabaria egin zuela urteen kontaktetan. Horretan berebiziko kontuak egiten zituen.

25 urtean aritu da etengabe, eta askotan eskerrak hartu gabe, lanean Javier Rojo. Lan luzea, hain arin doanean gure garaia. Epe luze horretan jakin izan du, noiz edo noiz gertatu bada ere, polemika mingotsetatik urruntzen. Egia da irakurleen batek esan zigula nabaritzen zitzaiola maite zuela idazle hori eta beste hura ez horrenbeste. Horrelaxe izango zen, noski. Baina bere irakurketa deskriptiboan liburuen berri gorrotorik gabe eman zuen, jakinda bere helburu nagusia horixe zela: berri ematea. Askotan erabili izan zituen pragmatismoak eta ikuspegiaren aniztasunak salbatu zuten arriskuetatik.

Irakurketa eta kritika

Azken garai hauetan kritiko nagusiak ikusi eta entzun ditugu irakurketaren beharraz hitz egiten. Adibidez, bere autobiografian Darío Villanuevak mahai baten inguruan elkarrekin irakurtzeak duen balioa goraiatu du. Eta guretzat dugu Javier Rojok askotan jarri digula mahaia, haren inguruan guk literaturaz hitz egin dezagun.

Baina, gainera, kritikoaren lana egin du. George Steiner handiaren artikulu ahaztu bat argitaratu berri dute, eta han hauxe dio: «Kritiko onuragarriak gauza bi egiten ditu: bere iritzien nondik norakoa argi uzten du [...] Eta kritiko prestuak bigarren ekintza bat egin ohi du: klasifikatu (kritika ikuspegi eratzailea da)». Eta lan hori Javier Rojok

gogo onez egin duela iruditzen zaigu. Eta badugu froga bat. Euskal literatura txikiaren eremuan 25 urtean kritika egiten irauteko, norberaren buruan konfiantza izan behar du kritikoak. Konfiantza eta, aldiro, norberaren buruari adarra jotzea!

Bilduma hau

Guk badugu pena. Lan handia egin ondoren, Javier Rojok ez ditu kritika horiek bildu, ez eta lan horren inguruko libururik utzi ere. Buruan dugu artikuluen bidez euskal literaturaren eremuaz lortu zuen irudia osatuko zukeen liburua. Eta hori ez du utzi. Hutsunea sentitzen dugu, eta protagonistak ez badu lan hori egin, ezin dugu guk ere lana aurrera eraman. Horren ordez, artikulua bilduma bat eskaintzera gatoz. Javier Rojok egin ez zuen euskal literaturaren liburu orokorraren ordez, haren artikuluen antologia osatu dugu, eta hark argitaratu zituen moduan eman.

Guztira 150 artikulua bildu ditugu. Eta bost sailetan banandu:

1. 25 urteko lan horri bukaera eta hasiera jarri diogu, omega eta alfa, lanaren uztea eta jaiotza aipatuz era sinbolikoan baino ez bada ere.
2. Egile kanonikoak. Garaiko gure letretako izen nagusiei egindako iruzkinak bildu ditugu lehen atalean. Atal horretan, honako idazle hauek izan ditu aipagai: Ramon Saizarbitoria (1944), Arantxa Urretabizkaia (1947), Anjel Lertxundi (1948), Joan Mari Irigoien (1948), Bernardo Atxaga (1951), Koldo Izagirre (1953), Joseba Sarrionandia (1958), Miren Agur Meabe (1962), Kirmen Uribe (1970) eta Harkaitz Cano (1975).
3. Kontakizuna. Aurreko atalean izenak izan badira zerrendak eta eraketak osatzeko irizpidea, hirugarren ataletik aurrera genero literarioak hartu ditugu kritikak aurkezteko irizpide gisa. Garai hauetan egindako nobela eta kontakizun liburuei egindako iruzkinak datoz atal honetan. Mariasun Landa (1949), Joxemari Iturralde (1951), Iñaki Zabaleta (1952), Xabier Montoia (1955), Laura Mintegi (1955), Juan Kruz Igerabide (1956), Pello Lizarralde (1956), Itxaro Borda (1959), Aingeru Epaltza (1960), Luis Garde (1961), Karlos Linazasoro (1962), Jon Arretxe (1963), Yolanda Arrieta (1963), Juan Luis Zabala (1963), Pako Aristi (1963), Iñigo Aranbarri (1963), Jokin Muñoz (1963), Xabier Mendiguren (1964), Fermin Etxegoien (1966), Garbiñe Ubeda (1967), Karmele Jaio (1970), Ixiar Rozas (1972), Julen Gabiria (1973), Unai Elorriaga (1973), Maixa Zugasti (1973), Aritz Gorrotxategi (1975), Irati Jiménez (1977), Eider Rodríguez (1977), Garazi Goia (1978), Irati Elorrieta (1979) eta Alaine Agirre (1990).
4. Poesia. Gaur egun nobelak hartu badu ere lehentasuna sistema literarioan, Javier Rojok egindako historian zehar poesiak toki handia bete du. Eta horien berri dira atal honetarako aukeratu ditugun iruzkinak: Juan Mari Lekuona (1927), Xabier Lete (1944), Juan Kruz Igerabide (1956), Felipe Juaristi (1957), Jose Luis Otamendi (1959), Tere Irastorza (1961), Karlos Linazasoro (1962), Juanjo Olasagarre (1963), Mikel Etxaburu (1969), Pello Otxoteko (1970), Jon Gerediaga (1975), Castillo Suárez (1976), Angel Erro (1978), Leire Bilbao (1978) eta Alaine Agirre (1990).

5. Bukatzeko, ez dugu ahaztu kritikariak saiakerari emandako tokia. Javier Rojok egindako lanen artean gogoan hartu beharko genuke saiakera generoari eskaini ziola bere lanik luzeena eta anbiziotsuena, eta saiakeraren historia agertu zuen *Eguno Euskal Saiakeraren Historia* lana zuzendu zuenean, 2013an.

Bildumaren atari gisa Espainiako kritikan izen nagusi eta adiskide diren hiru egileri beren lana eskatu diegu. Murciako Unibertsitatean Literatura Katedradun den José María Pozuelo Yvancos irakasleak gaur egun kritikak izan lezakeen funtzioaz hausnarketa egin digu. Eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan irakasle den Fernando Vallsek eta Ángel Basanta kritikariek Javier Rojok egin duen ibilbidea aurkeztu dute.

Esker onez

Honelako lan bat ezin da laguntzarik gabe aurrera eraman. Zordun gara, bada, lehen-lehenik, *El Correoko* zuzendariarekin, artikuluak berrargitaratzeko baimena eman duelako. César Coca zuzendariordearekin, baimenak lortzeko bideak erraztu dituelako. Jesús Oleaga egunkariko diseinatzaile buruarekin, Javier Rojoren artikuluak pdf formatuan eman zizkigulako, gure lana ikaragarri erraztuz.

Eta zordun gara, neurri berean, Javier Rojoren omenez lanak idatzi dituzten hiru irakasleekin: José María Pozuelo Yvancosekin, Fernando Vallsekin eta Ángel Basantarekin, lanak eskuzabaltasunez eman zizkigulako.

Izan bitez atari biok Javier Rojok ongi merezia duen omenaldi honen harrera bide zoriontsu!

Jon Kortazar
Oihane Calvo Ugarte
UPV/EHU

Javier Rojo Kritika Sarian, bi proposamen xumerekin

Ángel Basanta

Espainiako Literatura Kritikarien Elkartearen ohorezko lehendakaria

Fernando Valls

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

Badira ia sei hamarkada Kritika Sariak urteko liburu onenak hautatzen dituenetik, hala narrazioan nola poesian, espainiar lau hizkuntza ofizialetan, eta duela urte asko Espainian lehen edizioa egin duten egile hispanoamerikarrak ere kontuan hartzen dira; 1996an Mario Vargas Llosari eman zitzaion *La casa verdegatik*, eta 1976an Octavio Pazi *Vueltagatik*. Kontu ezaguna da, baina ez da hain ezaguna, nahiz eta garrantzitsua izan, epaimahaiko kideen artean sortu den kideetasuna eta adiskidetasuna, elkarrekin partekatzen baitituzte zenbait egun saria emateko hautatzen diren hirietan.

Javier Rojo izan da Kritika Sarian euskal literaturaren ordezkari eta bozeramaile 2008tik; urte hartan, Huelvan eman zen saria. Javierrek 2020 arte iraun zuen, salbuespenen batekin. Urte horretan, pandemiagatik, lehen aldiz eta behingoagatik, modu telematikoan ebatzi zen saria. Hasieran, jakina, lana ez zitzaion erraza gertatuko, denek estimatzen zuten Jon Kortazarren lekua hartu baitzuen epaimahaian. Kontua da, Javier Rojo hain izaera desberdinekoa izanik, biak ala biak euskaldun petoak halere, gaur egun horrek zerbait esan nahi badu behintzat, laster irabazi zuela epaimahaiko kideen maitasuna eta errespetua. Euskal literaturaren sariak, poesian eta narrazioan, 1977an hasi ziren ematen, Sitgesen, betiere aurreko urtean argitaratutako liburuei; lehen bozeramalea Santiago Aizarna idazle eta kazetaria izan zen, urtetan, eta gero Jon Kortazar etorri zen 1990ean, Kordoban eman zen sarian.

Epaimahaiak lana egoki egin dezan, garrantzitsua da kideen arteko harreman ona, elkarren arteko sintonia eta atsegintasuna sor dadin, Espainia guztitik baitatoz, eta urteetan zehar aldatuz baitoaz. Elkarren arteko desadostasunak sarritan

agertzen dira, baina literatura epaitzerakoan bakarrik agertu behar dira, epai hori ondo oinarriturik egon dadin nahi baitugu denok. Javier Rojo kideekin ondo konpondu zen, eta areago, euskal literaturaz asko erakutsi zigen. Aurkezpenetan, hitz gutxiarekin liburuak erakargarri bihurtzeko dohaina zuen, literaturari zer ekarri egiten zioten erakusten zuen, zer zen haietatik oinarritzkoa, euskal narratiban eta poesian aditu ez ziren irakurleei interesatu zekiekeena. Ez dakitenei azalduko diegu hizkuntza bakoitzeko bozeramaleen parte-hartzea beti bikoitza dela; aurrena epaimahaikoei adierazten zaizkie hautaturiko liburuen ekarpenak, eta gero, jendaurrean, kazetariei, oso denbora laburrean, irakurleengana irits dadin; saritutako liburuen ezaugarriak adierazten dira, Espainiako beste hizkuntzetan argitaratuta ote dauden, eta halakoak. Oinarritzko lan bat dela iruditzen zaigu; izan ere, gero espainieraz irakurri ditugun euskal liburuak euskal kritikariek gomendaturikoak baitira. Badakigu, bestalde, euskal egileei entzunda, Kritika Sariak liburuak Espainian eta atzerrian irakurtzeko atea zabaltzeko izan dizkiela. Horregatik proposatu nahi diogu Espainiako Kultura Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari ados jartzea, dirulaguntzekin bultzatzeko liburu saritu horien itzulpenak, euskaraz idazten direnen onenen artean egon ohi baitira sarri¹.

Javier Rojo beti adiskidetzat jo dugu, eta harekin batera ibili gara zenbait hiritan barrena: Huelva, Bartzelona, Cáceres, Soria, Ponferrada, Logroño, Pontevedra edo Santa Cruz de La Palma. Sakonago ezagutu dugu, eta bazkariak eta kopak partekatu ditugu, barre egin dugu, jaso dugun tratua eskertu, mintzatu gara hirietako urbanismoaz, museoez, monumentuez, ezagutu ditugu leku bakoitzeko pertsonaia entzutetsuak, joan gara Sorian Leonorren hilobia bisitatzera, edo Antonio Machadok klaseak ematen zituen ikasgela ikustera, Ponferradako gaztelu tenplarioko Templum Libri erakusketaz gozatzeraz, Paio Gómez Chariño trobadorearen hilobia bisitatzera Pontevedrako San Francisco komentuan, eta noski liburuen balioaz mintzatu gara. Javierrek eta Fernando Vallsek, gainera, arteekiko zaletasuna partekatzen genuen, Javier sarri joaten baitzen Bilboko Guggenheim museoko erakusketetara, eta nik, Fernandok, galdetzen nion zein interesatu zitzaizkion gehien; nik ikusi ezin nituenean, museoko katalogoak ekartzen zituen.

Esandakoa esanda, ez da harritzekoa, beraz, urteetan zehar epaimahaiko kritikariren artean adiskidetasuna agertzea, konplizitatea; hala, ikuspegiak zabaltzen ziren, gomendioak egiten, literarioak zein bestelakoak; eta bata bestearen hirietan elkartzen ginen haietara joaten ginenean. Hori guztia ere badago Kritika Sariko epaimahaian parte hartzen denean. Hala, Javier gure epaimahai bitxiko parte izandako urte haietako literaturaren bikaintasuna, elkarrizketa atsegina eta elkarrenganako adiskidetzat eta euskal literatura onenaz mintzo zelarik ikasi genuen gauza asko oroitzen ditugu, eta faltan botatzen ditugu.

Arantzatzat bat daukagu halere, ez Javierrekin, noski, eta hona gure bigarren proposamena: inoiz ez antolatu izana Kritika Sarien ebazpena Euskal Herrian;

1 Idazle askoren artean, honako hauek irabazi dute euskarazko Kritika Saria: Ramon Saizarbitoria, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Juan Mari Irigoyen, Anjel Lertxundi, Rikardo Arregi, Arantxa Urretabizkaia, Miren Agur Meabe, Felipe Juaristi, Kirmen Uribe, Harkaitz Cano eta Unai Elorriaga.

Balearrekin batera, komunitate autonomo bakarra da inoiz bildu ez garena, Kritika Saria hain garrantzitsua izanik ere euskal literaturarentzat. Egia da izan zela saiakera bat Patxi Lópezen gobernuak bere azken urteko aurrekontuetan 2012an sartu zuenean, Kritika Saria Gasteizen antolatzeko asmoz. Baina, gobernu aldaketarekin, ezin izan zen gauzatu. Espero dut uneren batean hutsune hori betetzeko aukera etortzea.

Itzulpena: Juan Kruz Igerabide

Literatura-kritikaren funtzioak egunkari batean

José María Pozuelo Yvancos

Murtziako Unibertsitatea

Kritika sistema literarioaren parte izan da egunkariak agertu zirenetik eta, are, lehenagotik, XIX. mendeko aldizkari kulturalen garaitik. Gaztelaniazko sistema kulturalean, Leopoldo Alas, Clarín, garrantzitsuagoa izan zen kritikari gisa nobelagile gisa baino, literaturaren lehen historiek ezarritakoaren arabera. Badira kritikariak alor horretatik soilik ezagutzen direnak, Andrenio edo Diez Canedo, besteak beste.

Baina kritika iraganeko zerbait gisa hartzeak doitasun baino nostalgia gehiago dakar haren garrantzia epaitzerakoan. Areago uste dut: kritikak iraganean baino garrantzi handiagoa hartu du etorkizunari hasiera ematen dion Interneten aroan. Zer dela eta? Hain zuzen ere, Interneten, blogen bidez, eta gero Twiter edo Facebook edo Tik Token bidez, denek aldi berean hitz egiten eta idazten dute, iritziak denek ematen dituzte, hala ondo oinarrituriko iritziak emateko informazioa dutenek, nola ez dutenek.

Bestalde, Sarean badira kritika literarioa egiteko orriak, argitaletxeek sostengatuak, astero agerturiko maisulanen katalogoa aldarrikatzen dutenak. Internetek inoiz baino beharrezkoagoa egin du kritika kualifikatua, Javier Rojok *El Correon* egin izan duena, besteak beste. Bera eta Jon Kortazar eta beste batzuk gaian irakasle adituak izatea oso da garrantzitsua. Gero eta gehiago. Beti esan izan dut ezen sistema literario guztietan, eta areago euskal literatura bezala kanona osatzen ari direnetan, ondo bereizi behar dela originaltasuna eta sormen sendoa duena, hots, irautekoa dena, merkatuaren joeraren ondorio soil eta iragankorra denetik. Eta, hori egiteko, ondo ezagutu behar da norberaren literatura, eta orobat poema bat edo ipuin bat edo nobela bat idazteko erabilitako kodea. Horregatik da garrantzitsua argi izatea zein diren egunkarietan egiten den kritikaren funtzio nagusiak.

Nik bi funtzio nagusi bereiziko nituzke egunkarietan egiten den kritikan: 1. Informazio fidagarria eskaintzea, garrantzitsua eta funtsik gabekoa desberdinduko dituen. 2. Epai kritikoaren garrantzia ezartzea, iritzia eta epaia ez baitira gauza bera.

1. Irakurleari informazio fidagarria eskaintzea da begi-bistakoena. Informatzeak esan nahi du, sarri, teorikoei «zarata» deitzen dioten horretatik garrantzitsua dena bereiztea; literaturari dagokionez, informazio-gehiegikeriak saihestea esan nahi du. Irakurlearentzat, titulu-produkzioaren gehiegikeria, esate baterako, eta hortik datorrena: titulu horien iragankortasuna. Argitalpen berriak mahai gainean edo Interneten pilatzen dira, eta titulu batek besteari segituan hartzen dio txanda. Denak omen dira maisu-lanak, eta hantxe dago Kafka bere ihakinekin. Suzedaneoa jatorrizkoaren maila berean ageri da. Interneteko Sarean ibiltzen direnei zail egingo zaie honako analogia hau ulertzea; Sarean ez dago hierarkiarik, informazioak ez dakar berez ezagutza gehiago, eta are gutxiago jakintza; informazio bakoitzaren *itemak* gehiegikeriak ordeztu ditu, eta, horrela, informazio-gehiegikeriak informazio gutxiegi izateak dakarren ondorio bera dakar. Nola mugitu, adibidez, Li Pori buruz informazio zehatza bilatzerakoan, Googlen duela gutxi topatu nituen 173.000 sarreraren artean?

Gaur egungo espainiar sistema literarioen baitan dagoen nobelen superprodukzioarekin, alor horretan jarduten bainaiz kritikari gisa, antzeko zerbait gertatzen da. Baina superprodukzio hori fenomeno sakonago baten ondorioa da, eta horretaz jardungo naiz hemen. Loytardek gaur egungo garairako diagnostikatu zuen kondizio posmodernoaren benetako edukien bereizgarritasuna galtzearekin bat zetorren, funtsezkoa ez dena goratu eta gogoangarria denarekin parekatzearekin batera. Gehiegikeria hori bat dator gure kulturaren bi ezaugarriekin: lehenbizikoari heteroglosia dei diezaiokegu; hizkuntza beraren baitan bitarteko ugari norgehiagoka ari dira, kulturaren baitan, eta ezin bereizi bakoitza besteetatik; bigarrena iragankortasuna da, berritasun bati hurrengoak hartzen baitio txanda, eta hala titulu guztiak iragankor bihurtzen baitira. Editoreak, komunikabideak eta kritikariak, hots, bitartekariak, lehen ardura gisa dute hierarkia bat eraikitzea informazioaren alor horretan, irakurleak informazio egoki bat izan dezan tituluen sare amaigabearen mugitzeko, titulu guztiak iragankor bihurtzen baitira berritasunen mahaian, bata bestearen atzetik, eta Sareko orrialdeetan.

2. Bigarren funtzioa, berriz, epaiaren funtzioa, oso eragingarria da irakurlearentzat, baldin eta ohartarazten bazaio aldea dagoela epaiaren eta iritziaren artean. Egunerokoa eta normala bihurtu da bi horien artean bereizketarik ez egitea, baina nik miresten ditudan kritikariek esaten dutena oinarri sendoekin azaldu eta arrazoitzen dute. Nobela bati buruz iritzia izateko ez dago ezertan aditua izan beharrik, eta ezin eskatu ardurarik iritziei, irakurketa ororen eragina baita iritzi bat eragitea. Iritzi bat, gustu bat, ez dago zertan arrazoitu, baina epai bat besterik da, esperientzian eta jakintzan oinarritu behar baita, gauzak bereizteko ahalmenaren lagungarri direnez. Kritikari onak gustutik ezagutzara igarotzen dira, eta horietako gutxi bihurtzen dira jakintsu.

Theodor Adorno pentsalariak gogoeta garrantzitsu bat egin zuen gai honi buruz. «Kritika literarioaren krisia» ipini zion izenburutzat lanari (Adorno, 1952-1953). Han abisu bat ematen zuen «kritika bihur ez dadin iritzi baten adierazpen arbitrario eta ez batere arrazoitsua baino».

Baina fenomeno soil hori baino gehiago axola zait hori gertatzen den testuinguru soziala. Adornoren salaketa testuinguru zehatz batean gertatu zen, Kultura fenomenoa garrantzia galtzen ari zen testuinguruan. Iritziak kritikaren lekua har dezake, biak hutsaren hurrengo bihurtu dituen gizarte batean. Eta hori da gertaerarik kaltegarriena. Ez du garrantzirik kritika egiten dutenak onenak eta jakintsuenak izateak, betetzen duen funtzioak bitartekariak eskainitako garrantzia baino ez baitu izango, Kulturak gero eta garrantzi gutxiago duen gizarte batean, Ikuskizunaren egunkarietan nabarmendu gabe, egunkari guztietan nagusitzen ari den binomio kaltegarri bat osatu arte: Kultura eta Ikuskizunak, biak atal bereko ume, elkarrekin erdigunetik bazterturik, editoreek, kritikariek eta kultura-kazetariak partekatzen dugun periferian.

Arrazoi horiengatik guztiengatik izan da garrantzi handikoa egunkari honetan Javier Rojok eta beste irakasle batzuek egindako lan kritikoa.

Itzulpena: Juan Kruz Igerabide

150

Iruzkin literario

Lehen Atala

Alfa eta Omega

Itxura faltzuak

Ezpataz hil izenpean argitaratu ditu Koldo Bigurik bere lehenengo istorioak. *Melabidai* bildumari dagokion bezala, ozta hirurogei orri dituen liburuxka batean. Baina liburuaren formatuak ez gaitu engatatu behar: nire ustez, bere txikitasunean benetan liburu interesgarria burutu baitu idazleak. Hiru istorio bildu dira bertan, bi euskaraz, hirugarrena gazteleraz. Hiruiek gai historikoak dituzte, kontatzen direnak XVI mendearen inguruan datu daitezke-eta. Eta hiruretan joku berbera ematen du: errealtateak daukagunaren atzean izkitatzen den sekretua azaltzea. Lehenengoa, Italiako konbentu baten barruko bortxaketak eta hilketak azaltzen ditu Ama Priorak hil aurreko afortzan, hainbat urtetan sekretuan gorde ondoren. Berdin egiten du, bigarrenan, Ameriketako gobernadore moduan bizi den truzurtiak heriotzaren ordura hurbil dagoela ikusita, bere bizitza faltzua argitzen saiatzen da. Erderaz idazritakoaren kasua konplexuagoa da, eskuizkribu baten fikzioaren bidez, *itzulpen* oker baten atzean izkitatzen den istorio luze eta tradoki bidez ez baita egiten. Eta hau guztia sintaxian idazte klasikoak gogora ekartzen dituen idazkera dotere eta atseginez irakurtzen den batean kontatua.



NAHRATIVA

KOLDO BIGURI **Ezpataz hil**

EREN DONOSTIA, 1996.
62 ORR. 300 PZTA.

JAVIER ROJO



Zuzentasunaz

Deskargatu artikulu hauak: [Zuzentasunaz](#) [Zuzentasunaz](#)

PHILIPPE JAVIERRE



M

...naren erantzunak, gaur egun, gure herriaren...
...naren erantzunak, gaur egun, gure herriaren...
...naren erantzunak, gaur egun, gure herriaren...

...naren erantzunak, gaur egun, gure herriaren...
...naren erantzunak, gaur egun, gure herriaren...
...naren erantzunak, gaur egun, gure herriaren...

Kilkerraren kronikak

Kilkerr kronikak

JAVIER ROJO

‘Kilker bat autopistan’ izenburupean Bernardo Atxagak 2016-2020 urte epean irratian egin dituen kolaborazio-lanen bilduma jasotzen da. Testuotan, beraz, ahoz esateko pentsatuta zeuden hitzaldi laburren bertsio irakurgarriak agertzen zaizkigu. Irakurleak ezin du detaile hau ahaztu, zeren idazki hauen zenbait ezaugarri (errepikapenak lekuko) jatorri horren ondorioak baitira. Hainbat kolaborazio-denboraldi jarraituta egin den banaketa erakusten dute bilduma honetan jasotakoek eta iritzi-artikulu eta narrazio laburraren artean mugitzen dira, hori bai, narrazioak direlarik ere, egilearen iritziak aurkezteko kontakizunak direla kontuan hartuta. Izan ere, horixe da garrantzikoena, testu hauek egileak hainbat gairi buruz duen iritzia azaltzen da-eta.

Bere jarreran, gaurko mun-

du moderno-edo honetan gertatzen direnekin oso ados ez dagoenaren ikuspuntua plazaratzen zaigu, haien aurrean harridura, ironia eta batzuetan haserre ere erakusten dituelarik. Besteak beste, begi-bistakoa da egilearen ustez zenbait gaitan kontrako bi jarrera daudela: alde batetik, gizarte zibila deitu daitekeena eta, beste aldetik, politikarien ikuspuntua aurrez aurre daude, halako moduan non ematen baitu politikarien interesak gizartearen interesetatik urrun daudela. Gai desberdinak aipatzen dira, baina hezkuntzari eta kulturari dagozkienak nabarmendu daitezke, bi kezka gune

hauek testu askoren erdigunean baitaude. Gaur egun gazteei eskaintzen zaien hezkuntzari buruz Atxagak nahiko jarrera pesimista duela esan daiteke eta kultura gaiak aipatzen direnean, aldez edo moldez tradizioarekiko lotura azpimarratuta geratzen da. Irakurlea ez dago behartuta idazleak esaten duen guztiarekin ados egotera, jakina, baina italiarrek esango luketen bezala «se non è vero è ben trovato»: eta guztiz ados ez badago ere, Atxagaren prosaren plazerak das-tatu ahalko ditu.



KILKER BAT AUTOPISTAN
BERNARDO ATXAGA

Pamiela. 352 orr.
20 euro

Bigarren Atala

Egile kanonikoak

Ramon Saizarbitoria

Arantxa Urretabizkaia

Anjel Lertxundi

Joan Mari Irigoien

Bernardo Atxaga

Koldo Izagirre

Joseba Sarrionandia

Miren Agur Meabe

Kirmen Uribe

Harkaitz Cano

EL CORREO 3 EVES. 10 DE MAYO DE 1996 **9 TERRITORIOS**

Jaleados

Isiltasunaren ondoren

Hirurogeiko hamarkadan Ramon Saizarbitoriak euskal nobelari trauttza ekarri zion *Eguenero hasten delako* deitutako obrarekin. Hurrengo urteetan 100 metro eta *Ene Jesus* argitaratu zituen. Eta gero, euskal nobelaren mugak aurkitu baitituen, isiltasuna, ia hogei urteko mutualdia. Orain idazleak literaturarekiko zorra kitatu nahi izan duela ematen du testu luze eta latz honekin. 1975.eko fusilamenduak dira argumentuaren ardatza, eta hortik abiatuta azaltzen da zein eragin izan zuten gertaera horiek lagun batzuenengan, batez ere Iñaki Abaitua izeneko pertsonaia konplexu eta kontraesan bezetakoagan. Errealitatea eta fikzioa nahasiz -edo hobeto esateko, errealitatearen adabakiek in sortutako fikzioaz- belaunaldi baten kronika egiten digu, deslusiona daraman bidaiari. Oroimena du horretarako lagun, eta oroimena lineala ez delarik, aurrera eta atzera saltoka dabilelarik, horrela aletzen zaizkigu kronika honetako gertaerak ere. Liburu sakona, patsadaz irakurtzekoa. Batzutan irakurleak pentsa lezake aurrera jarraitzeko nobelaren kontra burrokatu behar duela; hala ere, laster konturatuko da lan garrantzitsu baten aurrean dagoela, pasarte batzuk benetan antologikoak baitira, eta ez bakarrik euskaraz idatzitako literaturan.



HONDAGINTZA
R. SAIZARBITORIA
Hamaika pauso

EREIN
DONOSTIA, 1995
448 ORR. 2.900 PZTA.

JAVIER BOJO

Más q

Harreman gatazkatsuak

Azken urte hauetan oso gutxitan geratu naiz lliburuta eleberrri batekin. Paul Auster-en libururen bat irakurtzean gertatu zait hori, eta berriro orain, Saizarbitoriaren hau irakurri dudanean. Eta ez dut uste, gainera, kointzidentzia hau kasualtateta izan denik. Normalean ez zuzkit gehiegizko iritzi kritikoak gustatzen, erlatibizatu egin behar dela usat dute eta; kasu honetan, ordea, ezinezkoa zait jarrera hori mantentzea.



ELEBERRIA

RAMON SAIZARBITORIA

Bihotz bi.
Gerrako kronikak

EREIN, DONOSTIA, 1996
264 ORR. 2.200 PZTAL

nobela hau izugarri ona iruditu batzait. Gizonen eta emakumeen arteko harreman gatazkatsuak kontatzen dizkigu, pertsonaien bizihariekian sare hertsia sortuz. Egileak arifolatuko segada horretan erortzen ari dela susmatzen du irakurleak, elkar-auriditzeak, kasualitateak joku literarioak besterik ez direla; baina horrek ez dio axola. Ironia da nobelagileak aukeran dituen lanabesetako bat, beharbada, garrantzitsuena ironia gertaeretan (bukaeran, esate baterako); ironia, pertsonaiak karakterizatzean (musiko bati buruz, adibidez, *semifusaren asesinoa* dela dio); ironia, begibistako aipamenetan edo izkutuko aipamenez hartu daitezkeenetan (Ane, Joana, andrea, aipatzen du behin). Eta gertaeren markotzat, gutxitan bezala guztiz sinetsargarria den hiri bat. Nobela honekin bete-betean asmatu du Ramon Saizarbitoriak.

JAVIER ROJO

EL CORREO MIÉRCOLES 22 DE MARZO DE 2000 9 TERRITORIOS

Cada

Euskal kulturaz

Honetan Ramon Saizarbitoriak alde batera utzi du nobelagintza eta saiaketa hautatu du *Aberriaren alde (eta kontra)*-n, euskara eta euskal Kultura hizpide dituelarik. Liburuan tesi nagusi bat defendatzen da: euskara eta euskal kulturaren benetako egoera onartu beharrena, fikzio batean bizi nahi ez badugu. Aspaldian Jon Juaristik esan zuen herri honetan gertatzen zenaren konstatazioa egitesa probokaziotzat hartzen zutela batzuek. Hain zuzen ere, Saizarbitoriak eggeraren konstatazioa egiten du eta, gustatu edo ez, gure txikitasuna begi bistan jartzen digu.

Hainbestetan aipatzen den homologazioaren aurrean jarrera eszeptikoa aurkezten du Saizarbitoriak, txikitasunean ere zenbait abantaila aurki daitezkeela eta. Bestaldetik, euskara ideologia bat mantentzeko tresna izan da, sinbolo moduan behintzat, eta oraingoz ezin izan du bere gaitetik zama bezalako hori kendu. Momento batean egoera hori probetxugarria izan bazitekeen ere, gaur egun ikuspuntua gairiditu behar da, non ez den euskara euskal gizartearen alderdi ideologiko bakar batena izaterik nahi. Euskaltzetasunetik egindako kritika mingotsa eta eszeptikoa, baina bestaldetik, argigarria, euskaltzale askoren iritzia islatzen eta azaltzen dituen, nire ustez.



SAIAKERA
RAMON SAIZARBITORIA
Aberriaren alde..
ALBERDANIA,
DONOSTIA, 1999.
96 OR. 1.200 PZTA.

JAVIER ROJO

Sa

Hildakoen bakea

Ramon Saizarbitoria liburu berria eskaini die euskal irakurleei arestion bukatu den urte honetan. 'Gorde nazazu lurpean' du izena liburu mardul honek eta bost narrazio (ia-ia bost eleberri) agertzen dira bertan. Beraz, liburu bakarra den arren, bost literatur lan ditugu aurrean, zein baino zein interesgarriago. Badago, ordea, narrazio guztiak erlazionatzen dituen hari bat, gai bat, liburuari batasuna ematen diona. Gai hau, pertsonaiei hildakoengandik datorkien zama da. Aldez edo moldez, pertsonaiek heriotzarekin topogiten dute eta, nolabaiteko zorra kitatu behar balitz bezala, hildakoek eta biziek ez diete elkarri bakerik ematen.

Zenbait istorio klabe politikoan ere irakur daitezke (aspaldian hildako batzuek utzi diguten herentzia astuna jasaten ari gara euskaldunik, alegia). Umore beltza dei litekeenaz aparte, liburuan ez da ironia falta, batez ere, euskaldunen jokaera bitxiak, malenkoniatsuak eta galtzaileen mistikan eroso kokatuak ikusita, zeren idazleak ispilu aurrean jartzen baikaitu, eufemismorik gabe geure burua ikus dezagun. Saizarbitoria beste liburu mirengarri bat utzi digu, kasu honetan bosten balioa duena. Izan ere, azken urte hauetan idazle gutxi eskaini dio euskal kulturari Saizarbitoria beste.

JAVIER ROJO



KONDAGINTZA

RAMON SAIZARBITORIA

Gorde nazazu ...


EREIN
DONOSTIA, 2000
468 OR. 3.950 PZTA.

Idazlearen mixeriak

Agertu berria da Ramon Saizarbitoriaren 'Rossetti-ren obsesioa' izeneko liburua, iaz argitaratu zen 'Gorde nazazu lurpean' bilduma arrakastatsutik ateratako eleberria. Beras, istorioa ezaguna gertatuko zaio idazle honen ibilbidea jarraitzen duen euskal irakurleari. Liburu honetan Saizarbitoria sarkastikoaren adibide bat agertzen zaigu. Protagonista, gogora dezagun, idazlea omen da; eleberriren bat idatzi omen du euskaraz, baina, batez ere, enkarguzko liburuak egiten ditu erderaz. Pertsonaia hau, behin idatzi zuen testu

labur bat, itxuraz inolako garrantzirik ez duena, berreskuratzeke edozein gauza egiteko prest dago, testo horrekin arrakasta ziztrin bat lortzea espero baitu. Baina, hauxe paradoxa, testua berreskuratzearren egiteko prest dagoenak berak urrunduko du arrakasta hori lortzetik. Azaleko irakurketa batean eleberria pertsonaia mixerable honen mixerien kontakizun dibertigarri eta sarkastikotzat har dezakegu. Baina gehiago dago hemen. Pertsonaia honen jokaeran metafora bat ere ikus daiteke, istoriaren izenburuan agertzen den Rossetti artista bitxi horren jokaeran protagonistarekiko paralelismoa ikus daitekeen neurri berebean. Istorio honekin irakurleek aukera berria dute gure artean dagoen nobelagilerik interesgarriena ezagutzeko.

JAVIER ROJO



ELEBERRIA

RAMON SAIZARBITORIA

**Rossetti-ren
obsesioa**

EREIN.DONOSTIA, 2001
196 OR. 2.075 PZTA.

Bikote-harremanak

Erein argialetxeak, antza, erabaki du Ramon Saizarbitoriaren 'Gorde nazazu lurpean' liburu miresgarrian agertu ziren narrazio guztiak banan-banan liburu soltearen formatuan argitaratzea. Izan ere, 'Bi bihotz, hilobi bat' era honetan agertzen den hirugarren liburua dela uste dut. Istorio honetan Saizarbitoriak senar-emazteen arteko gatazkei buruzko ikuspegi dibertigarria eskaintzen digu. Alde honetatik liburua umoretsua da, sarkasmoz betea askotan, gizon-emakumeen arteko harreman zailen berri emateko itxura

barregarria erabiltzen duena. Baina azal honen azpian, mingostasuna dago uneoro kontakizunean agertzeko prest. Istorio honetan agertzen diren pertsonaiek, elkarrekin bizi arren, elkar ulertzeko ezintasun erabatekoa dute, mundu banatan aurkituko bailiran. Honekin batera, idazleak ez du aukera galtzen gure gizartean noizean behin agertzen diren zenbait jokamolderen kritika ere egiteko. Hor erakusten ditu, adibidez, euskaldun batzuek deiturak direla-eta dituzten konplexu bitxiak, euskalduntasunaren funtsa horretan baizik ez balego bezala, edo heriotzaren inguruan askotan antolatzen diren parafernalia arranditsuak. Liburua, edonondik ikusita ere, ezinbestekoa da, umorea eta sakontasuna gutxi bezala uztartzen jakin du-eta.

JAVIER ROJO



ELEBERRIA

RAMON SAIZARBITORIA

**Bi bihotz,
hilobi bat**

EREIN. DONOSTIA, 2001
152 OR. 11,70 €

Lehen amodioa

Ramon Saizarbitoriak bere azken liburuari 'Kandinskyren tradizioa' jarri dio izenburuztat, margolari errusiarraren emazteak kontzertzen omen duen anekdota batean oinarrituta. Liburu txiki honek (laurogei orrialde inguru baino ez ditu) euskal idazleak azken urteotan jarraitu duen ibilbidean aldaketa bitxi bat erakutsi du: itxuraz behintzat, irakurle gazteentzako testu baten aurrean gaudela ematen du. Izan ere, istorioaren protagonista lehen pertsonan mintzo den neska nerabea da eta liburuan, gainera, bere lehenengo

amodioaren kontaera egiten zaio irakurleari, amezkoaren eta errealtatezkoaren arteko kontrajarpenaren bidez. Hau da, liburuak gazte literaturan aurki daitekeen topikorik nagusienetako batean dauzka bere erroak. Baina berehala konturatuko da irakurlea ez dagoela planteamendu horiekin idazten diren ohiko liburuetako baten aurrean. Gehiegizko sinplifikazioak eta dena azaldu beharra alde batera utzita, Saizarbitoriak ironiaren inguruan antolatu du bere idazlana, xehetasunak eta zeharkako aipamenak ulertzeko gai den irakurlea gogon. Liburu hau, azken urteotan idatzi dituen beste lan batzuekin konparatuta, divertimentotzat har daiteke. hala ere, idazleak ez dio ukorik egin benetako literatura egiteari.



NARRAZIOA

RAMON SAIZARBITORIA

Kandinskyren tradizioa

EREIN. DONOSTIA 2003
88 OR. 7,50 EURO

JAVIER ROJO

LIBROS

Kertész errepuscular

La visión de los yippies

Mujeres sin esperanza

Memoria berreskuratzea

LILI ETA BIOK

Egilea: Ramon Saizarbitoria.
Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 576.
Prezioa: 24 euros.



:: JAVIER ROJO

Euskal literaturaz pixka bat informatuta dagoen edozein irakurlek badaki Ramon Saizarbitoria erdigeneko tokian kokatuta dagoela gure literatur sistema honetan. Eta argitaratzen dituen liburu berriek leku hori baieztatu baino ez dute egiten, bere eskutik etorri zaigun azken idazlanean frogatu daitezkeen bezala. 2015. ean nobela mardul bat eman baitzuen argitara, Lili eta biok izenburua duena, non berriro ere Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza osatzen duten klabeak azaltzen zaizkigun. Kasu honetan nobelaren argumentu nagusia, edo hobeto esateko nobelaren argumentua sostengatzen duen trama nagusia, idazle baten (Faustino Iturbe) eta neska nerabe baten (Lili) harremanean oi-

narritzen da. Harreman honi esker, idazleak Gerra Zibilean kokatutako gertakari tragiko batzuen berri izango du, eta gertakari horien atzetik dabilelarik, idazlea ezinezko kasualitate sare baten erdian kokatuta aurkituko da. Gai asko aipatzen dira nobela honetan, argumentua maila desberdinetan zabaltzen baita, baina ziur aski garrantzirik handiena duen gaia memoria historikoa berreskuratzearekin zerkusirik duena izango da. Gerra Zibilean gertatutakoak azaltzen saiatzen delarik eta memoria berreskuratzen den neurrian, pertsonaia batzuk orduan gertatutakoekin oraindik ere obsesionatuta agertzen dira. Ordukoek oraindik ere beren oraingo bizitzara eragiten baitute. Eta honek kontzientzia txarra uzten die, kasuren batean pertsonaiaren batek pentsatzen duelako koldarki jokatu zuela momentu latz batean, edota, besteren kasuan, irabazleen alderdikoen ondorengoa izatea lotsagarri iruditzen zaiolako. Eta memoria berreskuratzen den bitartean, pertsonaien arteko harreman afektiboak eta gaixotasunak beraien bizitzetan hartzen duen garrantzia ere azpimarratzen dira. Saizarbitoriaren literatura alor horretan adituak diren pertsonentzat idatzita dagoela ematen du batzuetan, irakurleari ahalegin handia eskatzen baitio. Kasu hau, ostera, desberdina da, idazlan hau ia-ia abentura nobela balitz bezala irakur baitaiteke, genero honetako edozein liburu bezain dibertigarria ere bada-eta.



Pedagogia asmoa

MIREN ETA ERROMANTIZISMOA

Egilea: R. Saizarbitoria.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 248.
Prezioa: 15 euro.



|| JAVIER ROJO

Ramon Saizarbitoriaren azken nobela, 'Miren eta erromantizismoa', gazteei zuzendutako testua da. Alde honetatik begiratuta, idazlearen literatur ibilbidean lan marjinala dela-edo esan daiteke. Liburu honetan kontaktzen den istorioak topiko xamarra dirudi, oinarrian hiru pertsonaiak osatutako amodiozko triangelua agertzen baitzaigu, honela laburtu daitekeena: institutu batean, mutil berri bat agertu da, Said, jatorri marokarra duena; Said erakargarria da, eta Mirenek haren ganako zerbait berezia sentitzen du; edonola ere, mutila Klararen sarean erori da. Nerabeentzako melodrama izan liteke istorio hau, eta egia da, nobela honek asko du melodramatik. Triangelu topikoaren aurrean gaudelarik pertsonaien aurkezpena ere nahiko topikoa eta eskematikoa dela esan daiteke. Said: mutil berria, eta berria eta

exotikoa den aldetik misteriotsua nonbait. Klara: erle erregina, azalekoa, klaseko guztiak bere atzean dituen. Miren: azaleko kontuak alde batera utzita beti sakonera begira dagoena. Planteamendua gardena da, eta narratzaileak lehenengo momentutik argi utzi nahi du Saiden maitasuna lortzeko ahaleginetan noren alde jo behar duen irakurleak. Argumentuaren garapenean garrantzirik handiena duten osagaiak elkarrizketak dira. Izan ere, pertsonaiek nobelaren denbora luzeena hitz egiten pasatzen dute, eta narratzaileak estilo zuzeneko elkarrizketak transkribatzen ez dituenean, zehar estiloaren bidez elkarrizketa horiek kontatzen ditu, hori bai, komentarioak-eta erantsiz. Pertsonaien interakzio hau, bestalde, ia beti binaka egiten da. Bigarren mailako pertsonaiak, gurasoak edota irakasleren bat, agertzen direnean ere antzeko ezaugarriak ditu testuak. Elkarrizketen bidez adierazten diren harremanak alde batera utzita, ez da gauza askorik gertatzen.

Begi-bistakoa iruditu zait testuan asmo pedagogiko nabarmena dagoela, balizko irakurle nerabeei gauzak irakasteko helburua behin eta berriro agertzen baita narratzailearen mintzaldietan, eta nire ustez honek kontakizunaren aldetik oztopoa suposatzen du, gertakariak, triangeluaren garapena eta bilakara, eta erreferentzia gehienak asmo horren menpean daudela ematen baitu.

El nue

Seme-alaben bila

Koaderno gorria izeneko eleberri honetan, Arantxa Urretabizkaia berritro heldu dio literatura idazteari. Inoiz ere ez du guztiz baztertu lan hau, baina euskal literaturan egiten dituen agerpenak oso noizbehinkakoak izaten dira, ixilaldi luzeak tartean. Honetan istorio intimista bat kontatzen digu: ama batek seme-alabekiko kontaktua berreskuratu nahi du eta, honetarako, hauekin harremanetan jarriko den mezularia bidaltzen du Venezuelara. Istorioa bi mailatan garatzen da.

Batetik, mezulariak seme-alabengana hurbiltzeko egiten dituen ahaleginak eta, bestaldetik, amak hauen zat idatzi duen testua. Istorioa intimista dela esan dut, hau da, gertatu nobelan zehar ez da oso gauza berezirik gertatzen, eta gehienetan ez da hausnarketarako betarik ematen. Sentimenduak dira nagusi. Argumentuak, edonola ere, zenbaitetan oso hari ahula duela iruditu zait, eta hari horri tira eginez gero errez lur joko lukeela, kartazko eraikina bailitzan. A. Urretabizkaia, dena den, ahotsa du euskal literaturan, berea eta berezia. Erreferentzia puntu garrantzitsua da, alegia. Eta bukatzeko, kontu txiki bat liburuaren izenburua dela eta: *koaderno gorriak ezinbestean The Red Notebook* gogoratu dit. Kasualitatea ala kasualitatea?



ARANTXA URRETABIZKAIA

Koaderno gorria

EREIN.
DONOSTIA, 1998.
132 OR. 1500 PZTA.

JAVIER ROJO



Zahartzaroan

|| JAVIER ROJO

Arantxa Urretabizkaia eskarmentu handiko idazlea da, eta hori nabaritzen da bere liburuetan. Argumentuaren aldetik euskarri gutxi izanda ere, itxuraz kontakizunaren gaia oso ximplea bada ere, trebetasuna dauka istorio hori aurrera ateratzeko, interesgarri bihurtuta. Halaxe gertatzen da '3 Mariak' izenburuko nobela honetan. Hasieran ematen du zahartzaroaz ari den ohiko nobela baten aurrean egongo gara: narratzailearena egiten duen pertsonaia nagusia, Maria Alkain izenez baina 'Txuri' deitzen dioten emakumea, alargun geratu da laurogei urteen mugan; ikusi ditugun beste nobela batzuetan, halako egoeran gertatzen den pertsonaia atzera begira jartzen da, eta behin eta berriro memoriaren gaiari eutsiko zaio. Hemen ez. Senarraren hileta-elizkizunetan daudelarik, beste pertsonaia bat agertuko zaigu, 'Gorri' deitzen dioten emakumea, Txuriren gaztaroko adiskidea eta aspaldian herritik alde egina zena. Eta biak elkartuko dira zahartzaroan 'Handi'ekin osatzen zuten adiskide-triangela berri ere eraikitzeko, ho-

riek baitira izenburuko hiru Mariak. Txuri eta Gorri guztiz desberdinak dira, bata errotuta dago, landare bat bezala; bestea munduan zehar ibili da eta beti dago egitasmo berriak pentsatzen, geldirik egotea ezinezkoa izango balitzaito bezala. Jakin badakigu Txuriren bizitzan gazi-gozoak daudela, bizipozak izan dituela, eta hutsune nabarmen eta mingarriak. Hauetaz, ordea, gutxi hitz egiten da. Izan ere, Txurik alabaren heriotza jasan behar izan du, baina ez da halako atsekabeetan murgiltzen, eta ez digu horretaz xehetasun handirik ematen.

Zahartzaroan dauden pertsonaia hauekin batera, gazteak diren beste batzuk ere agertzen zaizkigu, baina dudarik gabe, protagonismoa Txurik eta Gorri dute.

Nobela honetan topikoetatik aldentzen da idazlea, zahartzaroan egon arren bizirauteaz gain beste helburu batzuk dituzten pertsonaia aurkeztuta. Memoria agertzen zaigu, baina memoriak ez ditu pertsonaien bizitzak mugatzen, atzera begira egon beharrean helburu berri horietan jartzen baitituzte indarrak. Iraganean momentu mingarriak agertzen zaizkie pertsonaiei, baina hala ere ez dira iraganaldi horretan gertatutakoen mendeen bizi. Nobelari malenkonia puntu bat ere falta ez zaion arren, bitalismoz beteriko istorioa dugu.

Eta argumentuan hari solteren batzuk ikus ditzakegu, bizitzan bezala, bizitzan ezinezkoa baita dena kontrolatuta edukitzea.



3 MARIAK

Egiler: Arantxa Urretabizkaia.
Eleberria.
Argitaletxea:
Erein. 192 orr.
Sauneturria: 15,50 euro



Oroimen-ariketa

✪ JAVIER ROJO

Arantxa Urretabizkaia bere azken liburuan fikziozko narratiba alde batera utzi du, horren ordez autobiografiaren edota oroitzapen-liburuaren esparruan koka litekeen idazlan bat eskaintzeko. Liburuak 'Zuri-beltzeko argazkiak' du izenburua. Justifikazio itxura duen aurkezpen batekin horniturik agertzen zaigu, eta bertan idazleak argi plazaratzen du bere asmoa: orain zahartzaroaren atarian dagoen belaunaldi baten haurtzaroko mundua nolako izan den kontatzea. Idazleak ez du ezer ezkututzen, ez du agintzen gero beteko ez duenik. Bere burua, bere haurtzarora hain zuzen, hartu du ardatz moduan, 1947tik 1960ra bitarteko urte epean jendea nola bizi zen kontatzeko. Eta bere buruaz hitz egiterakoan bere belaunaldiaz hitz egiten du, gerran galtzaile suertatu zirenen ondokoen haurtzaroz ari baitzaigu Urretabizkaia, eskasian eta errepresioan hazi zen belaunaldi batez. Gero belaunaldi horrek eskasiari eta errepresioari aurre egingo zien, baina hori liburuaren urte-epetik kanpo gelditzen da, zeren, nahi bada, 68ko belaunaldiko jendearen haurtzaroz ari baita liburu honetan. Metonimia handi bat, beraz.

Liburuaren egitura berezia da, autobiografiekin eta oroitzapen-liburuekin konparatuz gero. Hasierako orrialdeetan idazleak bere familiaren aurkezpena egin ondoren (nor nor den azaltzen zaigu), liburu gaika zatikatuta agertzen zaigu, izenburuan aipatzen diren

argazkien modukoak eskainiz. Besteak beste, elizaz hitz egiten zaigu. Eta hauxe da gaian lehenengoa, eliza baitzen ohiko errealitatearen nondik norakoak bideratzen zituen, bai etxetik kanpo bai etxearen barruan ere. Urretabizkaia familia gerran galtzaile suertatu zen, baina Euskal Herrian horrek ez zuen esan nahi elizaren kontrakoa zenik, alderantziz baizik, familia abertzaleetan ohikoa zen bezala. Moralitatearen eredu eskaintzen zuen elizak eta errepresioarekin bat egiten zuen hainbatetan. Baina errepresio nagusia ez zetorren kanpotik. Norberak bere buruari inposatzen zion errepresioak isiltasunera eramaten zuen jendea. Liburuaren egiturak beste ondorio bat du, gaika antolatuta egoterakoan ez baita ia data-aipamenik agertzen, eta denboraren aldetik dena zehaztugabe uzten du.



ZURI-BELTZEKO ARGAZKIAK

Egilea: Arantxa Urretabizkaia.
Autobiografia.
Argitaletxea: Pamiela, 144 orr.
Irudia, 2014.
Salneurria: 12 euro

Nostalgia pizten da honelako memoria ariketekin eta, normala denez, denboraren igarotzearekin dena leunduta gelditzen da, azken finean iragana gaurko ikuspuntutik berreraikitzen duen filtro moduko bat baita oroimena.



Hondarribiko alardeaz

BIDEAN IKASIA

Egilea: Arantxa Urretabizkaia.
Generoa: Saiakera.
Argitaletxea: Pamiela.
Orrialdeak: 144.
Prezioa: 12 euro.



|| JAVIER ROJO

Arantxa Urretabizkaia bere azken liburuan kronika eta memoria uzartzen ditu, Hondarribiko alardearen inguruan emakumeen partehartzea dela-eta sortutako istiluak kontatzeko. Saiakera eta narrazioaren muga kokatzen den liburu hau 'Bidean ikasia' bataiatu du. 90eko hamarkadaren hasieratik planteatu diren aldaketen kontatari ekin dio idazleak, emakumeek egindako ibilbidea eta inguruko zenbait pertsonarengandik jasandakoa azalduz. Urretabizkaia-
ren kontaeran ikuspuntu pertsonala nabarmentzen da, berak lehen pertsonan bizi izandakoa adierazten baita. Baina subjektuaren inpresio horiek azaltzerakoan, bidelagun izan dituen hainbat

pertsonak jasandakoa ere biltzen da kontaeran, bizipen horiek kolektibo batek ere partekatzen baititu. Kontaera osoan emakumeen parte-hartzea generoen arteko eskubide berdintasunetik azalduta agertzen da. Izan ere, alardean atara nahi izan duten emakumeek kantineraren paperera mugatuta zegoen rola inplikatzeko zuten diskriminazioa gainditu eta bertan berdintasunean aritu nahi zuten. Alde honetatik begiratuta, esparru publikoaren aldarrikapen moduan ulertu daiteke borroka hori.

Kolektibo batenak ere badiren bizipen pertsonalek, jakina, eragin zuzena dute pertsonaren izaeran, batez ere, borroka hori zela-eta, inguruko ezin ikusia, gorrotoa eta batzuetan eraso fisikoak jasaten dituenen. Baina honez gainera, idazleak kontaeraren parte handia eskaintzen dio gai honen inguruan zenbait politikarik izan duten jarrerara bikoitza kritikatzeko, eskubide berdintasuna benetan gauzatzeko ezertxo ere egiten ez baitzuten.

Hondarribian gertatutakoa urrutetik ikusi dugunontzat zaila da ulertzea zer dela-eta planteatu den halako arazoa, batez ere kontuan hartuta gure gizartearen eskubideen berdintasuna kontu larriagoetan asumitu dela hainbat istilu sortu gabe. Liburu honek egoera hori pairatu dutenen ahotsa plazaratzen du, eta ahots hori, luzaroan isilik egon den ahots hori, da nabarmena.

EL CORREO JUEVES, 6 DE MARZO DE 1997 9 TERRITARIOS

Sartn

Literaturaren gainean

Jodu herratuaren mitoa oinarriturik, Anjel Lertxundik kalea batean mundua gurtzatzera kondenatuta dauden aita-alaben istorioa kontatzen digu eleberri honetan. Inoiz ez hiltzera kondenatuta daudenez, leku eta denbora askotan zehar ibiltzen dira, V. Wolf-en Orlando hura bezala, amiets (ameskaitz?) baten barruan harrapatuta egongo balira bezala. Ohi duen moduan, Anjel Lertxundik idazkera estilizatu, jaso eta mundu arruntetik urrun dagoen batez eraiki du bere liburu hau. Baina istoriak berak beste garrantzi dauka hori aurrera eramateko erabili duen bideak implikatzen duenak. Izan ere, Lertxundirentzat literaturak bizitza ondezkatzen duenez, eleberri honetan bizitzaz aritu beharrean literaturaz ari zaugu etengabe. Literaturaren gaineko literatura hau, neurri batean, interesgarri gerta daiteke, baina argumentuaren euskarri bakartzat aurkezten zaigunean, hutsegia ematen du. Bere burua azaltzen ari den literatura egiten du Lertxundik. Hau ulertzeko, hor dugu aita eta alaba horien irudia. Alabak behin baino gehiagotan galdetzen dio aitari zigor horren zergatiak, honek inoiz erantzuten ez duelarik. Erantzuna, ordea, begibistakoa da: Zigor hori gabe, Anjel Lertxundik ezin izango baitzuen *Azkenaz beste* deitutako eleberri hori idatzi.



EL EBERRIA
ANJEL LERTXUNDI
Azkenaz beste
ALBERDANIA
DONOSTIA, 1996.
222 ORR. 2200 PZTA.

JAVIER ROJO

Dos v

Abenturak besaulkian

Euskal idazle batzuek pentsatzen dute irakurtzea merezi duten liburuak dagoeneko idatzita daudela. Hortaz, idazlearen funtzioa berridazketarena izan-go litzateke, beste batzuek egindakoa abiapuntutzat hartuta beraren idazlana sortzeko. Neurri handi batean Anjel Lertxundiaren literatur praktika printzipio honetan oinarritzen da. Lan bat idazteko akuilua munduan ez, baina literaturan bertan aurkitu duten idazleetakoa da Anjel Lertxundi. Kasu honetan, eta itsasoa eta



ELEBERRIA

ANJEL LERTXUNDI

Lehorreko koaderno

ALBERDANIA
DONOSTIA, 1998
122 OR. 1500 PZTA.

abentura uzartu nahi dituelarik, Stevenson da euskal idazlea sorbaldetan altxatutko duen erraldoia. Abentura, edonola ere, zeharo literarioa izanik, lekurik mirezgarrienak eta arriskurik zիրraragarrienak bibliotekatik irten gabe ezagutu daitezke, gaurko munduak abenturarako uzien duen toki bakarra liburu baten orrialdeetan aurkitzen da-eta, hala liburuko protagonistarentzat nola irakurleontzat ere. Idazkera dela-eta, eta estiloaren kanpadura gustatzen ez zaidan irakurlea naizelarik, aitortu behar dut askoz interesagarriago deritzadala liburu honetan aukeratu duen bide lauari, bestetan arratu nahi izan duen markartsuari baino: azken hauetan euskara bera lantzea helburu duela dirudienez, idazlearen indar gehienak idazkeran akitzen zaizkiola baitirudi.

JAVIER ROJO


Aque

Biktimaren aurpegia

Anjel Lertxundik Euskal Herrian pairatzen den biolentzia egoerazidatzi nahi izan du bere azken honetan. 'Zorion perfektua' izenburu adierazgarria du. Hone tarako, ikuspuntu berezi bat hautatu du: hilketaren lekuko suertatzen den hamasei urteko neska. Neska honen begien aurrean pertsona bat hil baitute eta neska hori begiradak biktimaren begiradarekin bat egin baitu heriotzaren momentuan. Abiapuntu interesgarri honekin kontaktzen da neska horrek nola ematen dituen hurrengo hogeita lau orduak. Baina

protagonista horren ikuspuntua eskaintzen bada ere, ez zaio irakurleari neska horren ikuspuntua eskaintzen, baizik eta handik hamalau urtera neska hura emakume heldua bihurtuta daukana. Gauzak honela, gertakari horiek gogoratzean, sentimenduak gogoratu baino gehiago helduaren ikuspuntutik berrinterpretatu egiten ditu. Neska protagonistarekin batera, bere inguruan dauden beste pertsonaia batzuk ere agertzen dira: gurusak, institutoko irakasleak, kazetariak... Hauek guztiak, ordea, ia-ia ezaugarri bakar batez baitaude karakterizatuta, sinpleegiak suertatzen dira, topikoegiak. Biolentziak pintatzen du gure eguneroko paisaia, eta literaturak ezin dio uko egin errealitate hori azaltzeari, ezer gertatuko ez balitz bezala.

JAVIER ROJO



NOBELA

ANJEL LERTXUNDI

Zorion perfektua

ALBERDANIA,
DONOSTIA, 2002
166 OR. 11,50 EURO

Gau bat Baconekin

Eleberri beltza

JAVIER ROJO

Batzuetan Anjel Lertxundik literatura ibilbide aldakor samarra eraman duela iruditu zait, bide desberdinak urratuz, eta urratu bezain laster alde batera utzita, bide horiek nahi duen lekura eramango ez dutelako inpresioa izango balu bezala. Gauzak honela, liburu miresgarrien ondoan, frakasutat har daitezkeen ahalegin literarioak ere ikus ditzakegu, edota frakasuak izan gabe hizkuntza-saiakeren itxura handiegia duten testuak, hizkuntz sinfonia zailegiak. Alde horretatik, ausardia aitortu behar zaio idazleari, askoz errazagoa baita porrot egitea halako esperimentuetan, bere hartan eroso egonda baino. Oraingo honetan nobela beltzaren topikoak gogora ekartzen dituen liburu bat argitaratu du, 'Zoaz infernura, laztana' izenburua duena. Izenburuak Chandler-en 'Farewell, My Lovely'

gogoratzen du, eta horri liburuaren hasieran agertzen den aipua gaineratzen badiogu ('Postariak bi aldiz deitzen du beti' nobelatik hartutakoa), nobela beltzaren zalea lehenengo momentutik ohartuko da zer-nolako marko barruan eskaintzen zaion istorioa. Argumentua, bestalde, gaurkotasun handikoa dela esan daiteke (komunikabideetan agertzen dena iku-

sita behintzat), emakume batek senarrarengandik jasotzen dituen tratu txarretan oinarritzen baita. Beraz, esan daiteke genero beltzeko literatura eta gai soziala elkartzeko ahalegina egin duela idazleak liburu honetan.

Eleberria



Anjel Lertxundi
**Zoaz infernura,
lasztana**

Argitaletxea
Alberdania
Irun, 2008
Orrialdeak 184
Saineurria 16,50
euro

Nobela erraz irakurtzen da, eta hori azpimarratu egin behar da, batzuetan Anjel Lertxundiren testuek esfortzu handiegia eskatu izan baitote irakurleari. Kasu honetan, ez, nobela hasi eta buka irakur daiteke, eta testua ez da inoiz nabarmentzen, ez da inoiz istoriora heltzea eragozten duen oztopoa. Argumentua interesgarria iruditu zait, baina nobelak atentzioa eman didaten zenbait elementu dauzka, oso koherenteak iruditu ez zaizkidanak. Hainbat narrazioaren nahasketa da osagai horietako bat, nire ustez, halako nobela batean soberan dagoena. Bestalde, garai aldetik dagoen zehaztugabetasuna ere aipagarria iruditzen zait, ez baitago jakite-rik zehazki noiz kokatzen diren gertakariak: 60ko hamarkada gogora ekartzen duten osagaiekin batera, 80ko hamarkadaren erdialdekoak edota modernoagoak diruditen beste batzuk agertzen baitira.

Edonola ere, Lertxundi oso ondo jakin du suspensea neurtzen argumentua garatzerakoan eta intriga maite duen irakurlea erraz geratuko da kateatuta gasolindegian lan egingen zuen emakume horren istorioan.



Semearen aitortpena

:: JAVIER ROJO

Ez dut ezer berririk azalduko esaten badut Anjel Lertxundi euskal literaturan dugun idazlerik garrantzitsuenetakoa bat dela, gure kanonaren zutabeetako bat. Neurri handi batean bere liburuak markatu dute euskal literaturaren norabidea azken berrogei urteotan. Eta agian hain garrantzitsua delako, irakurleok berari exijitzen diogu beste idazle batzuei eskatzen ez dieguna: idazten dituen guztietan bere mailaren eredu erakutsi diezagula. Eta agian horregatik iruditzen zait azken urte hauetan nobelaren alorrean eskaini dituen zenbait lanetan zer-bait falta zela. Bide berriak urratu nahian zebilela zirudien, baina saio horien ostean

'Etxeko hautsa' izenburuko nobela eman du argitara, eta nobela honekin Lertxundik euskal literaturaren kanonaren erdigunean jarri duen kalitatearen erakusketa eskaini digula esan daiteke.

Nobelaren lehenengo pertsonaia kontatzen zaigu nola pertsonaia bat bere aitari zuzentzen zaion, bien artean esan gabe gelditu direnak azaltzeko. Protagonista Bartzelonan bizi den publizista bat da, eta gazte denboran, Francoren garaiko azken urteetan, ETako kide batzuei lagundu zien, eta bere autoan eraman zituen. Aitak ezer jakin ez horretaz. Eta horretan oinarrituta, aitortpen luzea hasten da non aita-semeen arteko harremanak nabarmetzen diren.

Kontua da, aitortpen hau egiten duenean, aita senilitateak jota dagoela eta ez duela ezer ere ulertzen. Liburuan kronika egiten zaigu, baina gertakarien kronika egin beharrean, sentimenduen eta gertakarien aurreko jarrearen aldaketaren kronika egiten zaigu. Oroimenaz hitz egiten zaigu, baina idazlea, eta idazlearekin batera narratzailea, kontzientea da oroitzean berreraikitzen dugun lehenaldi horretan agertzen

zaigun subjektua ez dela garai hartako hura, oraingo hau baizik, oraingo lehenaldira proiektatzen baita lehenaldi horrek zentzurik izan dezan.

Liburuak literatur oinarri garbiak ditu: 'Pailazo baten aburua', esate baterako, behin eta berriro aipatzen da-eta; baina beste ikuspuntu batetik begiratuta Kafkaren 'Aitari gutuna' ren aztarnaren bat ere aurki daiteke liburu honetan. Eta



ETXeko HAUTSA

Egilea: Anjel Lertxundi.
Eteberriz.
Argitalerria: 244
Irudi, 2011.
Sainneurria: 18 euro

personaia bat bere aitari honek ulertuko ez duen aitortpena egiten dion bitartean, belaunaldi baten kideen desengainuaren lekukoak izango gara, pertsonaia horren irakurle askok ispilu bat aurkituko baitute. Epilogo soberan dagoela iruditzen bazait ere (barkatu Lertxundi, baina zuri perfekzioa eskatzen ohi gaudu), nobela mirezgarria iruditzen zait.



Narrazio eredugarriak

:: JAVIER ROJO

Anjel Lertxundi narraziogintzara bueltatu da 'Paper-festa'-ren kontrazalean adierazten duenez. Bertan liburu honen eta 'Eskarmentuaren paperak'-en arteko lotura ere azaltzen da, beraien arteko genero desberdintasuna azpimarratuz: hausnarketa zen ardatza orain dela hiru urteko liburuan; oraingoan «kontakizunaren bidea aukeratu du» idazleak. Azken liburu hau hartzen duen irakurleak narrazioaren bidetik doala irakurrita, agian espektatiba okerrak eraiki ditzake. Narrazioa da liburu honetan agertzen diren testuetan nabarmentzen dena, baina narrazio hori gehienetan beste zerbaiten menpean dagoela esan behar da. Izan ere, liburua testu laburren bilduma da, ipuin eta narrazio laburren bilduma. Testu laburrak lau sailetan banatzen dira, banaketa hau liburua egituratzen duen hezurdura delarik: gerla, bizitza, literatura eta heriotza.

Baina iruditu zait, narrazio laburrez osaturik

badago ere, ez dela benetan narrazio laburren liburua. Hitz gutxitan: narrazio hauek jarrera etikoa etsenplifikatzen duten testuak ematen dute. Ipuinetan adibide moduko istorioak agertzen dira, non jarrera etikoa nabarmendu nahi den, ipuinaren balio estetikoak jarrera etiko horren menpean gelditzen direlarik. Arazo handirik gabe, testuok literatura aszetikoan 'exempla' deitzen ziren haiekin dituzten loturak nabaritu daitezke. Desberdintasunen bat dago, ordea: hemen jarrera etikoa gehienetan ez da esplizitatzen, beraz irakurlearen interpretazioaren menpe gelditzen da, idazleak bai baitaki irakurleak testu hauek interpretatzeko gai izango direla. Zein da bertako jarrera etikoa? Historia pairatzen duen herri xehearena da, konfliktu handien azpian bizirautearekin nahiko duen gizaki xumearena, gizakien mailako justiziaren faltan justizia poetikoaren zain geratu behar denarena.

Honelako liburu batek ezinbestez pixka bat errepikakorra izan behar. Eskerrak hor dagoen Lertxundiren trebetasuna.



PAPER-FESTA

Anjel Lertxundi
Narrazioak
Alberdania
Irati, 2012
280 orr.
18,50 euro

LOS MÁS VENDIDOS

RECIBIMOS

Precipicio sin contorno

La muerte de un asesino

La vigencia de los mitos

Gaixotasunaren erdigunetik

ZU

Egilea: Anjel Lertxundi.
Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 280.
Prezioa: 19 euros.



:: JAVIER ROJO

Anjel Lertxundik argitara eman duen azken liburua sailkatzen zaila da, 'Zu' izenburuko idazlan hau kronika, dietario, egunkari edo saiakeratza har baitaiteke. Arrazoi praktikoengatik narrazioa edo nobela deituko dut. Horrela bada, narrazio honetan idazlearekin paretatu daitekeen narratzaile batek emazteari pankreako minbizia diagnostikatu diotela-eta erabaki du denbora errealean gaixotasunaren bilakaeraren kontaketa egitea. Hau da, narratzaile-idazleak narratzaileari hasiera ematen dionean, ez daki zein izango den gaixotasunaren bilakaera, eta momentuan momentuko inpresioak azaltzen ditu. Narratzaileak batzuetan lehenengo pertsona erabiltzen du kontaketa, bestetan hirugarren pertsona, eta emaztea Zu da, baina beti izen be-

rezia izango balitz bezala erabiltzen. Idazleak emaztearen gaixotasunaren aurrean bere burua gordintan osoz biluzten du. Pertsonaien gorabeherak kontatzen dira (medikuengana egiten diren bisitak, emazteak pasatu behar dituen probak...) baina harantzago doa nobela deitu dudana idazlan hau. Honelako egoerak inguruan dauden guztiak berkokatzen behartzen ditu, eta halaxe gertatzen da idazle-narratzailearekin. Gaixotasuna hausnarketarako abiapuntu bihurtzen da, hausnarketa hau alor guztietara hedatzen delarik. Izan ere, sufrimenduaren izaeraz eta balioaz galderak planteatzera eramaten du idazlea, eta alor honetan transzendentziaren bat bilatzen duen pertsona moduan aurkeztzen zaigu, edozein delarik ere bizitzak zentzuren bat izan behar baitu ezinbestez. Literaturaz ere hausnartzen ikusten dugu idazlea, munda literaturaren bidez bazik pentsatu ezina balitz bezala. Eta humanismoa. Humanismoak aldearik alde zeharkatzen du nobela hau, eta hori dela-eta, medikuntzaren teknifikazioaren alderdi txarra, gaixoa ahaztera daraman despersonalizazioa, kritikatu du. Liburuak askotan irakurlearen empatia erakartzen du, ezinezkoa baita halako gorabeheretatik pasatzen duten pertsonengandik hurbil ez sentitzea. Gaixotasunaren erdigunetik egindako bizitzaren aldeko aldarria da idazlan hunkigarri hau, eta baita maitasun deklarazioa ere.

Traición a uno mismo

Maria Ariz

El libro de Gilles de Rais, 'La Pucelle', es una obra que se puede leer con tranquilidad. Aunque el tema es el de la traición, el autor lo trata con una gran sensibilidad y una gran capacidad de análisis. El libro es una obra que se puede leer con tranquilidad. Aunque el tema es el de la traición, el autor lo trata con una gran sensibilidad y una gran capacidad de análisis.

Intimidad
Impresión

Cuentos de
Suspensión

Antzerkiaren egia

JAVIER ROJO

Idazle onen ezaugarria izaten da zerbait berezia eskaintzen dutela baita lanik nagusien artean kokatzerik ez dagoen edota bigarren mailakotzat har daitezkeen liburuak argitaratzen dituztenean ere. Tropelekoek, ordea, beren momenturik gorenetan bakarrik lor dezakete hori, inoiz lortzera heltzen badira behintzat. Eta Lertxundi, idazle handia da. Argumentuaren aldetik narrazio anekdotikoa dirudi: azken gerra karlistan, karlistek frantziar antzerkilari bat kontratatzen dute 'La Pucelle' obraren bertsio baten antzezpina presta dezan tropak adoretzeko asmoz, Frantziako erregearen eta Espainiako errege-nahiaren arteko izenkidetasuna aprobetxatuz; hori bai, Arc-eko Juanaren bizitzaren antzezpenean, Gilles de Raisen aipamen oro baztertu behar da. Gilles de Rais, ipuin askoren piztiaren atzean aurkitzen den pertsonaia historikoa, deabrua bera, edo, gaur egungo terminologian esanda, hiltzaile psikopata.

Argumentua, beraz, hasieran ez da pasatzen anekdota bitxia izatetik, gerraren muinean ge-

GILLES DE RAIS
ANGEL LERTXUNDI

Argitaletxea:
Alberdania.
Orrialdeak: 114.
Prezioa: 13,50 euro.



ratzen direnetakoa, hori bai, fanatismoa eta gizakiaren gaizakeria bezalako gaiak ukitzen dituen. Baina argumentu horrek idazle handi baten eskuetan dagoenean transzenditzen ditu bere mugak. Irakurlea liburuaren hirugarren atalera heltzen denean, ohartzen da aurreko guztia ia-ia prestaketa bat izan dela orain aurreztuko zaiona enmarkatzeko, zeren idazlana azken zati honetan bere klimaxera heltzen baita. Atal horretan kontaktzen baita frantses antzezlariak prestatutako antzezpina, antzezpenean bertan pertsonaien errealitatea eta antzerkiaren fikzioa era miresgarrian nahasten direlarik, aktoerak aldi berean antzezlari eta pertsona direlarik. Esandakoa: idazlana ez da Lertxundiren bilakaeran lehen lerroko obretako bat izango, baina hala ere bikaina da bere xumetasunean.

EL CORREO LIEVES 30 DE MAYO DE 1996 **9** TERRITARIOS *Una revista global*

Ezkutuko historia

Joan Mari Irigoienek ahots berezia du euskal literaturan, estilo markatuaren jabe da-eta. Haren lan bat hartu eta berehala konturatuko da irakurlea Irigoienen nobela duela eskuen artean. *Poliedroaren hostoak* estilo berezi honen lehen adibide-etakoa bat izan zen, eta orain, hainbat urteren ondoren, argitarapen berrituan heldu zaigu. Gaia historikoa da nolabait, kontatzen baitu nola pertsonaia batek bere familiaren gorabeherak aztertzen dituen lehenengo gerra karlistatik aurrera, bere nortasunaren bila. Ikerketa hau burutzeko, arbasoekin lotzen duten historiaren azpiko hari ezkutua argitzen saiatuko da. Idazleak, bere alde-rik, goñari aipatutako estilo propioa osatzen duten ohizko elementuak erabiliko ditu: idazkera abstrak-tua, barrokoegia batzutan; errealitatearen eta furi-tasaren arteko mugak apurtzea, biak mundu ber-berean integratuz; alegoriarako joera, gehiegtzkoa nire gusturako. Eta gaia aurrera eramateko, ekint-za kontrajarrien simetria dialektikoan oinarrituko da, historiari buruzko teoria bat ere aurkeztzen due-larik. Askotan aipatu? da Hego Amerikako nobelak Irigoienengan duen eragina. Orain, nobela honen zenbait atal berri irakurtzean beste izen bat eto-rri zait burura: Italo Calvino eta *Gure arbasoak*.



NOBELA
JOAN MARI IRIGOIEN
Poliedroaren hostoak


EFEIN
DONOSTIA, 1995.
348 ORR. 2.401 PZTA.

JAVIER ROJO

Fárm

Ezinezko lurra

Joan Mari Irigoienek azken eleberria da gaurko liburua: 'Lur bat haratago', liburuaren kontrazalean esaten denari kasu eginez gero, euskaraz inoiz egin den eleberririk mardulena. Nobela, egia da, mardula da, luzea, eta irakurleari arreta berezia eskatzen dio. Argumentuaren aldetik, nobela historiokotzat edo har liteke, zeren gertakariak XVII mendearen bigarren erdian kokatzen baitira. Lehen pertsona idatzita (testua protagonistak adiskide bati zuzendutako idazlan luzea bailitzan aurkeztuta dago) eta garaiko idazkera, hau da, estilo barrokoa, imitatu nahirik, protagonistaren bilakaera existenziala kontatzeko asmoa du eleberriak. Dena dela, eta idazleak eleberri hau burutzeko egin behar izan duen ahaleginari merezi duen balioa aitortu eta gero, esan behar dut emaitza ez zaidala ahalegin horren parekoa iruditu. Irigoienek hain gustokoak dituen kontrajarrenak eta dikotomiak alde batera utzita, zenbait gauzak pixka bat faltsuak dirudite: idazkera barrokoa imitatu nahiak, adibidez, berarekin darama pastitxearen arriskua, liburua, batez ere narratiboak ez diren ataletan, astuntzeaz gain; pertsonaiek, bestaldetik, beste garai batetik txertatuta dirudite. Gertatu ezin izan zena espekulazioaz haratagoko lur batean baitago.



ELEBERRIA

JOAN MARI IRIGOYEN

Lur bat haratago


ELKARLANEAN
DONOSTIA, 2000
654 OR. 3.900 PZTA.

JAVIER ROJO

El nac

Maitasun mugagabea

Joan Mari Irigoienek amodiozko nobela bat idatzi nahi izan du 'Ipuin batean bezala' izenburupean argitaratu den liburu honetan. Sentimenduz betetako istorio bat da, beraz, nobela honetan irakurleari eskaintzen zaiona. Istorio honetako protagonistek erabateko maitasun istorio bat bizi dute, eta haien arteko amodioa hain erabatekoa denez, maitasunaz gain tragedia ere agertzen da nobelan, maitasun hark edozein muga, edozein zorigaitz gainditzeko ahalmena duela erakutsi nahi balu bezala.



NOBELA

JUAN MARI IRIGOIEN

Ipuin batean bezala

ELKARLANEAN. DONOSTIA, 2002
268 OR. 15,50 EURO

Baina hain maitasun handia, hainbeste zorigaitz pasatzen duten pertsonaia hauen arteko harreman berezia, kontu handiz kontatu behar da, honelako istorio bat edozein momentutan barregarri suertatzeko mugan baitago, sentimenduak sentiberakeria bihurtuta. Izan ere, halako maitasuna karikaturatik hurbilegi egoten da nobela osoan zehar. Nago idazleak, sentimendu mugagabeak kontatu nahirik, kontamoldean gorde behar ziren mugak ere gainditu dituela. Bestaldetik, Irigoienen literaturan ohikoa denez, pertsonaiek ideia batzuen errepresentazio estilizatuak ematen dute, txotxongilo-teatroko pertsonaiak izango balira bezala, idazlearen asmoak plazaratzeko tresna egokiak. Sentimendu onak baino gehiago behar da nobela bat gauzatzeko.

JAVIER ROJO

Futbolariaren bizitza

JAVIER ROJO

Joan Mari Irigoienek azken urte hauetako ohiturari jarraituz urtero nobela berri bat argitaratzen du. Azkenak 'Odolean neraman' du izena eta futbolari baten bizitza kontatzea izan du oinarri, ospera heldu eta haren inguruan antolatzen direnak azaltzea, kirolean gizartearen metafora bilatuta. Futbolak, gure gizarte

hain garrantzitsua izan arren, oso emaitza txikiak izan ditu literaturaren arloan. Ez dakit zergatik izan daitekeen, ohitura falta edo, baina boxeoa bezalako kirolak futbolak baino askoz interesgarriagoa dirudi giza-kondizioaren metafora eraikitzeko, batez ere galtzaileen ikuspuntua azaltzeko, boxeolaria azkenean beti galtzaile suertatzen delako. Futbolak, ordea, oraindik ez du bere baitan gordetzen galtzaileen ikuspuntu hori kontatzeko adinako indarririk. Denbora behar; balio sinboliko hauek bereganatzeko. Literatur tradizio faltak suposatzen duen oztopo honi aurre eginda, Irigoienek futbolari ospetsu baten ibilbidea kontatzeari ekin dio eta horren inguruan antolatzen den parafernalia kritikatu ere nahi izan du, idazle honek ohiko duen idazkeraren estilizatua lagun. Dena dela,

nago nobela honek zerbait falta duela, ironia gehiago agian, futbola azken finean zelai batean pilota baten atzetik korrika egitea besterik ez baita.

Eleberria



Joan Mari Irigoien
Odolean neraman

Argitaletxe
Elkarlanean
Donostia, 2004
Orrialdeak 256
Prezioa 16,45 €

EL CORREO JUEVES, 16 DE ENERO DE 1997 **9** TERRITORIOS La obra polifónica

Un po

Literatura txikia

Atxagak kondagintzan aritzen denean bi lan mota ogin ohi ditu. Batzuk serioak dei daitezkeenak dira. Hauetan aukerak aztertu, mugaraino eraman eta, batzutan, baltza agortu ere, egiten ditu. Besteak, izenien bat emateko, konpromezuzko lanak dei litezke. Azken hauetan, edozein gai hartuta, eta narratzailearen trebeziari esker, obra litxurosoa egiteko gai izaten da Atxaga, nahiz eta lan hauek besteen mailara inolaz ere heldu ez. Azken hauetakoa ematen du Sara izeneko gizona eleberriak. Joku tekniko korapilatsurik egin gabe, idazkera zuzen eta gardenarekin, eta batzutan folletoietatik hartuta dirudien teknika erabiliz (kapituloaren bukaeran bide berri bati ekiten zaito, hurrengoaren atea irekiz) lehenengo karlistadan kokatutako istorioa kontatzen digu Atxagak. Dena den, gerta horri buruz ez. Buzik eta askoz hurbilago dagoen beste gatazka bati buruz ari dela iruditu zait askotan. Egia esan, kontatzen zaiguna tragediaren muga dagoelurik, bestelako lana, sakonagoa eta jasoagoa, egiteko aproposago zirudien, honetan burutu duen konpromenezuzkoa baino. Stripetasuna gora-behera, Atxagak lan polita egin du. Besterik ez. Edozein modutan, honelako eleberriekin bere espazio naturala kontakizun laburra dela gero eta frogatuago dagoela uste dut.



ara izeneko gizona
BERNARDO ATXAGA

ELEBERRIA
BERNARDO ATXAGA
Sara izeneko gizona

PAMELA IRUÑEK, 1996
160 ORRI, 1100 PZTA.

JAVIER ROJO

Literatura hutsa

Atxagak bere azken narrazio-liburu hone-tan alfabetoaren xar-mari men egin dio. Istorioak egituratzeko era baten bila, sistema aseptiko, neutro eta arbitrarioena aukeratu bide du eta, horri jarraituz, kontakizun bakoitza-ren haria za-baldu. Dena dela, liburu horren balioak be-har bezala dastatzeko, ezinbestekoa iruditzen zait Atxagak irakurleari proposatu dion literaturaran azpian dagoen teoria onartzea: Beste-la... Literatur teori

hori, labur-zurrean, hiruzpalau ideia hauetara bil-duko nuke: 1. Atxaga Unberto Ecoren *opera aper-ta* horretaz haraindi joan da beste urrats bat ema-nez. Hori egin duten idazlanentzat *obra hutsa* (hau da, hutsik dagoen obra) izena proposatuko nuke, esanahi asko edukitzeik, edozein esanahi edukitzera, edota esanahirik batere ez edukitzera dagoen aldea benetari txikia baita. 2. Atxagaren lite-ratura behin eta berriro bere buruaz ari da, lite-ratura bera ez den errealtate guztia alde batera utzi-ta. 3. Umorearen diktadurapean idatzi du liburua; horren arriskua begibistakoa da: nahi gabe, atal batzuek txiste errezen itxura har dezakete. Muga hauen barruan, Atxagak testu borobila egin du, honetan ez dago dudarik. Baina irakurle malizio-tsu bati galdera hau burura dakiok: halako maki-naria ederrak ezertarako balio al du?

JAVIER ROJO



KONDAGINTZA

BERNARDO ATXAGA
Groelandiako lezioa

EREIN. DONOSTIA, 1998.
174 OR. 2500 PZTA

Nostalgiaz haraindi

JAVIER ROJO

‘Soinujolearen semea’ izenburua du Bernardo Atxagaren eskutik datorkigun azken nobela honek. Bertan, idazleak adierazi duenez, bere literaturan ziklo bat itxi nahi izan du. Bi mundu agertzen dira kontrajarrita, Atxagaren literaturan balio sinbolikoz beterik azaltzen direnak: batetik, Obaba herria eta

bertako «mekazari zoriontsuak», eta bestetik, hotela, herri horretan txertatuta, baina elkar nahastu gabe, agertzen den mundua. Kontrajarpen honetatik sortzen den tirabiran gauzatzen da argumentua. Mundu hauek garai historiko zehatz batean agertzen zaizkigu, frankismoan, 60ko hamarkadan gehienbat. Frankismoaren mamuak, aspaldiko gorrotoak, borroka armatuaren hasierak, garai hartan pertsonaiek erakusten dituzten ilusioak eta zapuzketak, eta ezintasunak, begien aurretik pasatzen zaizkigu, testu miresgarri baten bidez. Oroimena plazaratu nahi izan du Atxagak nobela honetan, baina normalean gertatu ohi denaren iruntzitarra, oroimena ez da oroimin bihurtzen, atzera begiratzen ia nostalgirik gabeko ikuspuntua agertzen zaigu. Oroimenaren bidez lehenaldia gainditzen baita. Atxagaren literaturaren ezaugarririk hobereenen bilduma da zertzelada biziz beteriko liburu gogoangarri hau.

Eleberria



Bernardo Atxaga
Soinujolearen semea

Argitaletxe
Pamiela
Nafarroa, 2003
Orrialdeak 478
Prezioa: 23 €

lecturas

Prohibido prohibir

Prohibido prohibir. El autor de este libro, el escritor...



Contradicciones

Contradicciones. El autor de este libro, el escritor...



Gorda y mala

Gorda y mala. El autor de este libro, el escritor...



Gerra-gezurrez

JAVIER ROJO

Gernikaren bonbardaketaren urte hurrena dela, Bernardo Atxagaren eskutik 'Markak. Gernika 1937' liburuak datorkigu. Bertan, birpasa egin nahi izan die Gernikaren bonbardaketaz esan diren gezurrei, biktimak bi aldiz biktima bihurtu zituzten gezurrei.

Kontua da 70 urte pasatu direla, eta gaur gai horretaz ardura izan lezakeen jende gehienak baduela gaiaren berri. Oroimenaren berpizteaz arduratzen den ildoarekin bat dator liburu hau, beraz. Badirudi Atxagak kargu hartu nahi izan diela zenbait pertsonari, historian hartu ezin izan den mendekua literaturaren bidez nolabait hartzeko. Eta ondo dago historia gogoratzea bakoitzaren tokia zein izan den jakiteko, baina oroimena ez da lastre bat izan behar, Atxagak berak gogorarazten duen bezala. Bestaldekik, liburuak bi eranskin dauzka, baina nire ustez ez diote gauza handirik eskaintzen testuari.

Saiakera

Bernardo Atxaga
Markak.
Gernika 1937


Arg. Pamiela
Iruña, 2007

Páginas 136
Precio 12,00€



Regresa el inspector Fabel

Regresa el inspector Fabel. El autor de este libro, el escritor...



Gerra-gezurrez

Gerra-gezurrez. El autor de este libro, el escritor...



Famaren xarma

Sinboloen oihana

JAVIER ROJO

Oker ez banago, Ezra Pound-ek esan zuen behin honelako esaldi bat: Literaturan arrano bat zerbaiten sinboloa izan baino lehenago, arranoa da. Pound-ek esan edo ez berdin dio, nire ustez, egia da esaldi horrek adierazi nahi duena, arrano batek sinbologiaren aldetik duen balioa kontuan hartu baino lehenago, hanka biko lumadun moduan duen funtzioa ondo bete behar duela literatur lan batean. Ideia hori etorri zait behin eta berriro burura Bernardo Atxagaren azken nobela, 'Zazpi etxe Frantzian' izenburua duena, irakurtzerakoan.

Orain aste batzuk egunkari honetan bertan hitz egin zen nobelaren gaztelezko bertsioaz. Beraz, argumentuaren aldetik irakurleari ezagunak izango zaizkio nondik norako nagusiak: XX. mendearen hasieran kokatzen dira gertakariak, Kongon, eskualde hau belgikarren erregearen etxalde pribatua zen garaian; bertako goarnizio batera soldadu bat heltzen da, Chrysosotome Liège izenekoa. Ezinezkoa da testu hau Conrad-en nobela laburrarekin ez konparatzea, baina zerbaitekin konparatuz gero, niri gehiago gogoratu dit Coppolaren bertsioa. Izan ere, goarnizioakoak biolentzia giro izugarri baten erdian daude, baina kanpa-

mentu batean oportretan dauden gazteak izango balira bezala portatzen dira askotan, afrikarrak mutilatu, bortxatu eta hil egiten dituzten bitartean. Bortizkeria hau gainetik baino ez da aipatzen, paisaiaren beste edozein osagai izango balitz bezala. Baina Atxaga ez da, esate baterako, Dashiell Hammett. Zerbait kontaktzen duenean, testuak esanahi sinbolikoz betetzea gustatzen zaio, eta horretarako hain gutukoa duen mundu magiko edota fantastikora jotzen du. Sinbologiarako zaletasun horretatik baizik ez dira ulertzen pertsonaiek dituzten ezaugarri batzuk, parodiaren muga jartzen dituztenak.

Hirugarren pertsona kontaktutako nobela honen tonu orokorra ere nahiko nahasia iruditu zait, eta, momentu batean, irakurleak erabaki behar du kontaktzen zaizkionak benetan hartu behar diren edo umore beltzez ziprztindutako narrazio ironiko baten aurrean dagoen. Metafora batekin esatearren (Atxagaren nobela narratzailearen ahotsean hainbestetan agertzen den esamoldearekin azaltzeko), irteera-bide errazik ez duen oihan sarri eta handiegia da liburu hau. Irakurlea bertan sartu daiteke, baina, behin barruan egonda, kostatuko zaio irteera non dagoen jakitea, azken finean ez baitaiki oihan hori benetako den ala dekoratu bat besterik ez.

Eleberria



Bernardo Atxaga
Zazpi etxe Frantzian

Argitaletxea
Pamiela
Iruflea, 2009
Orrialdeak 256
Sainneurria 19,50 euro





Premonizioak

✎ JAVIER ROJO

2013. urtean, Bernardo Atxagak 'Nevadako egunak' izenburuko idazlan garrantzitsua argitara eman ondoren, badirudi idazleak abiadura hartu duela, zeren 2014an ere beste liburu batekin agertu baita plazara. Azken honen 'Txoriak kolpeka' du izenburua, eta bertan bi narrazio eta saio moduko testu bat agertzen dira. Lehenengo narrazioa ('Andoniren heriotza LSDaren argitan') hasieratik ipuin arraroa da, irakurlea orain dela 800.000 urte kokatzen duen haluzinazio baten aurrean dagoela ematen baitu. Baina istorioa aurrera joan ahala, ipuina heriotza baten kronika (barka García Márquez) besterik ez dela konturatuko gara. Izan ere, istorioa haluzinazioaren mugan jartzen zuen parafernaliak ia-ia emendakina dirudi, ezer berezirik eskaini gabe ipuina luzatzen duena. Bigarren ipuinak 'Pierrek dioena entzuten dut' du izenburua eta narrazio enmarkatuaren teknika bidez (narratzaile batek transkribatzen du protagonistak dioena) arazorik gabe erromantizismoaren parametroen barruan jar genezakeen amodiozko istorioa kontatzen du.

Hauk dira liburuan aurkitzen diren narrazioak; hauez gainera, beste testu bat dago, narrazio horiek baino luzeagoa, saiakera moduko bat, Lawrence Arabiakoaz ari dena. Gaia bera harrigarria iruditu zait: zer dela-eta ekartzen digu Atxagak Lawrence Arabiakoari buruzko halako testu bat? Izan ere, pertsonaia hori ez da euskal irakurlea gehien kezkatzen

duten horietakoa. Bai, egia da batez ere adinez pixka bat aurreratuta daudenek pertsonaia ezagutzen dutela, David Lean-en filmari esker besteak beste, baina besterik ez. Gauzak honela, eta kontuan hartuta halako testu bat idazteko oinarriko dokumentazio bilketak ere lan handia dakarrela, pentsatu behar da Atxagarentzat garrantzitsua dela. Baina niri idazlan honetan garrantzitsua ez zait pertsonaia iruditu, pertsonaiaren inguruan kontatzen diren beste gauza batzuk baizik. Hau da, nire ustez Lawrencek aitakia moduan funtzionatzen du. Eta garrantzizkoak diruditen kontuak hauexek dira:

historia eta mitifikazioaren arteko tirabira, eta Lehenengo Mundu Gerrari buruzko komentarioak.

Liburua osatzen duten testuek badute batasuna ematen dien osagaia, txorien bidez gautzen diren premonizioen presentzia alegia. Liburu hau idazlearen produkzioen bigarren maila batean kokatzen da, baina bigarren mailakoa izanda ere, Bernardo Atxagak beti uzten du testuetan bere kalitatearen markaren bat.



TXORIAK KOLPEKA

Egilea: Bernardo Atxaga. Narrazioa k. Argitaletxea: Pamiela. 128 orr. Irudia, 2014. Salneurria: 12 euro

Relatos dialogados

Brevidad, juego e ingenio

Posición adolescente

Literatur txangoa

MUSKERRAREN BIDEA

Autor: Bernardo Atxaga.
Género: Ensayo.
Editorial: Pamieela.
Páginas: 126.
Precio: 9,90 euros.



JAVIER ROJO

Bernardo Atxagak plazaratu duen azken liburuak Muskerraren bidea du izenburua, eta idazlan horrekin irakurlea gonbidatzen du Obaba deitzen den leku horretan zehar bidaia egiteko. Izan ere, esan daiteke liburu hau turistentzat egiten diren gida horien antzekoa dela. Gida honetan agertzen diren lekuak errealtatearen eta mitoaren artean kokatuta daude. Obaba eta Asteasu. Asteasu eta Obaba. Obaba literaturan Asteasuk hartzen duen izena baita. Baina leku mitikoaren oinarri erreala aurkezten zaizkigularik, liburu haurtzaroko mundura egiten den bidaia moduan ere irakur daiteke. Oroimenean Asteasu Obaba bihurtzen baita, haurtzaroan bizi izandakoak indar mitikoz beterik

aurkezten dira eta. Liburuak bi mundu horiek bat egiten duten puntura eramaten du irakurlea, Asteasu (Obaba) dagoeneko galduta dagoen tradizio baten babeslekua izan dela erakusten den bitartean. Geografian zehar egindako bidaia, hortaz, denboran zeharrekoa ere bada, eta Obabara hurbiltzea tradizio horren azken aztarnak oraindik bizirik zeuden garai batean murgiltzea bezalakoa da. Liburu egiteko idazleak batzuetan bere obra ezagunetatik hartutako zati aukeratuak transkribatzen ditu, eta testuinguruari lotu. Alde horretatik, liburu honek Atxagaren literatura ezagutzeko bidea eskaintzen du bere literatura ulertzeko. Beste obra batzuetatik (Obabakoak, Bi anai eta abarretik) atalak izan zen liburu honetarako propio idatzitakoak izan, edozein lerrotan idazlearen idazkera miresgarriaren adibideak aurki ditzakegu, Atxagaren magia berezi hura... Edonola ere, aitortu behar dut batzuetan liburu hau melankolia pizteko ariketa ere iruditu zaidala, idazleak badaki-eta hori lortzeko beharrezkoak diren klabeak erabiltzen. Literatur turisten neurriko gida honetan agertzen diren atal batzuk oso ezagunak gertatu zaizkio Atxagaren idazlanak ezagutzen dituen edonori, tonuak ere Atxagaren marka darama. Eta ezinbestean halako testuak irakurtzean berriro berpiztuko da behinola sentitutako plazera.



Hondoan heriotza

JAVIER ROJO

Bernardo Atxagaren literatura gure erreferentzia puntu nagusietako bat (nagusia ez esatearren) dela kontuan hartuta, argitaratzen dituen idazlan guztiek arreta berezia merezi dute, beti zerbait interesgarri eskaintzeko ahalmena baitu. Halaxe gertatzen da bere azken nobelarekin, 'Etxeak eta hilobiak' izenburua duen liburua mardularekin.

Bide narratibo desberdinetatik jotzen duten istorioak jasotzen ditu nobela honek. Batzuetan istorioek elkarrekiko lotura txikia dutela ematen du, baina ia nahi gabe ere sare sendoa osatzen dute, narrazio bakanak beste argumentu handiago baten mugarriak baitira. Izan ere, pertsonaia batzuen bilakaera ikusten dugu 1970. urtetik hasita, eta atal batzuetan bigarren mailakoak direnak hurrengoetan erdigunean agertzen zaizkigu, aldatuz doazen bitartean. Egitura honekin, irakurleak osatu behar duen puzzlearen itxura duen egitura honekin, idazleak irakurketa anitz ahalbidetzen duen liburua idatzi du. Irakurleak batzuetan alegoria baten

ETXEAK ETA HILOBIAK
BERNARDO ATXAGA

Argitaletxea: Pamiela.
Orrialdeak: 432.
Prezioa: 23.



aurrean dagoela pentsa dezake, eta bere lana puzzlearen pieza guztiak dituelarik alegoria hori argitzea dela elementuen esanahi sakonean arakatuz. Hainbat osagaiaren sinbologiaren atzean zer dagokeen hausnartu beharko du orduan. Horietako batzuek ohikoak dirudite Atxagaren literaturan (basurdeen presentzia, adibidez; edota mututasunaren gaia), eta euskarri modukoak dira liburua ulertzeko garaian.

Niri giza izaeraren analisia iruditu zait nobela honen ardatza, gizatasunaren eta animaliatasunaren dialektikan, hondoan pertsonak heriotzaren aurrean sentitzen duen beldurra dagoelarik. Atxaga idazle bikaina da, eta nobela honetan berriro ere utzi digu horren frog.

EL CORREO JUEVES, 28 DE AGOSTO DE 1997 **9** TERRITORIOS

Pausaleku bila

Beti iruditu zait Koldo Izagirrearen literaturan behin eta berriro gai berberak errepikatzen direla, era ia obsesibo batean, egileari bere literaturan mamu hauet ihes egitea ezinezko gertatuko balitzaito bezala. Luburu honetan horren erakuspena aurkitu dezakegu. Hasieran uniearen ikuspegia hartuta, itsas portuko munduan oinarritzen da bere poesia egiteko, itsasoak eskaini ditzakeen elementuak aprobetxatuz. Hortaz, bere poemetan zehar, marmelak, piratak, naufragoak... agertzen zaizkigu behin eta berriro, eta baita garai batean Espainian egon zen gerra zibilaren aipamena ere, *ritornello* gisa errepikatzen dena, gerra oraindik bukatu ez baititza. Batzutan poeta pertsonala batzuen atzean ezkututzen da, bere ahotsarekin ezin esan dezakeena besteren ahotsen aurkitzeko asmoz edo. Eta, gehienotan bertso librearen joera duen arren, ez dio muzin egiten koplak itxurako poemak egiteari. Etsipen eta nekeko tonua nabaritzen zaio liburu honi. Eta badirudi etsipen eta neke horien ondorioz idazlea errealitatean ezin aurki daitekeen ametszko pausaleku baten bila doala bere poesiarekin, errealitatea dagoeneko estua zaiolakoan. Eta, agian, ametszko pausaleku hau klabe politikoan ere ulertu beharko litzateke.



KOLDO IZAGIRRE
Non dago Basques' Harbour
SUSA
NAFARRROA, 1997.
128 ORR. 1600 PZTA.

JAVIER ROJO

Anarkista martiria

Batzutan badirudi Koldo Izagirrek halako lilura berezia sentitzen duela zenbait pertsonaiarekiko. Izan ere, *Nik ere Germinal!* egin gura nuen aldarririk irakurrita, idazlea iraultzaile anarkistaren xarma erromantikoaren sareetan harrapatuta geratu dela pentsa lezake edonork. Pertsonaia hau (funtsean, Angiollorengan oinarritu da pertsonaia osatzeko), beraz, irakurleari inolako urradurarik gabe, inolako tolesdurarik gabe, aurkezteko ahaleginean murgildurik ikusten dugu idazlea nobela osoan zehar. Narratzailean eta ikuspuntuaren aldaketek,

denboran zehar batzutan egiten dituen aurre-rako eta atzersko jauziek ere helburu bera daukate: iruditzen zaizte idazleak pertsonaiarekiko sentitzen duen lilura bera irakurleak ere senti dezan nahi du. Gutxi falta du nobela honek anarkista iraultzailearen ebangelio modukoa izateko, eta pertsonaia, erlijioaren batek jakinarazi nahi duen egia absolutua defendatzeagatik hiltzeko prest dagoen martiria. Ez du ukatuko estua bikaina dela, hau da, nobela euskararen aldetik oso ondo idatzita dagoela. Baina gauden garaian egonda, zerbait gehiago itxaroten nuen. Ironia piska bat, adibidez. Gauzak bestelakoak izan, ordea. Liburu honekin Izagirre gezur erromantikoan murgildu da, nobela egin nahian.



ELEBERRIA

KOLDO IZAGIRRE

**Nik ere
Germinali**

SUSA, NAFARROA, 1998.
194 OR. 2.000 PZTA.

JAVIER ROJO

Mamuak berpiztuz


JAVIER ROJO

Koldo Izagirre, onerako zein txar-rako, nortasun markatuko idazlea da. Honek esan nahi du, haren literatura bideak gustatu edo ez, beti oso berea den literatura eskaintzen duela, berezko ezaugarri nabarmenak dituen literatura. Halaxe gertatzen da 'Sua nahi, Mr. Churchill?' izeneko liburu honetan, non 17 narrazio agertzen

diren. Izagirreraren literaturak berezkoak dituen ezaugarri horien adibide pribilegiatua da liburu hau. Alde batetik, nabarmena da bere idazkera. Ezin uka daiteke Izagirrek gutxi bezala erabiltzen duela hizkuntza, baina abildade honek kontrakorik ere badu, maisutasun horrek askotan eramaten baitu manierismo moduko batera. Abangoardiako narrativa «moderno»an agertzen ziren teknikek ere (narratzailearen eta pertsonaien hitzak nahastea, denbora-plano desberdinetan gauzatzea kontakizuna) aurkitzen dute bere tokia Izagirreraren literaturan. Eta gaien aldetik, behin eta berriro bueltatzen da bere ohiko mamuetara: gerra zibila eta frankismoa. Iraultza estetikoak eta iraultza politikoak bat

egin nahi dute Izagirreraren literaturan, XX. mendeko 20ko hamarkadan bezala. Modernismo sozialista dei liteke honelako literatura, izenak txantxa itxura izango ez balu.

Narrazioa



Koldo Izagirre
Sua nahi, Mr. Churchill?

Editorial Susa.
Nafarroa, 2005
Páginas 288.
Precio 17,50 €

LIBROS

Narrativa con duende

Los franceses en la Guerra Civil

Piedra y hombre

Zapalduen ikuspuntua

FRANCO HIL ZUTEN EGUNAK

Egilea: Koldo Izagirre.
Generoa: Narrazioak.
Argitaletxea: Susa.
Orrialdeak: 256.
Prezioa: 19 euro.



|| JAVIER ROJO

Koldo Izagirreren eskutik datorren azken idazlana 'Franco hil zuten egunak' izenburuarekin argitaratu da. Bederatzi narrazio biltzen dira liburu honetan eta guztiak ezaugarri bera dute. Bertan kontatzen diren istorioek irakurlea frankismo garairaren eramatzen dute, batez ere frankismoaren azken urteetara. Testuinguru horretan, Gerra Zibiletik hogeita hamar urte-edo pasatu direlarik, frankismoa ia-ia ezinbesteko patu moduan agertzen da, arlo guztietara hedatuta dagoena. Baina beste aldetik, erregimenak bere arrakalak aurkeztzen ditu, hainbat urtez bere legea ezarri ondoren, garai berrietara egokitu beharra ere suertatu baitzaio. Giro horretan Izagirreren narrazioetan agertzen diren pertsonaiak biziraun behar duten antiheroi apalak dira. Pertsonaiok galtzai-

leen aldekoak dira era bikoitz batean, euskaldunak eta langileak baitira, jende xumea, askotan umiliatuak. Idazlearen hitzetan esanda ipuin horietan «historia txipia» deitzen dena kontatzen da. Hau da, ez dira historia liburuetan agertzen diren gertakari garrantzitsuak aipatzen, baizik eta testuinguru historiko horretan jende xeheak dituen bizipenak, askotan memoria pertsonalaren ondoriozkoak. Pertsona arrunten bizipenak direla kontuan hartuta, kontakizunak lerra zitezkeen kronika sentimentaleri, urte horiek aipatzen dituzten beste obra batzuetan gertatzen den bezala. Baina ez da kasua. Kronika sentimentalean ere ager litezkeen osagai batzuk aipatzen dira hemen, baina pertsonaiak umiliatu egiteko, osagai horiek benetan kronika sentimental moduan baliatzeko. Herra handiegia gordetzen dute, denbora luzeegian egon dira zapaldua, irabazlearen eskutik datozkien osagai horiek sentimendu positiborik sor diezaieten. Istorio hauetan Koldo Izagirreren literaturan ohikoak diren klabe batzuk agertzen zaizkigu. Historiari buruzko planteamendu dialektikoa adibidez, bizitza etengabeko gerra bat izango balitz bezala aurkeztuta. Eta jakina, ezin dugu ahaztu ipuinetan nabarmentzen den jarrera estetikoak, Izagirreren literaturan etika eta estetika ezin banatu baitaitezke, berarengan ideologiaren aldetik abangoardian egon nahiak estetikan abangoardista izatea inplikatzeko baitu.


M

Tribuaren mintzoa

'Lagun izoztua' Joseba Sarrionandiak helduentzat idazten duen lehenengo nobelaren izenburua da. Nikaraguan errefuxiatuta dagoen Goio izeneko pertsonaia da protagonista, gaixotasun bitxi batek jota mutu gelditu dena, izoztuta bezala. Abiapuntu honekin eleberrian pertsonaia honen hiru garai kontatzen dira (gaztaroko urte bat, sendatze prozesua, eta sendatu ondoren egingo duen bidaia). Aipagarriak dira hiru hari narratibo horiek bereizteko egin diren ahaleginak, zeren hari bakoitza pertsona narratzaile

desberdin batek aditz-denbora desberdin batean kontatzen baitu. Aipagarria, baita ere, osagai gehien sinbolizaziorako joera. Narratibaren ikuspuntutik, beraz, nobela baliotsu eta aberatsa da. Honez gain, euskalduntasunaren gaia ere jorratu nahi du idazleak. Errefuxiatuak, eta sinekdokez euskaldunak, tribu bat osatuko balute bezala aurkeztuta daude. Eta tribuek ohi duten bezala, totem bat daukate: inoz existitu ez den aberri urrun bat, geografiaz ez baina sentimenduz eta nostalgiaz osatua, tragikoa. Eta tabu bat: aberri tragijo honetan ETA-k duen parte, zeren pertsonaia errefuxiatuak izatera eraman dituzten gertaerez ezertxo ere ez baita aipatzen. Nobela honetan kontatzen dena bezain garrantzitsua da isilpean gorde nahi dena.

JAVIER ROJO



ELEBERRIA

JOSEBA SARRIONANDIA

Lagun izoztua

ELKARLANEAN
DONOSTIA, 2001.
436 ORR. 19,23 EUROS

Gerraren krudelkeria

JAVIER ROJO

L agun izoztua' izenburua zuen liburuarekin hasi zen bideari eutsi dio Joseba Sarrionaindiak 'Kolosalak izango da' izeneko idazlan honekin izan arren. Sarrionaindiak nobela honetan 36ko gerra zibilaren kontra egin nahi izan du, gertakarien lekuko izan zen narratzaile baten ahotsaren bidez. Eta ahots hay da

nobelako osagairik garrantzitsuena, onerako zein txarrerako, gertakariak berak baino esanguratsiago bihurtu baita nobela eraikitzerakoan. Narratzailea gerraren lekukoa izan zen, gerra berak hamaika urte zituela hasi zen-eta; aitaren aldetik, matxinatuen aldetikoa, amaren aldetik, jeltzaleengandik hurbilago. Gerraren aurrean aurreiritzirik gabeko begirada lañoa daukala irudikatu nahi du, ulertu ere oso ondo ulertzen ez baitu zer gertatzen den. Baina ahots honekin idazlea kontraesan batean erori dela iruditu zait, bi ikuspegi desberdin nahasten baitira ahots bakar horretan: gerraren lekukoa den mutikoarena eta geroko puntu zehaztugabe batetik gertakariak oroitzen dituen helduarena. Idazleak ez dio inkoherentzia honi irtenbiderik ematen. Edonola ere, gerraren krudelkeria

eta absurdoa nabarmentzen dira nobelan, basatikeria, ingenuoa izan nahi duen ikuspuntu batetik kontatzearen ondorioz.

Eleberria



Joseba Sarrionaindiak
Kolosalak izango da

Argitaletxe Txalaparta
Nafarroa, 2003
Orrialdeak 144
Prezioa: 14€

Pentsamendua hizlari



Alegoria abstraktua

JAVIER ROJO

Gauden egoeran egonda, uste dut begi-bistakoa dela ezin dela Joseba Sarrionandia idazleaz ezertxo ere esan idazle honek euskal irakurle batzuentzat adierazten duena kontuan hartu gabe. Berdin da idazle honek zer idazten duen, euskaldun batzuek bere idazlanak eskuratuko dituzte, berak idatzi dituelako eta haientzat idazlea mito bihurtu delako. Gero, bere idazlanak irakurriak diren ala ez, beste kontua bat da. Eta egia da Sarrionandiak idazlan interesgarriak plazaratu dituela ('Narrazioak' hura funtsezkoa izan da euskal literaturaren bilakae-ran). Baina halako idazlanen ondoan bestelako obrak ere kalera-tzen ditu, egile honen izena eramango ez balute interes berezirik izango ez luketenak. Hala ere, idazlanak bigarren mailakotza-tedo hartu badaitezke ere, arrakasta eta miresmena (salmenten arrakasta eta hark adierazten duenarekin bat egiten dutenen mires-mena) ziurtatuta dauka.

Oraingoan, narrazio labur bat eman du argitara, 'Gau ilunekoak' izenekoa, Maite Gurrutxagag egindako marrazkiz hornituta datorrena. Argumentuaren abiapuntua hauxe da: Baionan atzerritartzat hartzen duen pertsonaia bat agertzen da eta planeta

urrun batetik datorrela kontatzen du. Egoera hori pixka bat egokituta, hauxe edukiko genuke: tren geltoki batean gizaki berezi bat agertzen da; planeta urrun batetik datorrela dio, baina denek zorotzat hartzen dute eta zo-roetxe batean sartzen dute. Azken egoera hori 'K-Pax' filmaren abiapuntua baino ez da. Film horretan ez bezala, Sarrionandiaren liburuan alegoria abstraktuaren bideetatik bideratzen da argumentua. Izaki horrek ('izarkumea', tes-tuaren arabera) kontatzen du nola bere munduan ilunpetan bizi zi-ren, izarren argia noizbait helduko zitzaien itxaropenarekin. Egun batean, gazte batzuk nekatu ziren hainbeste itxaroten eta izarren ar-giaren bila joatea erabaki zuten. Ipuin honetan agertzen diren osa-gai gehienak abstraktuak dira, eta bitariko kontrajarpenetan antola-tuta daude (argia/ iluna; gazteak/ zaharrak; aldatu/ ez aldatu; jakin/ ez jakin). Argumentuan, bestalde, inkoherentzia handia ikus deza-kegu denboraren tratamenduan. Istorioa, beraz, interpretatu behar da, bertako osagaiak mundu kon-kretu batera itzuliz.

Pretentsio handiegiz beteriko idazlana iruditu zait liburu hau, argumentua-ren aldetik eskas xamarra, irakurtzean sentsa-zio berezi hau utzi didana: euskal literatura-ren historian, hogeita hamar urte atzera egi-ten nuela.

Narrazioa



Joseba Sarrionandia
Gau ilunekoak

Argitaletxea Elkar
Donostia, 2008
Orrialdeak 72
Saineurria 12,5 euros

idazlana iruditu zait liburu hau, argumentua-ren aldetik eskas xamarra, irakurtzean sentsa-zio berezi hau utzi didana: euskal literatura-ren historian, hogeita hamar urte atzera egi-ten nuela.



Sistemaren gunea

:: JAVIER ROJO

Joseba Sarrionandiak 1992an argitara eman zuen 'Kartzelako poemak' liburuaren argitarapen berritua agertu zaigu. Hogei urteren ondoren azalez pixka bat aldatuta agertu arren (orduko hartan agertu ez zen poemaren bat gehitu da; ortografia gaurkotua), funtsean liburu bera da irakurlearen eskutara helarazten den idazlan hau. Euskadi sariarekin gertatu denak frogatzen duen moduan, zaila da Sarrionandiaren literaturaz hitz egitea, egileak errepresentatzen duena kontuan hartu gabe. Lehenengo eta behin, zaila da zeren nahita edo nahi gabe idazleak nazio oso baten zama sorbalda gainean jaso nahi izan duela ematen baitu. Eta halako erantzukizuna onartuta, idazleak berarengandik espero den moduan jokatu behar izaten baitu. Idazlea den aldetik, berari ere zaila gertatu behar zaio onartzea bere literaturagatik baino gehiago bere biografiagatik baloratzen dutela bai bere aldekoek bai bere aurkakoek. Edonola ere, gure literatur mundu txikian tokatu zaion papera zintzo betetzen saiatzen da idazlea, eta paper hori betetzen duen neurrian bere aldekoek gorai-patua eta bere aurkakoek arbuaiatua izango da. Izan ere, Joseba Sarrionandia ez da idazlea, izen bat baizik, eta izen honi lotuta biografia bat, eta ibilbide horretan idazle moduan egiten dituen lanak bigarren maila batean geratzen dira. Bere liburuak asko saltzen dira, jakina, eta halaxe frogatuko da urtero be-

zala Durangoko azokan, baina bere liburuak erosten dituztenek benetan irakurriko dituzten ala ez beste kontu bat da.

Testuinguru honetan, berriro ere 'Kartzelako poemak' irakurtzeko parada dugu, 80ko hamarkadan egin ohi zuen poesiaren adibidea erakusten digun liburua. José María Álvarez-en eraginpean sortutako poesia zen ordukoa, epikarako joera zuena, askotan narraitibo xamarra, kulturalista. Haurtzaroaren nostalgia duen poesia da berea, haurtzaroan paradisua ezkatutako balitz bezala. Eta bere poemetan berebiziko garrantzia du bidaiekin loturik agertzen den guztiak, poemetan itsasoa eta nabigatzea, zerua eta hegaztiak ager-

tzen baitzaizkigu, ihesbidea eta beste mundu baten errepresentazioa irudikatzen dituztelarik. Honi gaineratu behar zaio poemak sortu zireneko errealitate hurbilari egiten dion erreferentzia, hori bai, Sarrionandiak ohi duen moduan, deskontestualizatu.

Garai batean marjinalitatearen aldarrikapena egin zuen idazlea gaur egun gure literatur sistemaren erdigunean kokaturik aurkitzen dugu, eroso.



KARTZELAKO POEMAK

Egile: Joseba Sarrionandia.
Olerkiak.
Argitaletxea: Susa.
233 páginas.
Zarautz. 2011.
Precio: 12,50 euros.



Narrazio guztiak

:: JAVIER ROJO

Euskal literaturan gertatzen dena Euskal Herrian ikus dezakegunaren isla xumea delarik, batzuetan gertatzen da gure munduaren berri ez duenarentzat oso harrigarria den bitxikeria bat: itxuraz ofizialtasunaren esparrutik bazterrean geratu dena literaturaren sistemaren erdigunean agertzea. Izan ere, gure artean ofizialtasun paralelo bi egoiteak azaltzen du itxuraz kontraesankorra dirudien gertakari hori. Eta horrek azaltzen du neurri batean behintzat Joseba Sarrionandiaren literatura gure literatur kanonaren ardatzetako bat izatea. Orain 'Narrazio guztiak (1979-1990)' izenburuko liburua agertu berria delarik, berriro ere aukera daukagu kanonaren erdigunean jarri duten obra batzuk berrirakurtzeko. Liburu honetan, hasierako zenbait testurekin batera, Sarrionandiak argitaratu eman dituen hiru narrazio liburuak agertzen dira, Juan Luis Zabalaren ardurapean: 'Narrazioak' (1983), 'Atabala eta euria' (1985) eta 'Ipar aldeko orduak' (1990). Itxura berriz agertzen zaizkigu liburuok, ortografiaren aldetik gaurkotuta argitaratzen baitira testuak. Datei erreparatzen badiegu, berehala konturatuko gara hogeitau urte baino gehiago pasatu direla Sarrionandiaren

azken narrazio liburutik. Beste era batez esanda, narrazioarena gaztaroari loturik agertzen dela, idazlea bere lanbidean trebatzen ari zen bitartean egindako idazkiak izango balira bezala, irakurleek ere bide berrietan sartzeko gogoia erakusten zuten bitartean. Izan ere, sintonia bat dago Sarrionandiak idazten zuenaren eta irakurleek eskatzen zutenaren artean. Eta hain zuzen ere, literaturaren ikuspuntua bakarrik hartzen badugu kontuan, sintonia horrek azal lezake Sarrionandiaren arrakasta: behar zen momentuan behar zena idatzi zuen-eta.



NARRAZIO GUZTIAK

Egile: Joseba Sarrionandia.
Narrazioak.
Argitaletxea: Elkar. 336 orr.
Donostia, 2011.
Sainneurria: 22,50 euro

Narrazioen alorrean, narratiba moderno bat ekarri zuen gure artera, eta irakurleek erakusten zuten sentzibilitate berriekin bat egin zuen bere literaturak. Ez dugu ahaztu behar Sarrionandia idazlea baino lehenago irakurlea dela eta berak erdaraz irakurritako literatura agertzen zena euskaraz ere islatuta ikusi nahi zuela. Horrela mundu berezi bat plazaratu zuen bere narrazioetan (mundu epiko bat, non zaldunak-eta agertzen diren; haurtzaroari loturiko mundu bat, oroitzapen pertsonalez beterik...) eta sentzibilitate berri hori osatzerakoan berebiziko garrantzia izan bazuen ere, ezin dugu ahaztu idazleak bere ikaste prozesuan egindako urratsak direla.



Politikaz

:: JAVIER ROJO

Joseba Sarrionandiak euskal literaturan duen garrantzia begi-bistakoa da alor honetan interesa duen edozein pertsonarentzat. Bera da euskal literatura modernitatearen bidean jarri zutenetako bat, batez ere Narrazioak liburuari esker. Eta bere ibilbidean gora-behera asko agertu arren, liburu horrek jarraitzen du izaten inflexio puntu bat euskal literaturan. Baina fikziozko literatura eta poesia alde batera utzita, Sarrionandia bestelako generoetan ere aritua da. Lapur banden etika ala politika izenburuko liburu honetan, adibidez, Sarrionandia saioegilearen adibide berri bat aurkezten zaio irakurleari. Idazlan honetan azken urte hauetako politika nola ikusten duen azaltzen saiatzen da idazlea. Eta bilakaera hori azaltzean alderdi politikoak gogor kritikatzeko dituen benetako demokraziara heltzeko oztopoak balira bezala, demokrazia idazlearen ustez mugimendu asanblearriotik hurbil baitago. Hori guztia,

oso diskurtso apokaliptiko batean azaldu-ta. Baina politikari buruzko kritika bera baino interesgarriagoa iruditzen zaizkit bere ideiak plazaratzeko erabiltzen duen argumentazioaren giltzarriak. Hasteko, behin eta berriro egia objektiboaz hitz egiten badu ere, Sarrionandiaren abiapuntua gaztaroan sentitutakoa eta bizi izandakoa da, halako eran non liburu honek batzuetan kronika sentimental edo memoria liburu baten itxura hartzen baitu. Narrazio bat alegia, non idazlearen subjektibotasuna erdigunean jartzen den. Bigarren klabea liburu hau ulertzeko “gu” eta “besteak” osagaien artean egiten duen bereizketa da. Boterea dutenen aurrean “gu” gaude. Baina “gu” esaten duenean zehaztugabetasun handia dago, momentuan momentuko esanahia ematen diola baitirudi. Izan ere, “gu” horren azpian, besteak beste, euskaldunak, ETAn egondakoak zein menperatuak sar daitezke. Eta hirugarren giltza azalpenik izaten ez duten oinarriko ideien erabileran aurkitzen da. Sarrionandiak joera du argumentazio logikoa jarraitzeko baina, hori bai, lehenengo printzipioak askotan azaldu gabe utzita. Ez dakit liburu honek balioko duen egoera politiko ulertzeko, baina erretorikaren erabilerean adibide ikusgarria eskaintzen du behintzat.



LAPUR BANDEN ETIKA ALA POLITIKA

Egilea: Joseba Sarrionandia. Saiakerak. Argitaletxea: Pamiela. 176 orr. Iruñea, 2015. Salneurria: 14 euro

Poesia heldua

Miren Agur Meaberen azken poema liburua da 'Azalaren kodea'. Bere poemetan egileak, errepikazioa eta aliterazioa la alde batera utzita, irudietan aurkitzen du erritmoa markatzen duen osagai, testua prosa zatikatuaren mugetan utziz. Irudiok hurbileko gantzei dagozkie, askotan egunerokotasunetik hartuak direlarik. Askotan gorputza dute oinarri irudiok eta kasu haue-
tan poesia ez da erottis-
morik gabe agertzen. Hurbilekoak izan arren, ordea, abstrakzioarako joera nabarmena erakusten dute: testuingururik gabe, gauza bat besteetatik bereizten duen ezaugarririk gabe, objekturik arruntentak ere bere izaera konkretua galduz doaz, sinbolo bihurtzeko bidean jarrita. Meaberen poesia bizitzarekiko inozentzia gaidu ondoko poesia da, baina etsipenera heldu gabe, puntu batekiko aurrera koherentzia osoa ezinezkoa dela dakien poesia, alegia. Beraz, oreka mantendu behar batean eraikitzen dira Meaberen poemak, sentimenduak azalduz, baina sentiberakeriari ihusi. Garai txarrak omen dira lirikarako, abesti ezagunak zioen bezala. Baina honetan, beharbada, ingurua baino, generoa da errundunago, neurri handi batean bere baitan agortu baita. Dena dela, beti posiblea da poema liburu interesgarriren bat surkitzea, Miren Agur Meaberen hau bezala.



OLEARIA

MIREN AGUR MEABE

Azalaren kodea

SUSA

NAFARRA, 2000

68 ORR. 1.500 PZTA.

JAVIER ROJO

Esperientziatik

✻ JAVIER ROJO

Beste poema liburu bat heldu zaigu Miren Agur Meaberen eskutik: 'Bitsa eskuetan'. Meaberen poesia nitasunetik idatzitako poesia da, bere 'ni'tik zabalzen den, hedatzen den poesia. Halako eran gertatzen da hori, ezen batzuetan zaila egiten baita pertsona eta subjektu poetikoa bereiztea (benetako idazlea eta 'ni' fikzionalizatua). Benetakotasuna da honen ondorioa, horregatik dirudi idazleak poemetan bere burua eskaintzen duela. Esperientziatik, eskarmentutik idatzitako poesia da, bizitza zer den dakienaren poesia. Ohiko gaiak agertzen zaizkigu, amodioa, heriotza, sexua, bakardadea, poesia egiteko bitxikeriatan aritzea ez dela batere beharrezkoa erakutsiz.

Heriotzari buruz ari diren poemak, liburuaren bigarren atalekoak, bereziki hunkigariak dira benetan, agian oso pertsonalak diruditelako. Izan ere, amaren heriotza bezalako gai batera hurbiltzen da poeta atal horretan, eta benetako sentimenduak agertzen zaizkigu bertan. Hori bai, gehiegikeriak alde batera utzita, melankoliara lerratzen den min leun batez zipriztinduta agertzen zaigu gaia. Identitatearen gaia ere agertzen zaigu noizean behin, idazlea emakumea den aldetik bere nortasuna azpimarratzeko beharra sentituko balu bezala. Bere burua 'gizar-tean' agertzen delarik, identitate hori nabar-



BITSA ESKUETAN

Egile: Miren Agur Meabe. Olerkiak.
Argitaletxea: Susa. 96 orr. Zarautz, 2010.
Sainneurria: 13,50 euro

mendu behar du bere nitasunetik sortutako poemak direla kontuan hartuta.

Liburu triptiko moduan agertzen zaigu, hiru zatitan banatua. Eta bertan idazlea agertzen zaigu, maskararik gabe. Izan ere, benetakotasunarekin batera, horrela agertzeko ausardia ere azpimarratu behar da. Meabek poema horietan zehar kontaktzen duena hurbilegi duela dirudi, eta agian horrek eragozten du zenbaitetan testu-perfekzioa. Edonola ere, alferrikako parafernalia alde batera utzita eta poemak biluztuz esan nahi duena bitartekorik gabe azaltzen digu.

Miren Agur Meaberen poema liburuetan beti ere zerbait aurkitzeko parada eskaintzen zaio irakurleari, irakurleak ere bere burua islatuta aurki baitetzake halako poemetan.



Intimitatea agerian

:: JAVIER ROJO

Miren Agur Meaberen liburu honen aurrean aurkituko den edozein irakurleri liburuaren izaeraz dudak sortuko zaizkiola iruditzen zait. Izan ere, liburuaren kontrazalean nobelatzat definitzen dute liburuia, baina irakurleari behala irudituko zaio hitzen jabea den ahots hori ez dagokiola fikziozko izakiren bati, idazleari berari baizik. Eta idazleak, berak sortutako zehaztugabetasun hori ondo baino hobeto erabili du egiazkotasunaren irudia eskaintzeko. Alde batetik, 'Kristalezko begi bat' izenburuko liburu hau osagai autobiografikoz beterik dago. Protagonista-narratzailea eta idazlea oso antzekoak dira, eta protagonista-narratzaile horren biografia osatzen duten alderdietan idazlearen beraren islak identifika ditzakegu.

Bestalde, atal laburrez osaturik dago nobela, eta honek ia-ia eguneroko pertsonalaren itxura ematen dio testuari. Eguneroko horretan kontatzen zaigu nola pertsonaia Landetara doan han denboraldi bat pasatzera liburu bat idazteko asmoz, hain zuzen guk irakurriko dugun liburuia idazteko asmoz. Testuan, beraz, biltzen dira idazteko prozesua eta ho-

rren emaitza, idazketaren kontakera eta kontaketa bera.

Honelako liburu batean espero den moduan, hausnarketa nagusi da, pentsamendua. Kontatzen zaigun ia guztia pertsonaia-narratzaile-idazle den izaki horren kontzientziaren galbahetik iragazita heltzen zaigu, Landetan dagoen bitartean, gertatu, gauza gutxi gertatzen baitzaizkio hausnarketa horiek alde batera utzita. Pertsonaiaren kontzientzia hori biltzurik agertzen zaigu, eta intimitateak kontatzeari uko egiten ez diolarik sekretupean geratu beharko zen eskualde batean sartzen garelako inpresioa uzten du. Baina egitiaz esan nahi badu ere, subjektua objektu bihurtzen delarik, idazlea kontalaria izateaz gain kontatzeko materia ere delarik, objektu hori antzaldatuta agertzen zaigu, ibilbidearen amaieran pertsonaia, fikziozkoa nola-bait, bihurtuta.



KRISTALEZKO BEGI BAT

Egilea: Miren Agur Meabe.

Generoa: Eleberria.

Argitaletxea: Susa.

Orrialdeak: 168.

Prezioa: 17,50 euro

Enrique y la construcción de un paisaje

La novela de un pueblo de la montaña
dibujado en cada página
hasta emocionarse

Continúa leyendo

Oroimenean arakatzan



JAVIER ROJO

Oroimenean arakatzan

HEZURREN ERRETURA

Egilea: Miren Agur Meabe.
Argitaletxea: Susa.
Orrialdeak: 240
Prezioa: 19 euro.



∴ JAVIER ROJO

Hogeita bat narrazio biltzen dira Miren Agur Meabereren Hezurren erretura-n. Narrazio horietan idazlearekin berarekin ezaugarri asko partekatzen dituen narratzaile batek bere oroimenean arakatzan du bere bizitzaren oinarrian dauden gertakarien bila. Narrazio gehienetan haurtzaroko eta nerabezaroko mundua ekartzen du hizpidera, azken finean urte horietako bizipenek moldatzen baitute gero heldua izango zen pertsonaren izaera. Haurtzaroko mundu hori lausoturik agertzen zaigu, argazki zaharretan bezala ertzak zehaztu gabeak baitira. Pobrezia bizi gabe, inolako luxurik ez duen bizimodua aurkezten zaigu narrazio hauetan eta mundu horietan bi alderdi nabarmentzen dira, itxaropenak batetik, eta ezintasun eta frustrazioak bestetik. Narrazio hauetako narratzailea haurtzaro eta nerabezaroa gogoratzen duen

pertsonaia delarik, beraren ikuspuntua ez da haur edo nerabearena, baizik eta gertakari horiek gogoratzen dituen helduarena. Beraz, kontatzen diren gertakarien ondorioak ezagutzen ditu, eta badaki, heldua den aldetik, bera ere horien ondorioa dela. Garai horiek gogoratzean gazteari helduen mundua misterioz beterik dagoela iruditzen zaio, esploratu behar den lurralde ezezaguna. Honen aurrean, errealitatea aurkezten da, ia-ia itogarria dirudien ingurua alegia, edozein askatasun-jarduerak errebeldia ematen duen giroa. Familiak oinarria tradizioan duen jokamoldea erakusten du herentzia baten moduan, eta erlijioak (erritu magikoa ia) inposatzen du bere morala. Gazteak bere burua erakitzeko lotura horiek nolabait gainditu behar ditu, baina zaila zaio oso eta erru sentimendua behin eta berriro agertuko da narrazio hauetan zehar. Haurtzaro eta nerabezaroan erroak dituzten narrazioen ondoan, lehenaldia gogoratzen duen narratzaile horren oraina erakusten duten beste istorio batzuk ere topatzen ditugu, mosaikoa ere baden liburu honetan lehen-orain dialektika agertzen zaigularik. Norberaren izaeraren oinarrian oroimena dago, eta idazleak bere oroimen pertsonala erabili eta moldatu egin du istorio hauek idazteko, liburu zirraragarria eskainiz. Sentimenduak pizteko dohaina dute Meabereren istorio hauek... Eta gainera bikain idatzita daude.



Experiencia eta denbora

Experiencia eta denbora

Experiencia eta denbora

Experiencia eta denbora



NOLA GORDE ERRAUTSA KOLKOAN

MIREN AGUR MEABE

Argitaletxea: Susa. Orrialdeak: 184.
Prezioa: 18 euro.

Esperientzia eta denbora

Azken urte hauetan Miren Agur Meaberen literatura eta bereziki poesia bi oinarri hauen gainean eraikitzen dela ematen du: esperientziaren adierazpena eta denboraren iragazkia. Izan ere, haren poesian subjektuaren esperientzia bereziaren, propioaren isla eskaintzen da, edo behintzat haren poemetan agertzen diren gertakariak halako eskarmentuaren ondorioak izango balira bezala azaltzen dira. Benetako esperientzia zein esperientzia irudikatua izan, subjektuak, nolabait esateko, bere burua eskaintzen du poesian. 'Nola gorde errautsa kolkoan' norberaren bizipenak era horretan erabiltzearen adibidea dugu. Haurtzaro eta ne-

rabezaroko gertakariak, xumeak baina bere xumetasunean oinarritzeko eta funtsezkoak, agertzen dira behin eta berriro, garai haietako gertakarietan geroko bizitzaren hazia aurkituko balitz bezala, gertakari horiek subjektua betirako markatu balute bezala. Norberaren aberri bakarra bere haurtzaroa dela esango balitzaigu bezala. Eta garai hartako gertakariak kontatzen direlarik (askotan, subjektua 'gu' generiko baten atzean difuminatuta: bere esperientzia berezia da, baina beste hainbaten esperientziaren antzekoa alegia), identitatea osatuz doa, gauza txikien biltzaile.

Meabek errealtate pertsonala baina neurri handi batean partekatua ere baden hau ez du besterik gabe eskaintzen. Hau adierazteko denboraren iragazkia erabiltzen du, gertakariak oroitzapen bihurtuta, zeren gertakari horiek azaltzen dituen ez baita behinolako subjektua, gaur egun, horiek birsortzen dituen heldua baizik. Nostalgia puntu batez gaurko helduak garai hartako beste 'ni' hura ikusten du, egiten duena eta kontatzen duena subjektu berbera izanda ere, aldatuta dagoelarik. Eta ikuspuntu honetatik esperientzia pertsonala unibertsalizatu egiten da, eta bertan bere burua islatuta ikusiko du irakurle askok.

JAVIER ROJO

Itsasoko aldetik

JAVIER ROJO

Kirmen Uribe poetak antologoaren lana egiten du 'Portukoplak' izenburua duen liburu honetan. Azpituak azaltzen digu zer agertuko da barruan: itsas kantak eta poemak. Eta idazleak esango digu zein izan den bere asmoa: poema bilduma barik, sorta eskaintzea. Baina idazleak

Olerkiak



Kirmen Uribe
Portukoplak

Argitaletxe
Elkarlanean
Donostia, 2006
Orrialdeak 220
Prezioa 17,50 €

antologoaren lana egin badu ere, hau da hor-hemenka testuak bilatu eta bildu baditu ere, bere lana harantzago doa, kantuak eta poemak aurkeztekoan idazle izaera erakusten baitu. Batzuetan testuen gaineko azalpenak ematen dizkigu, non aurkitu zituen, nondik jaso zituen eta horrelako kontuak argituz. Baina bestetan, testuetan kontatzen denaren ingurua ere azaltzen zaigu, idazleak kantuak eta poemak bereganatuko balitu bezala, beste testu batzuk sortzeko. Izan ere, idazlea da Uribe, eta idazle moduan jokatu du, azalpenetan hainbat istorio-eta kontatuz. Jasotzen dituen testuen artean, pixka bat denetarik aurkitu ahal dugu: erromantzeak, ahozko tradizioetik jasotako poematxoak,

idazle klasikoek idatzitakoak, bertsolarien lanak, lehengo eta oraingo poetek idatzitakoak. Beraz, ez da sorta homogeen bat. Eta irakurleak beti aurkituko du bere gustuko poematxoren bat, Uriberen azalpenez gainera, jakina.

Errege-erreginak ispiluan

Estea da Kirmen Uribe berriz idazteko trebea da. Trebea, testuak idazteko erraztasuna duelako, baina, baita ere, emozioak eta sentimenduak sortzeko klabeak oso ondo kontrolatzen dakielako. Irakurleak, emozioen korrontean sartu nahi badute, erakarririta sentituko dira berehala. Gauzak honela, ez zait batere harrigarria iruditu 'Bilbao-New York-Bilbao' izenburuko nobelak, nobelagintzaren alorrean burutu duen lehenengo saioak, halako arrakasta edukiz izana gure artean. Nobela hau metanarrazio bat da. Hau da: nobelan, azken finean nobela bat idazterakoan narratzaile-idazleak jarraitu duen prozesua kontatzen zaigu. Hori guztia, New Yorkera egiten duen bidaia batean kokatuta, nobelaren idazketaren prozesua narratzailearen oroimenean berpiztuko balitz bezala. Eta egoera pixka bat gehiago bihurrituz, liburuan kontatzen den idazketa prozesu horren ondorioz narratzaileari sortzen zaion nobela eta irakurleak begien aurrean duena nobela berbera da. Narratzaileak helburu bat zeukan idazketari ekiterakoan, bere aurreko belaunaldiarekin lotzen zuen haria eraikitzea, alegia. Alde horretatik begiratuta, amodio-eskaintza bat da nobela (bai narratzaileak idatzi nahi duena, bai idazleak irakurleari eskaintzen diona, ezinezkoa da-eta biak bereiztea). Baina testua irakurleari aurkezten zaion bezala, anekdota-bilduma handiaren itxura hartzen du. Hegazkinean doalarik, oroitzapen batek beste oroitzapen batera darama narratzailea, zeharkako erreferentzia batek istorio bat kontatzera darama, halako osagaien arteko lotura guztiz ahula denean.



Esperimentu moduan, testua edozein puntutan irakurtzen hasi daiteke irakurlea, eta edozein puntutan utzi, eta jasoko duen impresioa ez da oso desberdina izango. Beste hitzetan esanda: nobelari argumentu sendoa falta zaio. Berak kontatzen dituen anekdota eta istorioetan ez dugu konfliktu handirik ikusiko, dena tonu xamur eta leun batean mugitzen da, idazleak istorioz istorio salto egiten duen bitartean, irakurlea hainbeste izenen oihartzunekin hipnotizatuta bezala gelditzen den bitartean. Irakurgai politen bilduma eskaintzen du Uribe liburua honetan, hori bai, oso ondo idatzitako irakurgaiak, askotan arrantzale eta marinelen bizimoduarekin zerikusia dutenak, eta interesgarriak suerta daitezkeenak. Haietan sentimenduek gainez egiten dute, eta nekeza gerta dakioke irakurleari sentimenduen sare horretatik askatzea.

Esan dudana: Kirmen Uribe oso idazle trebea da.

Anekdota-bilduna

JAVIER ROJO

Kirmen Uribe idazle trebea da. Trebea, testuak idazteko erraztasuna duelako, baina, baita ere, emozioak eta sentimenduak sortzeko klabeak oso ondo kontrolatzen dakielako. Irakurleak, emozioen korrontean sartu nahi badute, erakarririta sentituko dira berehala. Gauzak honela, ez zait batere harrigarria iruditu 'Bilbao-New York-Bilbao' izenburuko nobelak, nobelagintzaren alorrean burutu duen lehenengo saioak, halako arrakasta edukiz izana gure artean. Nobela hau metanarrazio bat da. Hau da: nobelan, azken finean nobela bat idazterakoan narratzaile-idazleak jarraitu duen prozesua kontatzen zaigu. Hori guztia, New Yorkera egiten duen bidaia batean kokatuta, nobelaren idazketaren prozesua narratzailearen oroimenean berpiztuko balitz bezala. Eta egoera pixka bat gehiago bihurrituz, liburuan kontatzen den idazketa prozesu horren ondorioz narratzaileari sortzen zaion nobela eta irakurleak begien aurrean duena nobela berbera da. Narratzaileak helburu bat zeukan idazketari ekiterakoan, bere aurreko belaunaldiarekin lotzen zuen haria eraikitzea, alegia. Alde horretatik begiratuta, amodio-eskaintza bat da nobela (bai narratzaileak idatzi nahi duena, bai idazleak irakurleari eskaintzen diona, ezinezkoa da-eta biak bereiztea). Baina testua irakurleari aurkezten zaion bezala, anekdota-bilduma handiaren itxura hartzen du. Hegazkinean doalarik, oroitzapen batek beste oroitzapen batera darama narratzailea, zeharkako erreferentzia batek istorio bat kontatzera darama, halako osagaien arteko lotura guztiz ahula denean.

Esperimentu moduan, testua edozein puntutan irakurtzen hasi daiteke irakurlea, eta edozein puntutan utzi, eta jasoko duen impresioa ez da oso desberdina izango. Beste hitzetan esanda: nobelari argumentu sendoa falta zaio. Berak kontatzen dituen anekdota eta istorioetan ez dugu konfliktu handirik ikusiko, dena tonu xamur eta leun batean mugitzen da, idazleak istorioz istorio salto egiten duen bitartean, irakurlea hainbeste izenen oihartzunekin hipnotizatuta bezala gelditzen den bitartean. Irakurgai politen bilduma eskaintzen du Uribe liburua honetan, hori bai, oso ondo idatzitako irakurgaiak, askotan arrantzale eta marinelen bizimoduarekin zerikusia dutenak, eta interesgarriak suerta daitezkeenak. Haietan sentimenduek gainez egiten dute, eta nekeza gerta dakioke irakurleari sentimenduen sare horretatik askatzea.

Esan dudana: Kirmen Uribe oso idazle trebea da.

Eleberria



Kirmen Uribe
Bilbao-Nueva York-Bilbao

Argitaletxea
Elkarlanean
Orrialdeak 248
Saineurria 18, 55 euro



Istorio hunkigarria

:: JAVIER ROJO

Kirmen Uribek nobelaren bidezidorretan berriro ere bidaia bat egitea erabaki du 'Mussche' izenburua duen liburu honekin, bere nobelagintzan bigarren mugarri agertzen zaigun idazlanarekin. Bertan idazle belgikar baten bizitzaren inguruak azaltzen dizkigu, nobelari izenburua ematen dion Robert Musscherenak. Nobelaren abiapuntua, dena dela, Euskal Herriarekin zerikusia duen gertakari batean dago, zeren, Musscheren istorioa kontatzeko, Espainiako Gerra Zibiletik ihesi Belgikara joan ziren umeen istorioarekin hasten baita, Karmentxu izeneko neskatoren istorioarekin hain zuzen, hau izan baitzen Belgikan Musschek bere babespean hartu zuen neskatoa. Argumentua hainbat planotan antolatuta dago, eta batzuetan ordenatu behar dugun puzzle baten aurrean gaude la ematen du, idazlanean Belgikara joan ziren ume horien istorioaz eta Musscheren beraren istorioaz gain, gertakari historikoen kontaketa eta Musscheren bizitza erakitzeke narratzaileak egiten dituenak ere agertzen baitira. Gauzak honela, batzuetan nobelak 'metafikzio historiografikoa' deitu izan den horren adibidearen antza hartzen du, non itxuraz pertsonaia nagusiaren bizitza kontatzeak bezain garrantzitsua dirudien bizitza ho-

rren kontaerara heldu nahi duen narratzailearen jarrera eta ibilbidea azaltzeak. Musscheren bizitza behin baino gehiagotan gelditzen da lausotuegi, beste gertakari batzuen zurrunbiloan galduta.

Eta ia eraikitzen ezinezkoa ematen duen bizitza horren kontaeraren saioa egiten den bitartean, ikusiko dugu nola sentimenduek gainez egiten duten. Idazlea, honetan ez dago dudarik, maisua da sentimenduek azaltzerakoan irakurlearen aldetik erantzun emotiboa sor dezaketen osagaiak erabiltzen. Izan ere, irakurleak ezinbestez epa-
tia sentitzera behartuta ikusten du bere burua historiaren gorabeherek mugiarazten

dituzten pertsonaia horien bizikizunen aurrean. Idazleak adiskidetasunean eta leialtasunean oinarritutako tolesdurarik gabeko bizitza aurkezten digu pertsonaia horren bidez, protagonista heroi xume eta perfektua, zirrikiturik gabea, izango baillitza, perfektuegia agian. Bestaldetik, nobela honek ipuin miresgarrietatik ere zerbait baduela iruditu zait, bertan munstroak bezalako pertsonaia eta guzti agertzen dira-eta.

Oso gustura irakurtzen da liburua, baina irakurtzerakoan ezin izan dut baztertu idazleak irakurlearen sentimenduek bideratzeko ahalegin nabarmenagia egin duelako inpresioa.



MUSSCHE

Egilea: Kirmen Uribe.
Argitaletxea: Susa. 200 orr.
Zerbitz. 2012.
Argitaletxea: 19 euro

Historia eta istorioak

ELKARREKIN ESNATZEKO ORDUA

Egilea: Kirmen Uribe.
Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Susa.
Orrialdeak: 344.
Prezioa: 22 euro.



✪ JAVIER ROJO

Badirudi azken garai honetan memoria historikoari lotutako gaien inguruan ari diren idazlanak euskal literaturaren 'main stream' bihurtu direla. Zehazki gerra zibila eta honen ondorioak hainbat eta hainbat libururen ardatz moduan agertzen zaizkigu, Kirmen Uriberen eskutik datorrigun azken nobela honetan ere gertatzen den bezala. Izenburua, 'Elkarrekin esnatzeko ordua', Ezra Pound-en bertso batetik mailegatuta daukan idazlan hau nobelaren eta kronika historikoaren artean kokatzen da. Kontakizuna aurrera eramateko Letamendi-Urresti familiaren benetako bizipenetan oinarrituta, Gerra Zibilaren urteetatik Trantsizio politikoaren garaira arte euskal gizartearen atal baten historia berreraikitzen saiatu da idazlea. Gerra, Europako eta Amerikako er-

beste ea, errepresioa..., gure historia pixka bat ezagutzen duen edonork erraz identifikatzen dituen kontuak aipatzen dira nobela honetan, Txomin Letamendi eta Karmele Urrestik osatzen duten familiaren bizitzari jarraituz. Edonola ere, pertsonaia hauek kontakizunean ardatz bezala funtzionatzen badute ere, kronika historikoaren alderdia da nabarmentzen dena, pertsonaien izaeran ez baita asko sakontzen. Argumentu osoan publikoaren eta pribatuaren arteko tentsioa agertzen zaigu, osagai hauek biak familia honen bilakaeran bereizi ezinak izango balira bezala. Izan ere, argumentuaren garapenean planteatzen den bezala, gizakiak funtsean izaki politikoak dira, eta beraiek egiten duten guztiak esanahiren bat du politikaren aldetik. Eta ezinbestez gertakizun historikoei eragina dute beraiengan, neurri handi batean historiaren subjektu aktiboak izan nahi duten arren. Kontakizuna askotan anekdotara lerratzen da, bai kronika historikoa egiterakoan, baina batez ere bizipen pertsonalak azaldu behar direnean, abertzaleen sunaren historiaren eta abertzaleen istorioen arteko mugak lausotuz. Begi-bistakoa da idazleak liburu honen bidez zerbait irakasteko asmoa izan duela. Oso ondo dokumentatuta dago kontakizuna, baina batzuetan nabarmena da historiari dago-kiona gehiegi azaltzen dela, xehetasun marjinal ugariarekin, irakurleak kontu horiei buruz ezertxo ere jakingo ez balu bezala.

Be-Bop erritmora

Harkaitz Canok nobela bitxi bat eskaini digu liburu honetan. Jazzaren munduaren inguruan mugitzen da be-boparen erritmora, batzutan leun, bestetan abiadura handian; batzutan lasai, bestetan zorabioan. Jack Kerouac-en hitzak imitatuz, gau bat aukeratu eta garatzen hasten da; baina bapatean zerbait harrapatu eta bere destinoaren arabera jarraitu beharrean aurkitzen da. Kerouac-ek horrelako gauzak esaten zituzenean Charlie Parker zuen gogoan eta nobela

batean (*The Subterraneans*) estilo hori imitatzen saiatu zen. Be-bop estiloa hain zuzen. Harkaitz Canok saio bereberek sartu dela ematen du. Eta, hutsak huts, bai emaitza onak lortu ere. Idazkeraren aldetik, teknika eta estiloaren aldetik obra heldu bai lortu baitu. Eta gaztekeraz idazten duten nobelagile gazteekin konparatuz gero (Loriga edo Mañas-ekin, adibidez), askoz ere obra sakonago eta interesgarriagoa lortu duelakoan nago. Zenbaitetan harrigarria da iritsi duen estiloaren aberastasuna. Ezin dut etsi adihide bat jartzeaz-
-Orratza altxatzen duen beso bat. B. aldeaz. *Beluna. Betun beltzaren usaina nonahitik aditzeko modua. Usain entzungarria.* Hizkuntzak ferekatu egiten du. Irudiak sentitu egiten dira. Eta gu beste nobela baten zain utzi gaitu.

JAVIER ROJO



ELEKTRONIA

HARKAITZ CANO
Beluna Jazz

SLISA
IRLONIA, 1996
162 OBR. 1.700 PZTA

EL CORREO MIÉRCOLES, 1 DE JULIO DE 1998 **9 TERRITARIOS** *Impresión en el papel*

Hiriz hiri

Azken urte hauetan Harkaitz Cano euskal literaturan sortu den izen berri interesgarri-
netakoa da. Dohai handiak dauzka, dudarik gabe, idazle ona izateko. Besteak beste, idazle erreza da; errez idazten duela esan nahi dut. Hau da, ez duela hizkuntzaren kontra idazten. Baina agian bere erreztasun horretan eduki dezake bere etsairik handiena, kontuz ibiltzen ez bada. Liburu honetan 49 ipuinbiltzen ditu, beste hambeste hiritan kokatuak. Narrazio hauek, irratian kontatatuak izateko jaio zirelako edo, badute halako iheskortasun kutsua. Ez dira sendoegiak, ez dute pisu handirik. Berrogeita bederatziz hiri dira narrazioen abiapuntu, eta batzutan narrazioak barik, deskripzio txikiak direla ematen dute. Irudien elkarteak pertsonaletik sortutako parafraasiak. Logika pertsonal honen zamapean, trakurleari askotan galdu egiten zaio irudien elkarketaren oinarria, idazleak iradokizun leunetan eraiki baitu bere liburua. Hasieran esan dut Harkaitz Cano oso idazle erreza dela... Eta askotan idazle batek gauza interesgarriak egiten baditu ere, gorde egin behar ditu, ez du hambeste presarik izan beher argitaratzeko. Lanet denbora ematen ez bazate, ideia handiak horretan geratzen baitira: idetiak, osorik gauzatu edota heldu gabeko egitasmoak.



KONDAGINTZA
HARKAITZ CANO
Oluak
ELKARLANEAN. DONGETIA,
1988. 150 ORR. 1450 PZTA.

JAVIER ROJO

CORREO MIÉRCOLES 3 DE MAYO DE 2000 9 TERRITARIOS

Mamuen amarauna

Harkaitz Cano bere belaunaldiko idazlerik interesgarriena da, nire ustez. Bere adina gora-behera (1975ean jaioa da), hainbat liburu idatzi ditu poesia, ipuin eta eleberriarren arloan. Baina beste idazle gazteekin gertatzen denaren iruntzitara, eleberririk, idazterakoan erakutsi du Canok bere trebeziarik handiena. 'Pasaian blues' alor honetan burutu duen bigarren lana dugu. Itxurraz, intrigazko eleberririk egin du, non kontatzen baita nola ertzain batzuk ete terrorista batzuk katu eta saguaren jolasean aritzen diren, elkar harrapatu nahirik.

Hau dena dela, eleberriarren mozorroa baino ez da. Pertsonaiek zerbait bilatzen dute, bai, baina bila-keta honotan beraien mamuen amaraunean harrapatuta geratzen dira, eta hauxe da nobelaren funtsa. Pertsonaiek pentzatsen dute istorioaren protagonistak direla, xake-partida baten jokalariaik, nolabait esateko. Baina, benuz, jokalariaik ez, piezak besterik ez dira. Narrazioa hari azkotatik zabalitzen da eta azkenean badirudi hari hauek guztiak lotu eta amaiera koherentera heldu dela, irakurlearen neurriko amaiera eroso eta orekatua, alegia. Baina zerbait sinestro dago amaieran, koherentzia ere itxura hutsa ote den susmoa. Liburu hau irakurrita, argi daukat Harkaitz Cano nobelagile bikaina dela.



PASAIA BLUES

HARKAITZ CANO

Pasaian blues

SUSA,
IRLINEA: 1339.
224 OR. 2.000 PZTA.

JAVIER ROJO



Erru sentimenduaz

:: JAVIER ROJO

Harkaitz Canok bere lehenengo idazlanetatik argi utzi zuen garrantzizko leku bat izango zuela euskal literaturan, idazle moduan pixka bat gorabeheratsua bada ere, batzuetan literaturarekin gorroto-amodiozko harreman konfliktiboa duela baitirudi. Edonola ere, beti da interesgarria, eta arnas luzeko idazlan bati ekiten dionean, bere trebetasunaren maila agerian geratzen da. Halaxe gertatzen da 'Twist' izeneko nobela mardul honetan. ETaren kontrako gerra zikineko gertakari latzenetako batean oinarritu da idazlea nobela hau egiteko, liburuaren abiapuntuan Soto eta Zeberio izeneko pertsonaien desagertzea jartzen da-eta. Euskal gatazkaren testuinguruan kokatzen du istorioa, eta bertan kontatzen direnatarik askok zuzen zein zeharka euskal gatazka horrekin zerikusirik daukate. Baina liburuan euskal gatazkatik harantzago doa. Argumentuaren erdigunean Diego Lazkano izeneko pertsonaia dugu, Sotoren eta Zeberioaren adiskidea eta militantziakidea. Diego Lazkanok ezin du erru sentimendutik ihes egin, bera izan baitzen adiskideak salatu zituen, eta haien desagerpena ahalbideratu zuena. Sentimendu horren pean eraikitzen saiatzen da bere bizitza, eta idazle ospetsua izatera heltzen da, baina itxurazko bizitza horren azpian beste bizitza bat dauka, zeren protagonistak, bere benetakoa izatera alde batera utzita, galduta-ko adiskideen bizitza burutu gabeari eusten

baitio, Sotok hasi berritan utzitako idazle-lana bere gain hartuta. Lazkanok badaki neurri handi batean egiten ari den bizitza hori ez dela berea, maileguan hartutako izaera daukala bere benetako izaeraren gainean jarrita, eta tentsioa sortzen da bien artean.

Nobelaren erdigunean gertakari horiek eta pertsonaia hau agertu arren, nobelak alderdi gehiago dauzka. Ia izaera independentea duten zortzi ataletan banatuta agertzen da, non gertakariekin zerikusirik duten beste pertsonaia batzuk eta zuzen gai horrekin erlazionatuta ez daudenak ere agertzen diren, non arteaz eta literaturaz, antzerkiaz eta bizitzaz hitz egiten den. Nobela komple-

xua da, eta batzuetan idazleak bertan bere burua hustu duela ematen du. Eta euskal gatazka-
ren barruan kokatuta dagoen arren, gatazkaz bainoago adiskidetasunaz, ausentiaz, eta, batez ere, erru sentimenduaz hitz egiten zaigu.

Duda bat bakarrik geratu zait: liburuak izan duen oihartzuna zergatik gertatu da, bere dudaezinezko kalitateagatik ala argumentua gatazka-
ren barruan kokatua izan delako?



TWIST

Egile: Harkaitz Cano. Eteberria. Argitaletxea: Susa. 440 orr. Zarautz, 2011. Sainneurria: 26 euro

Las guerras del narco y la DEA

Un policía y un criminal

Trilogía de Nebaldi

Oporrak eta bidaiak

BETI OPORRETAN
HARKAITZ CANO
Generoa: Narrazioak.
Argitaletxea: Susa.
Orrialdeak: 208.
Prezioa: 18 euro.

|| JAVIER ROJO

Liburua 'Beti oporretan' izenburuarekin argitaratu da eta bertan hamalau narrazio biltzen ditu. Izenburuan aipatzen den opor hitzak ematen dio batasuna idazlan honi, narrazio gehienetan kontatzen direnak opor garaian kokatzen baitira. Oporraldia edonoren bizitzan ohikoa den garai bat baino zerbait gehiago da liburu honetan. Oporraldiak bizitza erdibitzen duen parentesiaren moduan uler daiteke, benetako bizitzarekin zeri-kusi handirik ez duena. Salbuespen-egoera bat alegia. Baina hemen oporrak izaera hori transzenditzen du, existentziaren beraren metafora izateraino. Bidaiatzeak bizitza sinbolizatzen duelarik, oporraldietan egiten diren bidaiak izaera horretan sakonago arakatzten dute eta existentziaren absurdoa planteatzen digute: bidaiatzea

bai baina turista moduan, eta ez behinola lurralde ezezagunen bila zihoazen abentureroak bezala. Bestaldetik, oporretako bidaiak askok haurtzaroa ekartzen dute gogora, liburu honetan haurtzaroan egindako bidaiak erreferentzia puntu garrantzitsuak baitira narrazio askotan. Izan ere, pertsonaiek, helduarora heldutakoan, berpiztu nahi izaten dute haurtzaroan antzeko bidaiak batean sentitutako zirrara. Baina erraz suposatuko denez, halakoak berpiztu nahiak zapuztu egiten ditu horren atzetik dabilzanak. Iragana oroi-menaren esparrua da, baina oroi-mena eta irudimena elkarrengandik oso urrun ez daudenez gero errealitateak erakusten die behin eta berriro pertsonaiei zeinen oker zeuden iraganeko kontu horiek orainera ekarri nahirik. Bidaiak parentesiak dira, errutinara bueltatzea inplikatzan dutenak, baina baita ere aldaketak iradokitzen dituzte, aldaketa hauek gehienetan txarrerako izaten badira ere. Harkaitz Canok benetako trebetasuna dauka oso sinpleak diruditen osagaien bidez istorio erakargarriak kontatzeko. Salbuespenen bat alde batera utzita, teknikaren alde-tik nabarmentzen ez diren ipuinen aurrean gaude liburu honetan. Bestaldetik errealismoaren parametroetan kokatzen diren istorioak dira bertakoak. Canok badaki edozein gertaera, edozein keinuren atzean unibertso osoa laburbil daitekeela, eta hori islatzen du bere ipuinetan.

Desertores del catalano

De marles bestre porra comido

Penia, esa nueva dimensión

MECANOGRAFIAK
Harkaitz Cano

Egilea: Harkaitz Cano
Generoa: Narrazioak
Argitaletxea: Txalaparta
Orrialdeak: 310
Prezioa: 19 euro.

II JAVIER ROJO

'Mecanografiak' izenburua jarri dio Irati Jimenezek Harkaitz Canoren narrazioez paratu duen antologiari, non alor honetan idazleak orain arte egin duen ibilbidea ezagutzeko materiala eskaintzen den. Jimenezen gustuek bideratutako narrazio bilduma izanik ere, zabala eta sakona da hautaketa, Canoren literatur modu desberdinen berri ematen du-eta. Idazle hau bere belaunaldiko idazlerik hoberenetako bat da, hoberena ez esateagatik, eta bere idazlanetan beti aurkitzen dugu zerbait interesgarri. Niri neuri harri garria gertatu zitzaidan 'Beluna jazz' izenburua zuen nobela hura. 1996an liburu hori argitaratu zenean, idazleak hogeita bat urte besterik ez zuen, eta hala ere benetako idazle baten trebetasuna erakusten zuen. Cano, beste garai

bat zela-eta «pluriempleo literarioa» esaten zitzaion horren adibidetzat har daiteke eta hainbat idazlan-motatan aritu izan da. Honek, neurri batean, dispersioa sortu du bere ibilbidean, baina bestalde lanak egiteko orduan osagaiak iturri askotatik jasotzeko aukera ere eskaini dio. Beraz, nobelak, poemak, gidoiak eta abar egina da, alor guztietan zer esana duelarik. Baina nago narrazioak idazten dituenen bere kalitatea nabarmentzen dela era ikusgarrian.

Irakurlea ohartuko da narrazio mota desberdinak egiteko gai dela idazlea, errealistak eta puntu fantastikoa ere badutenak, poetikoak alde batera utzi gabe. Estiloaren aldetik ere, aniztasuna erakusten du. Edonola ere, zein ere baitira idazleak erabiltzen dituen teknika-estiloak, irakurleak ifrentzua-aren ideiarekin egingo du topo narrazio hauetan. Canok errealitatearen beste aldea azaleratzen du, eta ifrentzu horrek, fantastikoa zein errealista izan, existenziaren alderdi siniestroak erakusten digu. Batzuetan iradokizun xumeak baino ez dira alderdi siniestro horren aztarnak, baina errealitatearekiko ezinegona azaltzen zaigu.

Antologia hau irakurri beharreko liburua iruditzen zait: ezagutzen dutenik idazlearen ibilbidea gogoratuko dute, eta oraindik haren berri ez dutenek gure literaturan dagoen unibertso interesgarrienetako batean murgiltzeko aukera izango dute.



Kantariaren isla

FAKIRRAREN AHOTSA

Egilea: Harkaitz Cano.
Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Susa
Orrialdeak: 352.
Prezioa: 22 euro.



✪ JAVIER ROJO

Harkaitz Canok bere kalitatearen beste froga bat utzi digu 'Fakirraren ahotsa' izenburua duen nobelarekin. Idazlan honetan aurkezten den argumentuan Imanol Lurgain izeneko kantariaren bizitza kontatzen da. Protagonista beste Imanol baten literatur ifrentzua da, benetakoa kantariaren literatur isla, nolabait esateko. Nobelan aurkezten den bezala, Imanol, 'Fakirra' ezizenez, pertsonaia kontraesankor moduan agertzen zaigu, batzuetan pertsona maitagarria, besteetan bere egoaren menpean dagoen artista jasangaitza, txaloak behar dituen ume handia izango balitz bezala. Baina idazleak pertsonaiaren bizitza kontatzeaz gain, beste gauza bat egiten du liburu honetan: pertsonaiaren testuingurua ere kontagaia du idazlanean. Beraz, garai bat eta garai horretan alde edo molde eragina izan zuen belau-naldia ere jartzen ditu bere begira-

dapean, bizitza publikoaren erdigunean-edo egonda gaur eguneko gure inguruari forma eman dioten pertsonak osatzen baitute belau-naldi hori.

Argumentua XX. mendearen azken hamarkadetan eta XXI.aren hasierako urteetan zehar hedatzen delarik, nobelak geure buruaren (alegia, euskaldunon) ispilua ere eskaintzen du. Izan ere, kronika sentimentalak izan gabe nostalgia puntu batez zipriztinduta agertzen zaigu argumentua, baina batez ere trantsizio garaia protagonizatu zuten euskaldunen ilusioak eta hauen bilakaera kokatzen zaizkigu narrazioaren erdigunean. Idazleak ez ditu alderdi ilunak ezkututzen, eta alde horretatik begiratura, miseriak ere jartzen ditu begi aurrean.

Nobela honek beste alderdi interesgarri asko dauzka, eta horien artean bi nabarmenduko ditut. Alde batetik, idazleak pentsatzen du irakurle informatuaren aurrean dagoela, hau da, zeharka aipatzen direnak identifikatzeko gai izango dela. Honek irakurlearen eta idazlearen arteko konplizitatea areagotzen du. Eta bestalde, nobela ez da bere zilborrari begira dagoen testua. Ia konturatzeke, oharkabean bezala, giza kondizioaren arakatzeko sakona eskaintzen digu idazleak. Harkaitz Cano gure idazlerik interesgarrienetako bat da, dudarik gabe, eta horren froga utzi digu derrigorrezko irakurketa iruditzen zaidan liburu mirezgarri honetan.

Hirugarren Atala

Kontakizuna

Crónica

Hiri itxia

Xabier Montoiak euskal literaturan gutxitan aipatzen den hiri bat aukeratu du bere kontakizunak kokatzeko. Gasteiz, izan ere, askotan ez da izan euskal literaturarentzat, euskaldun askoren ustez Gasteiz Euskal Herrian egongo ez balitz bezala. Bazterketa hau, dena den, ez dut uste Gasteizen euskaldun gutxi egotearekin erlazionatuta dagoenik. Bilbon ere horrelako zerbait gertatu baita eta askotan agertzen baita euskal literaturan. Ahaztura honen arrazoiak politikoak direla uste dut. Montoiak, beraz, hiri hau hautatu du,

gerra zibilaren indoko urteetan. Urte horietako giro itogarri, *provinciano*, itxia pairatu behar dute bertan agertzen diren pertsonaia xumeek. Ezen protagonista nagusiak askotan bizirautea beste helbururik ez dutela ematen duten pertsonaia zanpatuak baitira. Montoiak hauen pozak eta tristurak, bizitzak ematen dizkien gauza apurrak eta kentzen dizkien funtsezkoak erabili ditu kontakizai. Liburua kontakizun desberdinez osatuta dagoen arren, pertsonaia horietako batzuk behin baino gehiagotan agertzen dira, haiako sare bat antolatuta eta liburuari osotasuna emanez. Zenbait pasarte irakurtzean Lampedusak behin idatzitako esaldi bat etorri zait gogora: pausaldi bat estuasunean, hauxe baita txioren benetako poza.



KONDAGINETZA

XABIER MONTOIA

Gasteizko hondartzak

SUSA
 IRLUÑA, 1997
 300 ORR. 2.500 PZTA

JAVIER ROJO

Etixeratzean

Azken urte hauetan indarkeria politikoa gu errekurrentea bihurtu da euskal literaturan. Idazlan batzuk, Atxagak edo Saizarbitoriak idatzitakoak adibidez, benetan interesgarriak dira. Beste batzuek, ordea, izena alpatzerik ere ez dute merezi. Xabier Mendiguren *Elizegik* ere moda hori heldu dio arazoaren beste ikuspuntu bat emateko: militantearen etxeratzea, ospetxean hainbat urte bete ondoren. Istorio honen, liburuaren kontrazalean esaten duenari kasu egiten badiegu, umoretsua izan nahi luke. Nik, ordea, ez dut ia inondik ere umoretsutzat har litekeen elementurik aurkitu. Bestaldetik, argumentuak hausnarketarako beta ematen bazuen ere, ezker abertzalean behin eta berritro errepikatzen diren gatak (kaleko istiluak; presoaren familia; ertzainak...) bata bestearen atzetik jartzeak aukera hori baztertzen du eta batzutan eieberri osoak bukaeran ematen den elkarriketaren prestaera besterik ez dela dirudi: hori militante etxeratu berria eta damutu bat arituko dira indarkeriarri buruz, topikoen amaraunetik askatu gabe. Xabier Mendiguren, hala ere, inazle trebea da. Hortaz, liburu hau topikoz jositako eieberri ahula izan arren, irakurgarria ere bada. Baina ez du inola ere *Zeru hortek* esultzerik lortzen.



ELEBERRIA

XABIER MENDIGUREN

Berriro igo nauzu

ELKAR, DONOSTIA, 1997, 252
OPR., 1900 PZTA.

JAVIER ROJO

Esp

Kronika bitxia

Joxemari Iturraldek eleberri handia, eta ez naiz luzaeraz ari, egiteko asmoa izan du, *Kilkirra eta roulottea* idaztean. Franco hil ondoko transizio garaiko kronika bitxia egin nahi izan du eta horretarako pertsonaia batzuek garai horiek nola bizi izan zituzten kontatzen digu. Pertsonaia nagusia eta narratzailea John Erdosain da, erdi estatubatuarra erdi euskalduna, Franco hil zenean Ondaruko institutuan irakasle egondakoa. Pertsonaia honek, bere egoera bereziak ematen dion talara aprobetxatuz kontatzen dizkigu garai hartako gorabehera zenbait. Eleberria, batez ere lehenengo erdian, korapilatsu gerta daiteke, gertaerak eta oroitzeak nahastuta pertsonaia denbora aurrera eta atzera saltoka dabiltzalarik, kontakizun nagusian hainbat eta hainbat istorio toki sartzen direlarik. Bigarren erdian, ordea, askoz linealagoa izanik, errezagoa izango zaito irakurleari kontakizunaren haria jarraitzea, bidezidorretan galdu gabe. Atal honetan azaltzen diren gauzetan oinarritzen da eleberraren izenburua: pertsonaia (kilkirra) bere roulotean egiten du inora gabeko txangoa Euskal Herrian zehar. Eleberri luzea da; beraz, nahi izanez gero errez aurki daitezke zenbait momentu ahul. Edonola ere, ondo merxe du jaso berri duen Kritika Saria.



ELEBERRIA

JOXEMARI ITURRALDE

Kilkirra eta roulottea

EREN DONOSTIA, 1997
516 ORR. 3.360 PZTA.

JAVIER ROJO

Isilunen atzean

Pello Lizarralde idazle berezia da euskal literaturaren munduan. Giro literariotik aparte samar, mundutxo hori noizean behin astintzen duten edalontziko ekaitzak saihestu eta bere bideari jarraitu dio. Bitartean idatzi eta zalapartarik gabe interesik handieneko lanak argitaratuz doa. Liburu honetan lau narrazio bildu ditu, eta lauek ezaugarri bera erakusten dute: ikusi egiten dena, entzun egiten dena, hau da zentzumenek jasotzen dena kontatzen da, interpretaziorik egin gabe; gertaerak azaltzen dira, baina gertaeren atzean dagoena jakinarazi gabe.

Gauzak horrela, kontakizunek batzutan hotzak dirudite. Giro honetan, isilaldian gordetzen dena, esan edo ikusten ez dena misterio handia suertatzen zaio irakurleari eta, horrenbestean, edozein ekintzaren atzean (denik eta ekintzarik arruntena ere) zerbait bitxia dagoelako inpresioa uzten dio, zerbait bitxi eta misteriotsu hori zehazki zer den jakitera inoiz heltzen ez den arren. Pertsonaiak, bakardade neurrigabe batean galduta bezala, beti orainaldiaren katez lotuta daude, ez baitute iraganik ez geroaldirik. Hauek isilaldien lainopean izkutaturik agertzen dira. Gero eta nabarmenagoa iruditzen zaiz Pello Lizarralde gure artean dagoen idazlerik onenetako bat dela, liburu hau lekuko.



KONDAGINTZA

PELLO LIZARRALDE**Un ange passe
-Isilaldietan-**EREIN. DONOSTIA, 1988.
116 OR. 1350 PZTA.

JAVIER ROJO

Herria eta hiria

Urregilearen orduak izeneko eleberrri honetan Pako Aristik alde batera utzi du bere lehen eleberrietan nagusi zen tremendismo hura. Honetan, eleberrri aberats eta konplexua eskaini digu, eta bertan azaltzen digu nola aldatzen den bizitza herri txiki batean, ondoan duen hiriaren eraginpean. Neurri handi batean esan liteke eleberrriak tradizioaren eta modernitatearen arteko kontrajarpen bat erakusten duela egitura bikoiztuen bidez: herria/hiria; eguna/gauna;

taberna/puba. Eta modernitatea giro tradizional horretan nola sartzen

den ere erakutsiko digu, zeren idazleak adierazten duenez, diskurtso tradizionalak aldatu behar baitu, deseagertuko ez bada, gaurko munduan egokitu behar horretan. Kontakizunak maila desberdinak dauzka, narrazio-hari ugari, eta batzutan bestelako narrazioak ere sartzen ditu kintakizunean. Narratzaile eta ikuspuntu anitz eskaintzen dizkigu, errealitatea bere konplexutasunean erakutsi nahi baligu bezala... ikuspuntu bat bakarra ez baita nahikoa gure ingurua ulertzeko. Jakina, irakurleak bere aldetik zerbait egin behar du, zeren ezken integrazio-lana honen esku baitago irakurketa aktibo baten bidez. Beraz, liburu interesgarri, aberats baten aurrean gaudu; eleberrri bikain baten aurrean, azken finean.



ELEBERRIA


PAKO ARISTI**Urregilearen orduak**EREIN
DONOSTIA, 1998
366 OR. 2.700 PZTA.

JAVIER ROJO

La fo

Xelebrekeriak

Literaturaren kontzeptua nahiko zabala izanik bere baitan izatez zeharo desberdinak diren testuak biltzen ditu. Arazo nabarmena sortu ohi da, ordea, guztiz izaera desberlineko testu horiek maila bereberean jartzen badira. Kasu honetan, ezin dugu Jon Arretxeren liburu hau literaturaren ohiko halioen ikuspuntutik begiratu, literaturaren mozorroaren azpian (*Ostiralak* narrazio liburua da itxuraz) bestelako gauza eskaini baitzaigu, txiste bilduma luzea, alegia. Alde honetatik Arretxe azken urte hauetan euskal liburugintzan askotan ikusi



KONDAGINTZA

JON ARRETXE

Ostiralak

ELKARLANEAN
DONOSTIA, 1999.
138 ORR. 1.450 PZTA.

izan dugun bidearen jarraitzailetzat har dezakegu, zeren idazle askok, umorezko liburuak egin nahirik, xelebrekeriaz betetako lanak argitaratzen haltituzte. Hemen ikasle bizitzan alde edo moldez jarraitu nahi duten pertsonaiek ditugu protagonista eta bizitza horretan irauteko bururatzen zaizkienak dira kontagai. Irakurleak edozein gauzarekin barre egiteko gogoia badu, orrialde hauetan aurkituko du zerekin ase gogo hori. Burutazio bitxiak, egoera barregarriak (edo behintzat asmo horrekin eginak), irakurlearen konplizitatea bilatzen duten autoerreferentzia erre-zak aurkitu ahaliko ditu irakurleak. Liburuaren negozioan mugitzen direnen aldetik, dudarik gabe, honelako lanak errentagarriak izango dira.

JAVIER ROJO

Maitale ezezaguna

Julen Gabiria izen berri bat da euskal nobelagintzan. 'Connemara gure bihotzetan' bere lehenengo satea da alor honetan, eta Igartza beka-saria irabazi du idazlan honi esker. Hemen kontatzen zaigu nola pertsonaia batek (Txema), bere neskalagun (Eider) istripuz hilaren oroitzapena berreskuratzen nahirik, neskak Irlandan sehar egindako bidaia errepikatzen duen. Neskalagunaren oroitzapena berreskuratzearekin batera, itzal horretatik askatzea izango zen mutilaren asmoa bidaiari ekitean. Eta bidaia sentimental horretan, neskak idatzitako egunkaria izango du bide-lagun. Honaino gauza berezirik ez, pentsa lezake norbaitek. Ustekabea, ordea, Txemaren zain dago, egunkari horretan, ezagutzen ez duen pertsona batekin topo egitean. Neskalagunaren alde izkutu eta ilunaren aurrez gertatzean aurkituko duena, jakina, ez zaio gustatuko. Plantamendu interesgarria du liburu honek eta irakurlearen arreta eta jakinmina oso ondo erakartzen daki. Kontamoldea, ordea, Txemaren bidaiaren kontakizuenan egunkariaren atalak tsrtekatuz, nahiko baliabide ezaguna da literaturan. Edonola ere, honelako mezua dago istorioaren azpian: hobe oroimena gehiegi ez astintzea, izkutan aurkituko duguna beharbada ez da gure gustuko izango.

JAVIER ROJO



EL EBERRIA

JULEN GABIRIA

Connemara.....


ELKARLANEAN
DÓNOSTIA, 2000
244 ORE, 2.100 PZTA.

Umora mingotsa

Aingeru Epaltza Lou Reed-en abesti batean oinarritu da eleberri honi izenburua ('Rock'n'Roll') jartzeko. Izenburuak iradoki dezakeenak, ordea, ez dauka zerikusi zuzenik eleberri honetan kontaktzen denistorioarekin.

Esan daiteke nobela beltzaren parametroetatik hurbil sortutako kontakizun baten aurrean gaudela. Baina idazleak aurrera pauso bat egin du genero honek eskaintzen dituen osagai topikoak erabiltzean.

Istorioa (gorpuak eta kazetariak, lapurrak, poliziak eta ikertzaileak, mozkortiak eta sektak dituen istorio hau) ironiaz, eta baita parodiaz ere, jantzen jakin izan du idazleak, pixka bat luzea den arren, oso gustora irakurtzen den eleberri entretenigarri gat egiteko. Protagonista, bizitza pertsonala hondatuta duen Eduardo izeneko kazetari gizajoa, bere gaztaroko adiskideekin batea, heriotzara eta desengainura eramango duen abentura txoro batean nahastuko da, nerabearoa aspaldi atzean utzi ez balu bezala. Narrazio honetan itxurek bilbe iluna marraztuko dute eta Eduardo korapilo hori askatzen saiatuko da, askotan faltsuak gertatzen diren hipotesiak planteatuz. Umorea eta mingostasuna, bietatik zerbait duen istorio honi, bestaldetik, mesede handia egin dio Epaltzak ohi duen idazkera barrokoa neurri batean moderatu izanak.



ELEBERRIA

AINGERU EPALTZA

Rock'n Roll'

ELKARLANEAN
DONOSTIA, 2000
408 OR. 3.400 PZTA.


JAVIER ROJO

Mundu absurdoa

Ipuin errotikoak izenburu iradokitzailea duen kontakizun liburu argitaratu du Karlos Linazasorok. Bizitatan banatua agertu da. Lehenengoak 'Hil artekoak' du izena eta esketx itxurako hamazortzi kontakizun biltzen ditu. Absurdoaren zordun badira ere, nire ustez, esketx moduko istorio hauek batzuetan zeri-kusi handiagoa daukate Harold Pinter bezalako idazle batekin. Beckett berarekin baino. Bigarren atalaren izenburua 'Akufenoak' da, eta ipuin laburren bilduma da, izan.

Horietako batzuek esaldi bat baino ez dute askotan, eta orain dela urte batzuk argitaratu zen antologia batean agertzen zen kalifikazioa har dezakete: ipuin hiperlaburrak. Liburu honetan idazleak irakurlea absurdoaren munduarekin jarri nahi du aurrez aurre. Absurdoaren aurkezpen hau, oro har, honela egiten da: itxuraz arrunta dirudien egoera batean elementu arrotz bat, egoera horrekin zeri-kusi bat bera ere ez duena, sartzen da: pertsonaiek, ordea, ez dute elementu horren arrotzasunaren kontzientziarik. Honelako liburuek ezinbestekoa izan ohi dute irakurlearen konplizitatea eta, alde hone-tatik, idazleak behin eta berriro egiten dizkio keinu bereziak irakurleari azaleko egoera bitxian geratu beharrean interpretazioak bila ditzan.

JAVIER ROJO



NARRAZIOA

KARLOS LINAZASORO


Ipuin errotikoak

ALBERDANIA,
DONOSTIA, 2001
144 OR. 2.000 PZTA.

Lauaxeta berpizturik

Zelan ikusiko luke orain hirurogei urte hildako batek gaur egungo Euskal Herria, bat-batean berpiztuko balitz? Badirudi hone-lako hipotesia erabili duela buruan Juan Luis Zabalak 'Agur, Euzkadi' izeneko eleberri hau idazteko abiapuntutzat. Horretarako, Lauaxeta, gerra zibilean frankistek fusilatu zuten euskal poeta, hautatu du bizien mundura ekartzeko. Hasiara batean, Lauaxetaren harridura erakusten du idazleak, egoera berrian egokitu beharrak lanak ekartzen baitiz-

kio poetari. Baina istorioak beste bide batzuetatik jotzen du. Poetak Euskal Herri ezezagun honetan gidaria behar du eta lana utzi berria duen kazetaria (Julen Lamarain) aukeratu du honetarako. Biak Euskal Herrian zehar nora ezean arituko dira kazetariarentzat iniziatiko gertatuko den bidaiara batean, eta, azkenean, ez da batere argi izango nork nor gidatzen duen mendiz mendi egiten duten ibilaldi honetan. Errealismo magikoaren parametroetan idatzitako eleberri honetan, pertsonaien ikusmoldeen kontrajarpenaz eta haien bilakaeraz gain, beste interesgune batzuk ere badaude. Eleberri osoa, adibidez, euskal literaturari eta euskaraz idazten dutenei egindako omenalditzat har daiteke. Alde honetatik ez dira falta erreferentzia dibertigarriak.



ELEBERRIA

JUAN LUIS ZABALA

Agur, Euzkadi

SUSA
NAFARROA, 2000
168 OR. 1.900 PZTA.


JAVIER ROJO

Azken bidaia

‘Sprako tranbia’ Unai Elorriaga idazle gaztearen lehenengo nobela da, eta lortu duen emaitza ikusita, ez ahal da azkena izango. Pertsonaia bitxiak saila aurkezten digu idazleak bere nobelan, xelebreak batzuetan, eromenaren mugetan daudenak bestetan. Eta guztiek, bizitzaren garai desberdinetan dauden arren, bidaia batean galduta egotearen inpresioa uzten diote irakurleari. Norabait heldu nahi bide dute, beraien helmuga non dagoen oso argi ez badute ere. Pertsonaia sail honetan batek

merezi du aipamen berezia, Lucasek hain zuzen, istorio guztia beraren inguruan aritzen baita. Bizitzaren azken aldean dagoen agure honen buruan errealitatea, oroitzapenak, eta eromenak oroitzapentzat ematen dituenak (oroimena eta irudimena maila berean baitaude) nahasten dira, oraina, lehen eta izan zitekeena, denak bat izango balira bezala. Interes handiko nobela da Unai Elorriagaren liburu hau; izan ere, pertsonaiak eta hauek egiten dituztenak kontatzeaz gain, kontaeraren garrantziaz ere arduratu da idazlea, narrazio-maila desberdinak txandakatuz eta denboraren haria apurtuz aurrera eta atzerako saltoen bidez. Irakurleari, bere aldetik, zerbait eskatzen dio: osagai narratiiboaren ugaritasun horretan ordena bilatzea, alegia.

JAVIER ROJO



ELEBERRIA

UNAI ELORRIAGA

Sprako tranbia

ELKARLANEAN
DONOSTIA, 2001
154 ORR. 1.680 PZTA.

Ca

Hiri mosaikoa

Azken urte hauetan euskal literaturan agertu diren izenik interesgarrien artean, dudarik gabe, Ixiar Rozas dugu. 'Sartu, korrontea dabil' izena du bere azken literatur lanak, eleberria edota elkarri lotuta dauden istorioen bilduma izan daitekeen liburuak. Bertan hirian (Paris, baina beste edozein izan liteke) galduta bezala dauden pertsonaia batzuk noraezean ibiltzen ikusten ditugu, elkar tgopatzeko eta beraien artean harreman sotilak sortzen. Pertsonaia bakoitzak bere ahotsa du eta bakoitzarengandik abiatuta mundu oso

bat ireki daitekeela sumatzen du irakurleak, nobela edo historico-bilduma honetan mundu oso horren zati txiki bat baino erakusten ez zaigun arren. Astotan irlak izango bailiran aurkeztuta daude pertsonaiak, bakoitza bere bakardadean isolatua, eta ezinezkoa zaie larruazala zeharkatzea lortuko lukeen komunikazioa sortzea. Mosaiko bat osatzen dute beraz, edo liburuan erabiltzen den hitzarekin esateko, puzzle bat, trenean abiapuntua eta trenean amaiera duen istorio sarea. Izan ere, pertsonaia guztiak hirian aurkitzen badira ere, badirudi inor ez dela bertakoa, denak arrotz direla bere munduan. Merezimendu handiko testua dugu liburu hau, idaztea berezko duen idazle baten eskutik sortua.

JAVIER ROJO



ELEBERRIA

IXIAR ROZAS

**Sartu,
korrontea dabil**

EREIN. DONOSTIA, 2001
136 OR. 10,22 EUROS.

Parranda etengabea

Jon Arretxe, beharbada, narratibaren alorrean best-seller fenomenoaren euskal ordezkari ezagunena izan daiteke. Beraz, idazle honek libururen bat argitaratzen duenean, horri buruzko balorazioa, sortzen dituen espektatiben araberakoa izango da, nahitaez. Eta zer bilatzen du irakuleak Arretxeren narrazio liburu batean? Nire ustez, inolako buruhausterik sortzen ez dion kontaera dibertigarria edota, beste kasu batzuetan, irakurgai errez bat. Kasu honetan, gainera, liburu honi larunbatak deritzalarik, idazleak aurretik idatzitako beste batzuk datozkio burua irakurleari.

Honek, dena dela, intertestualitatetik baino gehiago ondo antolatutako kanpaina komertzial batetik daukala dirudi. Elkarren ondoan lotutako istorioek sortzen duten nobela honetan, gaia eta argumentua egoera barregarri baina patetiko batez sexua besterik bilatzen ez duten pertsonaia batzuen gainean txistek egiteko. Izan ere, pertsonaia adolezsentzia aspaldian atzean utzi badute ere, nerabe zoroak balira bezala jokatzeko baitute. Testuinguru honetan narratzaile bitxi baten presentzia da literaturari egiten zaion kontzesio bakarra. Edonola ere, irakurlea ez da zapuztuta geratuko: espektatibak bete ditu.



ELEBERRIA

JON ARRETXE

Larunbatak

ELKARLAN
DONOSTIA, 2001
128 ORR. 9,60 EUROS

JAVIER ROJO

Ihesaldian

Orain aste batzuk, konpetenziako egunkari batean Jon Kortazarrek esaten zuen lerro hauek idazten ditudan honek oso gustukoa dudala Pello Lizarralderen literatura. Ez ditut nik adiskidearen hitzak ukatuko. Izan ere, Lizarralde gure artean dagoen idazlerik interesgarrienetakoa da. Hau frogatu nahian dabilen irakurleak nahikoa du argitaratu berria duen 'Larrepetit' izeneko eleberria irakurtzea. Bi iheslari eta hauei laguntzen dien pertsonaia dira nobela honen protagonistak. Paisaiak eta eguraldiak zedarritzen duten inguru

batean bi iheslariek muga zeharkatzea dute helburu eta hara doaz, bidez bide, Lehenaldirik eta geroaldirik gabe, pertsonaia hauek ihesa markatzen duten gertaeren orainaldi absolutuan katigaturik daude. Eta honetan erakusten du bere maisutasuna Lizarraldek. Idazleak jakin du orainaldi horretan gertatzen direnak, ikusten direnak, sentitzen direnak zehaztasun eta xehetasun osoz azaltzen, interpretazioei edota sentimenduei leku handirik uzten ez dien begirada baten azpian. Begirada hau ere baita nobela honen protagonista. Dena neurtuta dagoen istorio honek, bestaldetik, irakurle berezia behar du. Kontzen den anekdotaren gainetik, literatura maitatzen eta hartaz gozatzen dakien irakurle arre-tasua.

JAVIER ROJO



ELEBERRIA

PELLO LIZARRALDE


Larrepetit

EREIN,
DONOSTIA, 2002
126 ORR. 11,50 EURO

Carb

Xelebrekerien erresuma

Una Elorriagaren bigarren nobela dugu 'Van't Hoffen ilea' izenburua-rekin argitaratu den liburu hau. Bertan kontzaten zaigu nola Matias Malanda izeneko pertsonaia hiri batera doan Ministeriorako ikerketa bat burutzeko asmoz. Ez dago batere argi zein ikerketa mota den edota zergatik burutu nahi duen halako ikerketa. Hala ere, pertsonaia hango biztanleekin elkartuko da haien istorio bitxiak jasotzeko. haxe da nobelaren planteamendua, baina nobela honetan argumentua, batez ere, testu bat sortzeko aitzakia iruditu zait. Izan ere, edozein irakurle ohartu daitkeenez, nobela honetan testuaren idazkera bera da nabarmentzen den osagaia. Esaldiak errepikapenez eta surrealistikak diruditenh irudiz beteta daude, eta askotan ahozko kontagintza nolabait gogora ekartzen duen hitz ordenaren arabera taiututa agertzen dira. Honelako testu batean argumentua lausotuta gertzatzen da oso maiz, hariak galduko balira bezala, argumentu honetan benetan haririk baldin badago. Planteamendu orokorra absurdoaren literaturatik hurbil dago eta protagonistak jasotzen dituen istorioak ere pertsonaia xelebreen zentzua umoretsuak baino ez dira, irakurleak zentzua noiz emango zain. Idazleak nobela itxurapean egin dako txantxa bat, azken finean.



NOBELA

UNAI ELORRIAGA**Van't Hoffen ilea**

ELKARLANEAN
DONOSTIA, 2003
224 OR. 14,30 EUROS

JAVIER ROJO

New York-en galdua

JAVIER ROJO

Iñaki Zabaletak literaturaren arloan liburu bat baino gehiago argitaratu du, baina '110. Street-eko geltokia' izeneko nobelaren arrakasta ikusita, esan daiteke idazle honek gure artean hain maiz gertatu den fenomenoaren adibidea dirudiela: liburu bakarreko idazlearena. Alde honetatik, liburuaren arrakastaz gain, kontuan hartu behar da orain dela hogeitau urte lehenengo aldiz argitaratu zenez geroztik, literaturaren arloa alde batera utzi duela idazleak. Orain argitarapen berriari agertzen zaigu liburu bat, testua zuzenduta eta epilogo batez emendatuta. Nobela beltzaren alorrekoa dela esan izan da. 70ko hamarkadaren hasieran New York-era ihes egindako mutil euskaldun baten eta hango neska baten bizitzek zelan egiten duten topo kontatzen du. Urteak igaro dira liburuaren lehenengo argitaratu zenetik eta nahitaez nabaritu egiten da. Pertsonaiek aspaldikoak dirudite, ezinbestez. Bestaldetik, gure artean gutxitan gertatu den bezala, film baten oinarria ere izan zen, 'Menos que cero' izenarekin agertua, Bret Easton Ellis-en nobela bezala.

Eta jatorrizko testuari gaineratutako epilogo bat dela-eta, esan behar dut nobelaren alderditik ikusita ez dudala ulertu zergatik egin den, azken paragrafoa janzteko bide bat izan ez bada, behintzat.

Eleberria



Iñaki Zabaleta
110. Street-eko geltokia

Argitaletxea
Elkarlanean
Donostia, 2003
Herrialdeak 196
Prezioa: 13,50 €

Epikaren ondoren

JAVIER ROJO

Eider Rodríguez-ek plazara atera du 'Eta handik gutxira gaur' izenburuko narrazio liburu bat. Antza, idaztearen lanbidean liburu formatuan agertzen den lehenengo emaitza du, eta agian horixe irudituko zaio harrigarri irakurle bati baino gehiagori, liburu omotu baten aurrean baitago. Epikari leku handirik uzten

ez dion mundo batean, egunero bizitzan bizirautea heroismoaren formarik handiena izan daitekeela erakusten zaigu narrazio hauetan, batez ere egunero bizitza horren mixeriei eta ziztrinkeriei aurre egin behar zaitelarik. Eta hau erakusteko, pertsonaien arteko erlazioetan oinarritzen da gehienbat idazlea. Adiskidetasuna eta amodioa bilatzen dituztenak, bakardadetik ihes egin nahian dabilzanak, igaro den mundu bat orioitzapenetan berpiztu nahi dutenak dira narrazio hauetako protagonistak. Azken finean, pertsonaek denboraren igarotzeari aurre egin behar diote, denborak, igaro ahala, bere marka utzi eta gauzak dagoneko ez baitira lehen bezala. Eta egoera berriaren aurrean ego-

kitzen zaila gertatzen zaie ipuin hauetako pertsonaiei. Hau guztia, idazle gazteenen artean nahiko ahaztuta zegoen estiloa lantzeko nahia-rekin kontatua. Hemendik aurrera euskal irakurleak adi egon beharko zaizkie idazle honen ibilbidearen emaitzei.

Narrazioak



Eider Rodríguez
**Eta handik
gutxira gaur**

Orgitaletxe Susa
Nafarroa, 2004
Orrialdeak 164
Prezioa 12,50 €

Gizonak eta amakumeak

JAVIER ROJO

'Ecce homo' du izena Laura Mintegiren azken nobelak, Friedrich Nietzscheren harako lan horrek bezala. Gizon eta emakumeen arteko harremanen azalpena ematen du liburuak hasiera batean, egoera berberaren aurrean bakoitzaren jarrera eta ikuspuntu desberdinak argitzen saiatzen baita.

Eleberria



Laura Mintegi
Ecce homo

Argitaletxe

Txalaparta
Nafarroa, 2006
Orrialdeak 254
Prezioa 16 €

Eta hori da azpimarratu nahi dena: ikuspuntuak desberdinak direla, jarrerak desberdinak direla, gizonak eta emakumeek funtsean era desberdinean ulertzen eta sentitzen dutela errealitatea. Istorioaren abiapuntua Josek Begori egiten dion proposamena da: elkarrekin bizitzeko esan dio. Aspaldiko adiskideak dira, eta bakoitzak ibilbide luzea izan du harreman afektiboetara dagokienez. Bestaldetik, politikaren alorrean elkarrengandik urrundu badira ere, adiskidetasunak hor dirau. Eta hemen dago nobelaren bigarren gai nagusia: Gizonen eta emakumeen jarrera desberdinak aurrez aurre jartzen diren bezala, aurrez aurre jartzen dira pertsonen arteko harremanak eta politika-jarduera ere.

Ez dakit tesi nobela baten aurrean gauden, baina iruditu zait idazleak nobela baino lehenagoko eskema ideologiko bati nobelaren forma eman nahi izan diola, ideia horiek fikziozko pertsonaia batzuen gausatuta.

Ezinezko harremana

JAVIER ROJO

Irati Jimenez 70ko hamarkadako beste idazle bat dugu, nobela labur bat argitaratu berri duena. 'Bat, bi, Manchester' izenburua du liburuak eta Agustín Zubikarai saria irabazi du aurtengo deialdian. Liburuan ezinezko maitasun baten istorioa kontatzen zaigu. Alde batetik, kontalaria

dugu, nobelan izena aipatzen ez zaiona, homosexuala. Izan ere, horrelaxe definitzen du pertsonaia honek bere burua lehenengo momentutik, identitate arazoak edo literatur ekonomiak bultzatuta. Bestetik, Aitor izeneko pertsonaia dugu, emakume guztiak erakartzen dituen mutila. Biek topo egiten dute Manchesterren. Ezinezkoa dirudi bi pertsonaioi elkarrekin egotea, guztiz desberdinak baitira. Baina Manchesterren daude, nolabaiteko deserri pertsonalean, ihesaldi existentzialeko geldiune batean bezala, eta beste euskarririk ez dutelarik, elkarrengana jotzen dute. Nobela labur baten aurrean gaude eta alde honetatik esan behar da idazlea saiatu dela lehen momentutik bi pertsonaien izaerak argi finkatzen, eta agian

horrexegatik gertatzen dira hain eskematiko beraien arteko desberdintasunak. Edonola ere, narrazioa interesgarria da, metaforizazio joera erakusten duen estilo dotore batez idatzia.

Eleberria



Irati Jimenez
Bat, bi, Manchester

Argitaletxe
Elkarlanean
Donostia, 2006
Orrialdeak 92
Prezioa 9,45 €

Larridura deserosoa

JAVIER ROJO

Jon Arretxek 'Sustrai beltzak' izeneko narrazio bilduma honekin lurralde berri batera hurbildu nahi duela esan daiteke. Orain arte idazleak bidaiak liburuetan, gazteen bizitza barregarriak kontatu nahi zituzten narrazioetan eta nobela poliziakoaren parodia ematen zuten nobeletan

jarri du arreta. Honetan ordea, beste literatur genero bat aukeratu du. Liburuaren kontrazalean beldurrezko ipuinak direla adierazten zaio irakurleari, baina egia esan, ez zaizkit beldurrezko istorioak iruditu, besteak beste, gaur egun beldurrezko literatura egiteko aukeran dauden osagaiak nahiko ezagunak baitira benetan beldurra emateko. Nire ustez, literatura fantastikotik hurbilago daude narrazio hauek, eta haien asmoa beldurra barik larridura deserosoa sortzea da. Osagaiak nahiko sinpleak dira, baina idazlea trebea da erabiltzean: normaltzat har daitekeen testuinguru batean, testuinguru errealistan alegia, ezinegona sor dezakeen osagai bat agertzen da, eta larridura sortzen du itxuraz fantastikoa den osagai hori eremu errealean gertagarria delako. Esate baterako, hiltzaileak diren umeak edota antropofagia bezalako osagaiak ematen diete izaera berezi hori narrazio efektista hauei.

Narrazioak



Jon Arretxe
Sustrai beltzak

Argitaletxe Elea
Orrialdeak 128
Precio 14 €

Cabezas rapadas

...

Memoria criminal
 Karlos Linazasoro
 Arg. Erein, Donostia, 2007
 Orrialdeak 144
 Salmenta 16 €



Niñoa perdidua

...

Clásicos de nuestros padres
 Karlos Linazasoro
 Arg. Erein, Donostia, 2007
 Orrialdeak 144
 Salmenta 16 €



Memoria criminal

...

Kontu txikiak
 Karlos Linazasoro
 Arg. Erein, Donostia, 2007
 Orrialdeak 144
 Salmenta 16 €



Kontu txikiak

JAVIER ROJO

Karlos Linazasorok 'Diotenez' izeneko liburua argitaratu eman du. Bi zati oso desberdinak ditu liburu honek. Lehenengoak 'Ars poetica zazpi ipuinetan' du izena eta izenak sortzen dituen espektatiben kontra, ipuinak barik aforismoen bildumak dira zazpi ipuin direlako horiek. Bigarren zatian, 'Holaxe kontuk (1:43 eskalan)' izenekoan, zati laburrez eginiko bilduma aurki dezake irakurleak. Hemen bai, zatiok alderdi narratibo nabarmena dute, eta mikrorrelatoekin pareka daitezke. Aforismoetan paradoxa nagusi bada ere, narrazio labur hauetan elipsia da aurki daitekeen baliabiderik funtsezkoena, konstatzen denak sortzen dituen espektatiben eta isiltzen denak ezkututzen dituen egien arteko dialektikan erakita baitaude narrazioak. Testu asko biltzen dira, eta jakina, ezin guztietan maila bera agertu, narrazio labur interesgarrien ondoan, txistek baino ez direnak agertzen baitira.

<p>Narrazioak Karlos Linazasoro Diotenez</p>	
<p>Arg. Erein, Donostia, 2007</p>	
<p>Orrialdeak 144 Salmenta 16 €</p>	

Clásicos de nuestros padres

...

Clásicos de nuestros padres
 Karlos Linazasoro
 Arg. Erein, Donostia, 2007
 Orrialdeak 144
 Salmenta 16 €



Kontu txikiak

...

Kontu txikiak
 Karlos Linazasoro
 Arg. Erein, Donostia, 2007
 Orrialdeak 144
 Salmenta 16 €



Poesia eta egia

Maiatzaren ondoren

JAVIER ROJO

Mariasun Landa haur eta gazte literaturan dugun idazlerik inportanteenetako bat da. Alor horretan ezaguna da eta askotan fro-

gatu du bere kalitatea. Baina 'Festa aldameneko gelan' izeneko liburu honetan beste alor batzuetara hurbildu nahi izan du, zeren irakurle helduentzako nobela bat idatzi baitu. Nobela autobiografikoa da, eta lehenengo pertsona hitz egiten digun narratzaile protagonista arazorik gabe identifika daiteke idazlearekin. Landa bezala, protagonista Parisa doa esperientzia berrien bila. 1968ko udazkenean gaude, maiatzaren biharamunean, beraz, baina udazken horretan Parisa doazenez axalean baino ez dituzte sentituzten maiatz haren ondorioak.


Fikzioaren eta errealtatearen mugetan mugitzen den liburua dugu hau. Protagonistak munduan bere lekua bilatzen du bidaia honen bidez eta ia bidaia inizatitokoa izango balitz bezala aurkezten zaigu: infernuratze moduko bat jasan ondoren (estuasunetatik-eta pasatu beharko baitu protagonistak ezezaguna gertatzen zaion hiri miretsian), heldu bihurturik birjaiokoa da esperientzia horretatik. Oroimenaren ariketa ere bada, bestalde, baina zorionez oroi-

menak bere lana egiten duenean, nostalgia alde batera utzi du idazleak. Izan ere, lehenaldira begiratzean begien aurretik igarotzen zaiona ez da galdutako paradisu zoriontsua, baizik-eta geltoki bat, heldu bihurtzeko prozesu horretan. Protagonistak bere lekua

bilatzen du munduan, eta horren bidez azal daitezke nobela honetan gertatzen diren zenbait gauza, itxuraz kontrajarrira daudenak.

Bilaketa horretan bere identitatea topatu nahirik dabil protagonista, eta horrek taldearekiko loturak indartzera bultzatzen du. Identitatea besteekin konpartitu behar den zerbait baita, bakardadean amildu nahi ez bada. Baina protagonistak bere banakotasunaren sentimendua ere badu, pertsona berezia baita, besteengandik desberdintzen dena, eta behin baino gehiagotan salatzen da izaera berezi hori azpimarratzen. Nostalgia alde batera utzi du idazleak liburua honetan, baina baita ironia ere. Parisa doan gazte xaloarengana hurbiltzean, pertsonaia horren indarra

azpimarratzen da, ia miresmenez, babes gabe sentitu arren, Parisa joateko gai izan zelako. Idazleak erakutsi du helduentzako liburua interesgarriak idazteko gai dela, kasu honetan autobiografiak inposatzen duen ikuspuntu estuari gehiegi lotuta badago ere.



Eleberria

Mariasun Landa
Festa aldameneko gelan

Argitaletxea Erein
Donostia, 2007
Orrialdeak 144
Salneurria 15,50 €

Sadie Thompson

Parodia kritikoa

JAVIER ROJO

U rtero uzten digu bere literatura-lanen bat Itxaro Bordak. 2007. urtean 'Jalgi hadi plazara' izeneko nobelaren txanda izan zen. Ber-

tan kontatzen da detektibe pribatu batek nola ikertu behar duen Euskaltzaindiko kide baten desagertzea. Kontua da, hasierako egoerari erreparatuz gero, nobela parodiaren bideetatik abiatzen dela. Batetik, Euskaltzaindiko kide horrek, Gexan Hiriart apezak, seme bat du, eta semearen eskariz hasi da ikerketan detektibea. Abiapuntu horrekin, nekez saihets daiteke parodia egiteko aukera, batez ere, detektibe pribatuaren ezaugarrien artean, nobela beltzaren generoan ohikoak diren zenbait osagai agertzen direlarik: bakarrik bizi da, lan ziztrin batean aritzen da detektibela egiten ez duenean, porrot egindako amodiozko istorioren bat du atzean, ironikoa baino gehiago askotan jarrera zinikoa erakusten du... Baina Itxaro Bordak bi ezaugarri gaineratu dizkio pertsonala horri, azaleko toptikoen azpian bestelako zertzeladekin aberasten dutenak: detektibea emakumea da, eta lesbiana.

Bestalde, parodia egiten badu ere, esan behar da parodia hau ez dela planteatzen

barre egiteko beste ezertarako izango ez balitz bezala. Itxaro Bordak euskal gizartea ispilu desitxuratzaile baten aurrean jartzen du, ispilu horretan bere ezaugarriak nabarmen ikus ditzan. Gauzak honela, parodia kritikoa eta mingotsa da batzuetan Itxaro Bordarena.

Dudarik gabe, idazle trebea da, hizkuntza nahi bezala erabiltzen duen idazlea den aldetik. Baina trebetasun horretan bertan agertzen zaigu haren literaturak erakuts dezakeen oztoporik ikusgarriena, testuaren bikaintasun formalak haren literaturak gordetzen dituen bestelako balioak ezkuta bailitzake. Eta horri gaineratu behar zaio haren idazkeraren beste ezaugarri bat, zeren idazleak elipsiaren erabilera oso berezia egiten baitu, askotan gauzak adierazi baino iradoki egiten baititu. Irakurlearen lana da iradokizun horiek guztiak esanahiz betetzea, testua ulertuko badu.

Nobela honetan, idazlearen beste testu batzuetan bezala, galeraren sentimendua geratzen da agerian. Mundu bat, euskal mundu tradizionala, desagertzen ari da modernitatearen aurrean. Mundu tradizionala, ordea, haurtzaroko mundu zoriontsua da (galdutako paradisu bat, agian benetan inoiz existitu ez den paradisu), eta pertsonaia nagusiak modernitatean ezinbestez murgildu behar du, ordea.



Eleberria

Itxaro Borda
Jaldi hadi plazara

Argitaletxea Susa
Zarautz, 2007
Orrialdeak 226
Salneurria 15 €

Euskaraz ala gaztelera

Oroimena eta bizitza

JAVIER ROJO

I dazlanaz idazlan ari da erakusten Jokin Muñoz kontuan hartu beharreko idazlea dela, idazten dituen libururuak euskal literaturan aurki daitezkeen idazlanik hobereenen artean aurkitzen direla. Oraingo honetan, 'Antzararen bidea' izeneko nobelaren txanda izan da. Nobela honekin azken urte hauetako gai interesgarri eta batzuetan polemiko batekin bat egiten jakin du idazleak, besteak beste, oroimen historiakoaz ari baita.

Nobelan, bi hari narratibo desberdin aurki ditzakegu. Batean, Nafarroako herri batean bizi diren hiru gizonen ibilbidea kontatzen zaigu, gattetxoak direnetik 36ko Gerra Zibila heldu arte. Haien nortasunak oso desberdinak badira ere (idazleak ahalegin berezia egin du hiru pertsonaia horien itzaerak zeharo desberdintzen, batzuetan gehiegizko eran), adiskideak dira, eta, Gerra Zibila hastean, galtzaileen taldekoak izatea suertatu zaie. Ahoz aho, batzuetan beldurrez, kontaktu izan diren errepresio istorio horietako bat harilkatzen da pertsonaia hauen inguruan, oroimen historikoa berreskuratzeke ahaleginean plazaratzen dena. Ez da ahaztu behar, Nafarroan gerra ekintzarik edo gudurik egon ez bazen ere, milaka izan zirela errepresioagatik hil

ziren errepublikazaleak eta horrelako gertakariak ezkutatu izan direla luzaro, Nafarroan odola isuri izan ez balitz bezala. Beste aldetik, bigarren hari narratibo bat dugu, gaur egunean kokatua. Horretan, emakume baten eguneroko bizitza ikusten dugu. Semea

ETAko kidea du emakume horrek, eta erabiltzen ari zen lehegailuak eztanda egingo hila da. Emakumea konturatu da semea pertsona ezezaguna zela berarentzat. Bere bizitza aurrera eramaten saiatzen da emakumea, seme galduaren minak eta semeak agian eragin zezakeen minak eraso egiten diotela. Bi istorioek bat egiten dute argazki bati esker: Emakumea zaintzen ari den agurrearen etxean aurkitutako argazki batek agure horren herrira eramaten du, haren historia ezagutzeko asmoak bultzatuta. Oraingo Euskal Herria eta orduko Nafarroa, bi hari narratiboetako pertsonaiek bizi dituztenak eta gogoratzen dituztenak, malla desberdineko irakurketak eskaintzen dituen testu bate



Eleberria

Jokin Muñoz

Antzararen bidea**Argitaletxea** Alberdania

Irun, 2007

Orrialdeak 342**Salneurria** 19,50 €

an biltzen dira.

Nobela hau irakurtzean, besteen artean, honelako ideiarekin gera daiteke irakurlea: Oroimena berreskuratzeak, egia jakiteak agian ez ditu pertsonak zoriontsuago egingo (ezjakintasunean zoriona omen dago-eta), baina nahitaezkoa da zorrak kitatzea, aurrera jarraitu nahi bada.

Publikoaren arretaz

Hezurren aldarria

JAVIER ROJO

Noizean behin, gai edo kezka batek idazleen arreta erakartzen duela dirudi euskal literaturan. Bat-batean, idazle askori batera burura-

tzen zaie beren literaturara antzeko kontuak ekartzea. Halaxe gertatu zen indarkariarekin. Urte askoan isiltzen zen gaia izatetik idazle gehienek bere iritzia azaldu nahi zuten gaia izatera pasatu zen, tregua zela medio, egia esan. Eta estatistikekin hori ezin frogatu bada ere, «estatistika subjektiboak» (norberaren inpresioak, alegia) erakusten zuen gai hori literatur produkzioaren gunean zegoela. Indarkeria oraindik zeharo aienatu ez bazaigu ere, memoriaren gaiak hartu du haren txanda, gehienetan gai hori Gerra Zibilarekin eta bere ondorioekin lotuta agertzen delarik.

Iñigo Aranbarrik idatzitako 'Zulo bat uretan' izeneko nobela hau ildo horretan kokatu ahal dugu. Itoitzeko urtegia zela-eta, zenbait herri hustu behar izan ziren, eta, herriekin batera, kanposantuak ere. Kanposantueta dau den gorpuak jaso eta beste leku batera eramane behar dira, eta horretan ari dira nobela honetako pertsonaia batzuk: Maite antropologoa eta Oscar argentinarra. Eta horien lana eta horien lanaren ezusteko ondo-

ria kontakatu nahirik, Imanol kazetaria dugu nobela honetako narratzaile nagusia. Hasieran kanposantuan lurperatuta dauden hezurak identifikatu eta, ahal delarik, haien senideei eman behar dizkiete, beste lekuren batean atseden har dezaten. Baina kanposantuko hormetatik at dau-

den hezurren istorioarekin topatuko dira kasualitatez pertsonaiok. Eta hezur horiek gerra osteko mendeku baten historiara eramango dituzte, hezur horien memoria ere gordea izan behar baita. Hezurrek memoria aldarrikatzen dute, ahaztuak izan ez daitezten, haiek ere noizbait bizi izan zirenen azken aztarnak baitira. Eta aztarna horiek desagertuz gero, gerra ostean hil ziren pertsonaia horien memoria desegingo da, ezerezean amiltzeko, inoiz existitu izan ez balira bezala. Bitartean, urtegia beteko dute eta urak dena estaliko du, ahantzuraren metafora. Iñigo Aranbarrik intriga interesgarria erakiki du osagai horiekin, eta eskarmentudun idazleari

dagokion bezala, intriga ondo kontaktzen jakindu. Beste aldetik, aberatsa eta distiratsua da bere estiloa, baina irakurlea neka lezakeen barrokismora heldu gabe. Arrisku bakarra ikusi diot: irakurlearen batek, memoriaren gaiak nekatua duelarik, bazterrean uztea, merezi duen arreta eskaini gabe.



Eleberria

Iñigo Aranbarri
Zulo bat uretan

Argitaletxea Susa
Zarautz, 2008
Orrialdeak 198
Salneurria 14,50 €

Izendatzearen artea

Bakardadea Berlinen

JAVIER ROJO

Ez dakit literatur genero berri baten aurrean ote gauden, baina ematen du joera deitu genezakeen zerbaitek behintzat bere txokoa aurkitu duela euskal literaturan azken bolada honetan. Joera-edo honek ezaugarri markatuak dituela iruditzen zait. Idazleen ezaugarriei erreparatuz gero, ikusiko genuke joera horretan mugitzen diren idazleak emakumeak direla, 30 urte ingurukoak, eta askotan Euskal Herritik kanpora bizi direla edo bizi izan direla. Haien idazlanek antzeko ezaugarriak erakusten dituzte: Narrazioetan, pertsonen arteko harremanez aritzen dira, bikote-harremanez bereziki; bakardade sentimendua nagusi da haien idazlanetan, batez ere pertsonaiak deserrotuta daudela ematen baitu (berena ez den espazio batean daude, etxetik urrun, era xinplean esateko); eta hizkeraren aldetik, komunikabideetatik hurbil dauden hizkuntza laua erabiltzen dute, nabarmena izan nahi ez duen estiloa nagusi baita beraien idazlanetan. Ezaugarri hauek orokorrak dira eta, jakina, ez dute ezer adierazten idazlan bakoitzaren kalitateaz.

Hau guztia idatzi dut Irati Elorrietaren lehenengo liburua, 'Burbuilak' izenburuko narra-

zio bilduma hau, halako joera baten barruan kokatuta dagoela iruditu baitezait. Berlinen, beren mundua bilatzen duten pertsonaia batzuk aurkeztzen dizkigu idazleak bere narrazioetan. Hiria ia mitiko bihurturik ikusten dugu, hainbat naufragiotatik ihes egindako pertsonaiek leku horretan beren salbazio-irla aurkitu izan balute bezala. Hiria babesa da, baina, beste aldetik, arrotzak dira hirian. Ilusio-desilusio dialektikaren erdigunean kokatuta daude pertsonaia horiek, ametsak bizi, gauzatu nahi baitituzte, ametsarako leku handirik ez dagoen mundu batean. Giro horretan pertsonaien arteko harremanez hitz egiten zaigu narrazio hauetan, haiek lotzen dituzten hariez, bakardadetik ihes egiteko egiten dituzten ahaleginez. Liburu honetan agertzen diren narrazioak beregainak dira, baina pertsonaia errepikatzen dira, beraien arteko harremanen berri behin eta berriro ematen zaigularik, beraien egoeraren irudi osoago bat eskainiz. Atal bakoitza narrazio bat bada ere, nobela baten zatiak izango balira bezala ere irakur liteke liburua.

Joera baten barruan sartu daiteke liburua, baina, joera horretan, denetarik irakur dezakegu. Kasu honetan, liburu oso interesgarri baten aurrean gaudela iruditu zait, idazleak pertsonaien arimetan begiratu eta haiengan sakontzen jakin baitu.

Narrazioak



Irati Elorrieta
Burbuilak
 Argitaletxea
 Alberdania
 Irun, 2008
Orrialdeak 152
Sainneurria 16 euro

Makinaz jotako filmak

Eleberri perfektua

JAVIER ROJO

Pello Lizarralde euskal literaturan oso toki berezia merezi duela uste dut. Bere ibilbidea interesgarriena eta bat da, eta, lau bost urtean behin, narrazio-liburu bitxi bat eskaintzen die euskal irakurleei. Kasu honetan 'Iragaitzaz -ilunbistan-' izenburua duen nobelaren txanda izan da. Idazle honen literaturak oso markatuak eta bereberak diren ezaugarri eta oinarri batzuk dauzka. Presentean, lehenaldirik eta geroaldirik gabe, harrapatuta dagoen pertsonaia batek, kasu honetan kamioilari batek, bidaia bat egin behar du, bidaia arrunta, kamioilari bati dagokion lan-bidaia normala alegia. Argumentu txiki honekin Lizarralde oso estetika pertsonalean oinarritutako literatur lan miresgarria eraikitzeko gai da. Protagonistak, Martinek, kamioia daraman bitartean ikusiko du nola elurra ari duen zeharkatu behar duen paisaiaren gainean. Idazleak sentazioei ematen die garrantzi osoa, zer entzuten den, zer ikusten den kontatzen baitu xehetasun guztiekin. Bitartean, pertsonaiek ia ez dute elkarrekin hitz egiten.

Idazleak, bestalde, uko egiten dio pertsonaiek pentsatzen dutenaz ezer kontatzeari, pertso-

naien iraganaz ezer azaltzeari. Gauzak honela, gertakariak, guztiz arruntak edo egunero-koak badira ere, arrotzasun berezi batez horniturik agertuko zaizkigu, ia misterioz beterik egongo balira bezala. Elkarrizketa apur horiek eta gertakari arrunten kontaera zehatz horrek osatzen duten mosaikoa bete beharko du irakurleak, gertakarien eta hitzen atzean zentzuraren bat dagoela sinistu nahi baitu. Pello Lizarralde maisua da honelako giro arrotzak eraikitzen, eta ezaugarri honi gaineratu behar zaio erabiltzen duen literatur hizkuntza: uste dut euskal literaturan ez dagoela hainbeste zehaztasunez idazteko gaitasuna duen beste idazlerik. Izan ere, bere liburua arte-lanak dira eta horrelaxe hartu behar ditu irakurleak. Lizarralde ez du idazten denbora pasako istorio bat kontatzeko edota euskal literaturaren merkatu berezian salmenta izugarriak izateko. Irakurlearen aldetik jarra berezia eskatzen duen literatur lana da berea. Bestalde, planteamendu estetiko zehatz horietan bermatuta, idazleak giza existentziaren metafora ere eskaintzen du bere liburuan, pertsonaiaren bidaian (epikarik gabeko bidaia, bakardadean egindako bidaia) islaturik ikus baitezakegu gizakiaren bizitza.

Pello Lizarralde bere printzipioetatik inoiz aldentzen ez den liburu perfektua egin du.



Eleberria
Pello Lizarralde
Iragaitzaz-ilunbistan

Argitaletxeal: Erein Donostia, 2008
Orrialdeak 128
Sainneurria 15 euro



Krisiaren parodia

:: JAVIER ROJO

Oker ez banago Fermin Etxegoienek argitara ematen duen lehenengo nobela da 'Autokarabana'. Idazlea, edonola ere, ez da ezezaguna euskal kulturari, saiakera liburuaren bat eta komunikabideetako kolaborazioak plazaratu baititu orain arte. 'Autokarabana'n berrogei urteko krisian sartuta dagoen gizon baten atsekabeak eta gorabeherak kontatzen zaizkigu. Gizona helduaroan murgilduta dago eta konturatu gabe ikusi du gaztaroa dagoeneko atzean utzi duela eta aurrean aurkezten zaiona maldan beheara joate moduko bat baino ez dela. Alaba bat dauka, eta banatuta dago gizona, eta, kanpotik begiratuta behintzat, patetiko xamarra dirudi bere jokoerak. Pertsonaia konturatu da berrogei urte dituela eta bakarrik dagoela, bere inguruan jende asko badago ere. Bere gainean altxatzen den bakardade horren beldurrari aurka egiten saiatzen da, baina bere jokaera nerabe baten jokaeratik hurbilegi dago askotan. Beste aldetik, Deba Garaiko kooperatiba batean lan egiten du eta lantegia bere xixtrinkieritarako guda zelaia bihurtu du nahi gabe. Izan ere, bere bizitzan lan-harremanak eta harreman pertsonalak bereiztu gabe nahasten dira.

Nobela ironikoa da, batzuetan barregarria ere bai, eta etorkizunari begira ia proiekturik gabe krisian geratu den belaunaldi oso baten isla egin nahi izan duela esan daiteke. Horrexegatik, pertsonaiaren indibidualta-

sunetik harantzago joan nahi izan duelako, hainbat gauza nahasten dira nobela honetan, irudi topiko bat sortzeraino. Ohiturazko literatura moderno ('oraingo' esan nahi dut, bestela kontraesana baita) baten aurrean gaudela esan dezakegu. Pertsonaiaren gorabeheretan kooperatibaren inguruko istorioak, euskarari eta batez ere 'euskaingintza' deitu izan den horri buruzko komentarioak, alabarekiko eta alabaren amarekiko harremanak, bikote harremanak... gauza guztiek bat egiten dute oso markatuta ez dagoen argumetu baten azpian. Eta azken hau da, ziur aski, nobela honek duen ahuleziarik nabarmena: giroa, topikoa bada ere, oso ondo azaltzen da, baina argumetuaren hezurdu-

ra sendoa falta zaio liburuari; horrexegatik batzuetan errepikakorregia ematen du nobelak, gauza berberak behin eta berriro kontatzen ibiliko balitz bezala.

Oraingo euskaldun arrunt baten irudia eraiki nahi izan du idazleak, bere kontraesanak eta guzti, eta iruditutako zait idazleak bere buruari begiratu diola eredu bat bilatzeko. Beti da ariketa interesgarria autoparodia.



AUTOKARABANA

Egilea: Fermin Etxegoien.
Argitaletxea: Pamiela.
Nafarroa, 2009.
Salneurria: 12,50 euros.


 RAKURTZA
ATSEGNA

Mingostasuna ardatz

:: JAVIER ROJO

Zahartzaroan dagoen emakume bat leihotik begira dago. Eta leihotik begiratzen duen bitartean, kanpoko bizitza pasatzen ikusten du eta oroitzapenetan murgiltzen da. Halako egoera bat aurkezten zaigu 'Musika airean' izenburuarekin argitaratu den Karmele Jaioren nobela berri honetan. Karmele Jaio idazle trebea da bizipen bereziak dituzten belaunaldi bateko emakumeen bizitzak kontatzeko, ez baitu inolako ozeptorik bizitzan asko sufritzea tokatu zaien emakume horien sentimenduak eta pentsamenduak islatzeko orduan; hori bai, egoerak pixka bat sinplifikatuta. Nobela honetako protagonista, adibidez, bizitzaren azken aldean dago, eta, atzera begiratzen duenean, tristeziak beteriko mundu gris bat agertzen zaigu.

Mundu horrek mingostasuna zuen ardatz eta eginbeharraren eta, plazeraren artean hautatu behar zelarik, beti edozein hedonismo-mota alde batera utzi behar izaten zen. Guztiarekin haserre bizi da protagonista, eta semeak emakumeari lagun egiteko Hego Amerikako neska bat kontratatzen duenean, talka gertatzen da guztiz desberdinak diruditen bi jarreraren artean, emakumearen tristeziari eta isiltasunari Hego Amerikako neskaren alaitasuna eta zarata kontrajartzen baitzaizkie. Lehenengo momentutik, idazleak pertsonaiak elkarrengandik bereizten dituzten ezaugarriak oso nabarmenak izan daitezke nahi izan du, baina hori bakarrik lortzen da ezaugarri horiek exageratu egiten badira, eta batzuetan topiko samarrak gerta daitezke.

Testuan bi atal mota batzen dira. Alde batetik, emakume protagonistak lehenengo pertsonan ia-ia aitortpena bezala bere

bizitzaren berri emateko kontatzen dituenak agertzen dira. Bestetik, horren osagarri moduan, eta askotan emakumeak kontatzen duenari kontrapuntua jartzen diotelarik, elkarriketa zatiak eta beste pertsonaia batzuegan zentratuta kontatzen diren gertakariak ere agertzen zaizkigu. Aitorpen honetan emakumeak sekretu bat gordetzen duela azaltzen zaigu: bere gaztaroko adiskide batekin haserretzeko benetako arrazoia. Eta misterio hau ahal den neurrian liburuaren bukaeraraino gorde dadin, idazlearen eskua nabari daiteke pertsonaiaren narrazioan erdi ezkutuka sartzen, protagonistak eman behar zuen informazioa kontrolatzen.

Galtzear dagoen pertsonaia batzuen mundu-ikuskerara aurkezten zaigu nobela honetan, eta liburu interesgarria dela esan behar da, zenbaitetan, nire ustez, behar baino eskematikoagoa bada ere.



MUSIKA AIREAN

Egile: Karmele Jaio.
Eleberrirako argitaletxea: Elkar.
Donostia 2009. 164 orr. 14,50 euro.



Haluzinatuen mundua

de: JAVIER ROJO

Juan Kruz Igerabide ez da normalean helduentzako nobelen idazketan aritzen. Gazte literaturaren arloan egindako lanengatik ezaguna da, edota helduentzako saiakera eta olerkigintzan egindakoengatik. Helduen nobelak idazten, ordea, gutxitan ikusi dugu, eta azken arlo honetan berandu xamar hasia da. Izan ere, 'Elurra sutan' izeneko hau bere bigarren nobela baino ez da. Liburuan irakurri ahal dena kontuan hartuta testu hori nolabait definitu beharko balitz, nobela arraroa dela esango nuke. Argumentua nahikoa bitxia da, eta hor kontatzen direnak bertatik bertara ezagutu ez dituenak istorio guztiz sinestezina dela esango luke. Argumentua hiru pertsonaia nagusiren inguruan aritzen da: Kandido, euskal abertzale porrokatua; Sara, haren arreba; eta Ananda, Indiatic etorritako yoghi baten semea. Gertakariak jazotzen direneko garaia gehiegi zehazten ez bada ere, 70eko hamarkadaren inguruan koka daitezkeela dirudi, Francoren azken urteetan eta trantsizio garaiko lehenengoetan. Pertsonaia giro berezi batean mugitzen dira, beraien bizitzetan abertzaletasuna, yoga, ekialdeko jarrera mistikoak, ipuin miresgarrietatik aterata diruditen haluzinazioak, mendizaletasuna... batzen baitira nahasketa bitxi batean. Euskal Herria bezain leku kontraesanorra gutxitan aurki daiteke eta pertsonaia halako kontraesanen adibidetzat har ditzakegu. Kandido, ezker abertzalearen al-

dekoa da, ETak egindako sarraskiak batzuetan ez ditu ulertzen baina hala ere «beretarrak» direnez onartu egiten ditu istripuak izango balira bezala. Anandak euskal mistika harrigarri batean sinesten duelarik, mundua euskal enda garbi batez bete nahi du. Sarrarekin maiteminduta dago, eta Sara haren asmoetara makurtzen ez dela ikustean tratu txarren biktima bihurtzen du, hori bai, amodio guztiarekin eta jarrera bakezalearekin. Hauen inguruan beste pertsonaia batzuk agertzen dira, euskal fauna berezi hori osatzeko. Azken hauek abertzaleak direla esanda, nazien gustukoak izan litezkeen erokeriak edo ziztrinkeriak mistika esoterikoarekin mozzorrotzen dituzte.

Argumentua egiazkotzat hartzea zaila egin zait, eta nire ustez gauza horien aurrean jarrera ironikoa baizik ezin da eduki, istorio honetan tenplarioen edota kataroen ondorengoren bat bakarrik falta baita. Edonola ere Igerabidek oso idazle trebea dela erakusten du liburu honetan, kontamolde eta narratzailer mota desberdinen erabileran ikus daitezkeen bezala.



ELURRA SUTAN

Agile: Juan Kruz Igerabide, Eieberria, Argitaletxea: Alberdania, Irati, 2009. 208 orr. 16 euro

Haluzinatuen mundua



Beste oniritzia

:: JAVIER ROJO

Orain arte argitara eman dituen liburuetan Eider Rodriguezek erakutsi du azken urte hauetan gure artean agertu diren idazleen artean interesagarrienetako bat dela. Gizakien arteko harremanak izaten dira bere literaturarako lehengaia, eta sentimenduak atzemateko eta adierazteko abilezia ez zaiola falta begi-bistakoa da. Bide honetatik jarraituta, aurten beste liburu bat argitaratu du, 'Katu jandea' izenburukoa, zazpi narrazio biltzen dituena. Hemen ere gizakien arteko harremanak agertzen zaizkigu narrazioen erdigunetan, eta harreman hauen inguruan biltzen dira narrazioetan agertzen diren bestelako osagaiak. Eider Rodriguezen istorioetan harreman hauek ez dira batere errazak. Pertsonaiak elkarren arteko lehia ikusten ditugu, baren zorionak bestearen atsekabea inplikatu balu bezala, harremanetan ezinbestez irabazleak eta galtzaileak egon beharko balira bezala. Gailentzen ikusten dugun sentimendua desilusia da, pertsonaia gehienentzat zoriontasuna ezin bete

daitekeen ametsa dela ematen du-eta. Noizean behin, gainera, desilusio honek aukera galduekin zerikusia du. Izan ere, batzuetan pertsonaiei bigarren aukera moduko bat aurkezten zaie, baina ematen du, desilusioan ohituta, ez direla gai bigarren

aukera hori identifikatzeko eta joaten uzten diote.

Beste aldetik, nabarmena da narrazio hauetako pertsonaia askorentzat zein garrantzitsua den besteek nola ikusten dituzten. Askotan pertsonaiok erakusketa baten objektuak balira bezala aurkezten dira, besteen oniritzia bilatzen duten bitartean. Edonola ere, harremanok beti oreka zailean ikusten ditugu, edozein momentutan apurtzeko zorian, oztoporik txikiak tragediaren pertsonalari bidea ematen diolarik.

Esan behar da, baita ere, idazleak narrazio-ekonomiari men egiten diola. Narrazio

laburrak izanik, ez du denbora askorik hartzen egoerak garatzeko, baina arazoa zera da: badirudi, sinplifikatu behar horretan, batzuetan topikoetara gehiegi lerratzen dela, eta ondorioz egoerak oso eskemati-koak suerta daitezkeela.



KATU JANDEA

Egile: Eider Rodriguez.
Narratioak.
Argitaletxea: Elkar. 160 orr. Donostia, 2010.
Sainneurria: 14,80 euro



Grina etsituak

:: JAVIER ROJO

Azken urte hauetan narratibaren alorrean beste garai batekoa zirudien fenomeno bat berritzen ari zaigula ematen du. Izan ere, euskal literaturan denbora luzean bazterrean gelditu ondoren, narratiba laburrak berriro indarra hartu du. Salbuespenak alde batera utzita, batzuetan ematen du idazle asko agian ez direla gai sentitzen idazlan luzeagoei ekiteko eta horren ondorioz-edo halako narratibaren birlomatzea daukagu begi aurrean. Ildo horretan kokatu liteke Xabier Montoiaren liburu hau, 'Fucking Artists' izenburua duena. Gustuak gustu, idazlearen alde esan behar da inoiz ez dela ibili euskal merkatu bitxiaren mendekotasunak mugatua. Dagoeneko ibilbide luzea egin du eta, inoiz ospearen lehenengo lerroan egon ez bada ere, noizean behin plazaratzen dituen liburuek beti zerbait eskaintzen diote irakurleari. Honez gainera, arazo nabarmenik gabe jakin du idazle heldua bihurtzen eta bere idazlanetan bilakaera honen emaitza ikus dezakegu.

Liburu honetan hamar narrazio biltzen zaizkigu. Errealismoaren parametroetan ulerter behar diren narrazioak dira. Edonola ere,



FUCKING ARTISTS

Egile: Xabier Montoia
Narrazioak.
Argitaletxea: Elkar.
256 orr. Sainneurria:
20 euro

argumentuaren eta teknikaren aldetik narrazio hauek ez dute beraien artean zerkusi handirik. Hirugarren pertsonan idatzitako narrazioen ondoan, pertsonaiaren baten ikuspuntutik lehenengo pertsonan kontatutakoak agertzen zaizkigu. Baten batean, abokatu bati egindako adierazpen neurotikoa irudikatzen da, pertsonaia batek aitortpen tormentatu eta mingotsa egiten duelarik. Argumentuetan ere oso desberdinak dira narrazioak: amodio eta sexu istorioak ditugu batzuk; beste batean, adibidez, obsesio bihurtu den musikari misteriot-

su baten bila dabilen ikertzaillearen kontaktarekin egiten dugu topo. Idazleak halako aniztasun baten bidez bizitzan aurki dezakegun aniztasunaren adibidea eskaintzen digu. Baina kontaktzen diren istorioak ez dira istorio hutsak. Beste zerbait badute. Grinaren sentimendua agertzen zaigu liburu honetan, batzuetan ezkutuan, besteetan lehertzen, pertsonaien bizitzetan zirt edo zart egiteko momentu epifaniko batzuen aurrean aurkituko bagina bezala. Eta grinarekin batera, etsipen moduko bat, grinarik gabe bizitzea ezinezkoa delarik grina bera minaren sorburua baita.



Sentsazioak

:: JAVIER ROJO

Ez dago dudarik Pello Lizarraldeki toki berezia merezi duela euskal literaturan. Orain arte argitara eman dituen narrazio-liburuei esker literatur ibilbide sendoa egin du eta bere idazlanek berezkoa eta berea den literatur molde baten adibideak eskaintzen dituzte. Oraingoan 'Orbanak' izenburua duen nobela argitaratu du. Hemen ere aurki ditzake irakurleak aurreko liburuetan ohikoak zituen osagaiak, idazlearen literatur mundu pertsonala osatzen dutenak, baina osagaiok idazlearen ibilbidearen berri duen irakurleari ezagunak gertatzen bazaizkio ere, horrek ez du esan nahi interes txikiagoko idazlan baten aurrean gaudenik. Basoan agertu den emakume baten gorpua; ihesean dabilela dirudien gizon orbanduna; udaletxean denetarik lanak egitera ohituta dagoen aguazila; eta naturaleza, gertakarien markoa izateaz gain, pertsonaia baten indarrarekin bere presentzia nonahi inposatzen duena: osagai horiekin idazleak narrazio mirezgarria osatzea lortu du. Kontakizuna bi planotan, bi mailatan gertatzen da. Alde batetik, ihesean dabilen orbandunarengan zentratuta dauden atalak ageri dira, non naturalezaren presentzia horrek era itogarrian dena estutzen duen. Lizarralderen literaturan askotan gertatzen den bezala, atal hauetan kontatera objektiboa nabarmentzen da eta zentzumenez izugarriko garrantzia hartzen dute. Sentimenduak, ordea, alde batera uzten dira, irakurlearen interpretaziopean. Hirugarren pertsona kontakutako atal hauen ondoan, aguazilaren narrazioa ageri zaigu, lehenengo pertsonan, subjektiboa.

Atalak tartekatuta egiten dira liburuan, bi




ORBANAK

Egile: Pello Lizarralde.
Eleberria.
Argitaletxea:
Erein, 144 orr.
Donostia, 2012.
Salneurria: 16 euro

narrazio maila horiek txirikordatuz. Eta iheslaria eta aguazila naturalezak menperatzen duen mundu basa horretan elkarrengandik gero eta hurbilago daudelarik, ehizaki eta ehiztari bihurtuko zaizkigu. Intriga dago nobelan, baina jakin-mina pizten duen intriga hori idazlearen mundu pertsonala erakusten duen nobela-diskurtsoa egiteko abiapuntua da, eta azkenean irakurlearen esku geldituko da intriga horri amaiera ematea, hala egin nahi badu behintzat.

Edonola ere, irakurlea sentsazioen kontakizun batean murgilduko da liburu honi esker, eta, argumentuaren saretik askatu eta aurreiritziak alde batera utzita, literatura-aren plazera (kontaeraren magia, hitzaren lilura) topatuko du bertan. Orbanak izenburuko nobela honekin Pello Lizarraldeki berriro ere idazle bikaina dela erakutsi du, gure artean dagoen interesgarrietakoa.



Ikertzaile berezia

:: JAVIER ROJO

Amaia Ezpeldoik protagonizatzen duen beste nobela bat plazaratu du Itxaro Bordak. 'Boga boga' izenburua du liburu honek eta, protagonista hori agertzen den beste idazlanetan bezala, idazleak nobela beltzeko generoa erabili du abiapuntu moduan generoarekin zerikusirik ez duen beste zerbait eskaintzeko. Hasteko, protagonista berezia da, generoaren kanonarekin konparatuz gero: ikertzaile afizionatua da Amaia Ezpeldoik hori, gure arteko nobela beltz askotan gertatu ohi den bezala, baina kasu honetan, pertsonaia nahita sartzen da ikerketan, jakinaren gainean eta ez halabarrez; bestalde, lanbidez zabor biltzailea da, eta ez da batere zaila lanbide honetan nolabaiteko esanahi sinbolikoa aurkitzea, zeren pertsonaiak gizartearen barne zaborra ere aurkitzen baitu ikerketak egiten dituenean; eta bere identitatea osatzeko, emakume hau euskalduna eta lesbiana da.

Gauzak honela, liburuak itxuraz nobela beltzaren berridazketa ematen duen arren, zerbait gehiago da, eta nago gehien nabarmentzen diren osagaien artean identitateari buruzko hausnarketa bat dagoela. Liburuaren lehenengo pertsonan kontatuta dago, eta jakina, protagonistaren ikuspuntua agertzen da horretan. Eta protagonista euskalduna eta lesbiana izanik, liburuan izaera horri berebiziko garrantzia ematen zaio. Behin eta berrito aipatzen dira euskaldunen gaineko topikoak, eta behin baino gehiagotan era ironikoan aipatu ere, ezau-



BOGA, BOGA

Egile: Itxaro Borda. Eleberria.
Argitaletxea: Susa. 224 orr.
Zarautz, 2012.
Sainurria: 18 euro

garriak exageratuz. Alde horretatik begiraruta, liburuak askotan parodiaren mugan jartzen du euskaltasuna. Baina begirada parodiko horrekin Itxaro Bordak ez du inor mindu nahi, beti ere parodiaren atzean xamurtasun punttu bat aurki baitezakegu. Pertsonaiari kanpotik datorkion identitatearen ezaugarri honen parean, bere barnetik sortzen den identitatearen bigarren ezaugarria, lesbianismoa, nabarmentzen da, gizakiaren identitatea zerbait konplexua dela erakutsiz, atal desberdinez eraikita baitaigo.

Argumentua, bestalde, nobela beltz bati dagokionez, ikerketa baten inguruan gauzatzen da. Kasu honetan hogeita bost urte lehenago desagertutako emakume baten bilaketa da ardatza, eta ikerketa horrek aukera ematen du Euskal Herriko errealtate konplexuaz ere hitz egiteko.

Hegoaldeko irakurleentzat idazkera pixka bat zaila izan daiteke batzuetan, baina ahalgina egiten badute (irakurleek ere zerbait jarri behar dute beren aldetik), nobela benetan interesgarri baten aurrean daukela konturatuko dira.



Adiskide arriskutsuak

:: JAVIER ROJO

Juan Kruz Igerabideren idazlan guztietan, xumeak diruditen horietan ere, zerbait berezia eskaintzen zaio irakurleari. 'Motoa' izenburuko nobela honetan bezala. Itxuraz istorio sinplea da, neurri batean irakurle nerabeentzat pentsatutako idazlana. Ohiko narrazioen bideetatik abiatzen da liburua, teknikari erreparatuz gero: hirugarren pertsona kontakutako istorioa; lehenaldian agertzen dira azalduta gertakariak; narratzaile oroja-kileak pertsonaia nagusiarengan fokalizatzen du informazioa; denboraren trataeran ez da bitxikeria handirik agertzen, denbora jauziak pertsonaiek oroitzuten dituztenekin erlazionatuta baitaude... Bestalde, lehen momentutik harrapatu nahi du irakurlearen arreta eta horretarako sarrera handirik gabe pertsonaien aurkezpen zuzena egiten du gertakarien bidez. Protagonista hamabost urteko nerabea da, Igor. Nahiko nerabe topikoa dirudi, berearengan nerabeek izaten dituzten ezaugarriak biltzen baitira. Izan ere, hitz gutxikoa da, isila eta lotsati xamarra. Pixka bat motela besteekiko tratuan, baina baztertuta egotera heldu gabe. Istripu batengatik arazo fisikoa dauka beso batean, baina hau ez da eragozpena motoa

gidatzeko duen abildaderako. Arazoak dituen familia batean bizi da, amak etxetik alde egin eta arazo ekonomikoak baitituzte. Edonola ere, familia kontu honetan ez da gehiegi sakontzen eta horri buruzko informazioa poliki-poliki helduko zaigu, pertsonaiak berak ez baitauka arazo guztien berri. Ezusteko gertakari bat dela-eta, Igorrek adiskide berriak egingo ditu eta, besteak beste, neska lilugarri bat ezagutuko du, printzesatxo erakargarria. Igor baino zaharragoak

diren adiskide hauei esker, ezagutzen ez duen mundu ilun batean sartuko da, drogak-eta tartean daudelarik, eta mundu horretan printzesatxoa lamia bihurtuko zaio. Usteltzailearen eta gizajaren arteko joko baten aurrean gaude, baina Igor konturatuko da adiskidetzat dauzkan horiek engainatu nahi dutela eta mundu horretatik ateratzeko erabakia hartuko du.

Nobela, gazteei zuzenduta egon arren, errealismo zikinaren bideetatik mugitzen dela esan daiteke, baina hondamendira eramanez dezaketen adiskide horiengandik askatzerakoan aldaketa nabarmena ikus dezakegu: idazleak istorioak amaiera ona izan dezan ahalegina egiten du, gertakarien logikak beste norabide batetik jotzen zuelarik.



MOTOA

Egile: Juan Kruz Igerabide.
Eieberria.
Argitaletxea:
Alberdania, 104
orr. Irun, 2012.
Sainearria: 13, 20
euro



Umorea eta absurdoa

✻ JAVIER ROJO

Karlos Linazasorok bere umore bereziaren erakusketa egiten du 'Bertan goxo' izenburua duena nobela labur honetan. Itxuraz, gazteei zuzendutako liburua da eta bertan agertzen dena gainera irakurrita, umore absurdoaren adibide xumea dela pentsa liteke. Baina bada-kizue, umorea oso gauza serioa da, eta kome-nigarria da nola funtzionatzen den ikustea. Nobelaren argumentuaren abiapuntua ez-ohikoa da, heriotzaren tabuaren gainean erai-kita baitago. Izan ere, narratzaileak, hamar urteko neskatok batek, kontatzen du nola bere aitak eta honen bazkideek beilatoki bat inau-guratuko duten; honetarako festa moduko bat antolatuko dute eta gonbidatuen artean herriko «indar biziak» (barkatu txiste txarra), hainbat jubilatua eta neskatokaren ikaskide bat-zuk daude. Egoerak, beraz, absurdoa dirudi hasieran, ez-ohikoa behintzat, eta hasierako egoera horretan kontrajarrita agertzen diren osagaietan nobela honek islatzen duen umorearen lehenengo aztarnak ikus ditzakegu. Lehenengoa negozio mota bera da, negozio

horrek aurrera egingo badu, jendeak hil egin behar baitu, derrigorrez. Bigarrena inaugura-zio ekitaldia litzateke, festa moduko bat (alai-tasuna eta poza suposatzen baitzaizkio) anto-latzen baitute. Hirugarrena, gonbidatuak: al-derdi guztietako ordezkariak (heriotza guztiz demokratikoa baita eta bere barruan denak hartzen baititu inolako diskriminaziorik egin gabe).

Inaugurazio ekitaldia egi-ten dutelarik, argindarra joaten zaie eta denak giltza-petuta geratzen dira, Bu-ñuelen filma gogoratzen duen egoera bat sortuz. Eta hor dauden bitartean pertsonaiak hitz egin eta hitz egin aritzen dira, eten gabe, halako moduan non narratzailearen orde-z antzerkiaren itxura hartzen baitu idazlanak. Eta hitz egi-ten duten bitartean, guztiz serioa izan nahi duen diskurtsoa plazaratzen dute, edozein gairi buruz hitz eginez, konturatu gabe diskurtso serio horrek ez duela lekurik halako egoeran. Eta horixe da, bai, absur-doaren funtsa.



BERTAN GOXO

Egilea: Carlos Linazasoro.
Eieberria.
Elkar argitaletxea.
99 orrialde.
10,25 euro.



Krisi pertsonalak

:: JAVIER ROJO

Karmele Jaio mendearekin batera sartu da euskal literaturan, eta, bere ibilbidea ikusita, XXI. mende hasiera honetako euskal idazlerik arrakastatsuenetakoa bat dela esan behar. Narratibaren alorrean, bai nobelak bai ipuin liburuak plazaratu ditu. 'Ez naiz ni' izenburua duen hau bigarren multzoari dagokio. Guztira hamabi ipuin agertzen dira liburu horretan eta aldez edo moldez giro berberaren ondorio dira. Izan ere, ipuin horietako protagonistak (ia beti emakumeak) 40 urteetako krisialdia dei litekeen horretan murgilduta daude. Lan eta familia aldetik bizimodu egonkorra dute pertsonaiok, eta, ikuspuntu horretatik, bizitzan planteatuta zeuzkaten helburuak neurri batean lortu dituztela ematen du. Baina hori ez da nahikoa, beraien bizitzetan hutsune nabarmenak agertzen dira-eta.

Gauzak honela, aipagarria da ipuinetan pertsonaien lanbideez eta egoera ekonomikoaz islatzen den informazioa: bikote gehienetan biek egiten dute lan; askotan pertso-

naiak literaturarekin zerikusia duten lanbideak dituzte edota funtzionarioak dira; eta ipuin askotan etxez aldatzen dira, baina aldaketa honek ez die inolako buruhausterik sortzen ekonomiaren aldetik. Labur esanda, pertsonaiak gure inguruko errealitatean kokatzen direla ematen du, baina errealitate horren ezaugarririk nabarmenenetakoa den krisi ekonomikoak ez ditu ukitzen eta ez du ia aztarnarik uzten Jaioren ipuinetan islatzen den munduan. Pertsonaiok beren alienazio partikularrekin bizitzearekin nahikoa baitute, bizitza besteen arabera antolatu behar duten birtartean.

Liburu hau emakume baten eskutik dator kigu, eta ez dakit ezaugarri hau ez ote den estrategia komertzial bati loturik ikusi behar. Hau da, honelako liburuak euskal irakurleen neurriko 'chick lit' bat sortzeko ahaleginaren ondorioak ez ote diren.



EZ NAIZ NI

Egilea: Karmele Jaio
Generoa: Narrazioak
Argitaletxea: Elkar.
Donostia, 2012.
Orrialdeak: 184
Prezioa: 16,40 euro



Identitateaz

:: JAVIER ROJO

Batzuetan iruditzen zait euskal literatura gehiegi mugitzen dela modaren haizeek bultzatuta. Ziklikoki-edo, gai batzuek hartzen dute garrantzia eta ematen du idazleak halako gaiak erabiltzera behartuta sentitzen direla. Azken urteotan gertatzen ari dena kontuan hartuta, kontura gaitezke nola Gerra Zibilean erbesteratuak izan ziren haurren istorioek leku berezi bat aurkitu duten gure literaturan. Gogoratu bestela iaz zer gertatu zen Kirmen Uriberen 'Mussche' izenburuko nobelarekin. Garazi Goiak ere halako haurren istorioa berreskuratzen du 'Txartel bat (des)herrira' izenburuarekin argitaratu den nobela honetarako. Hil arte beti 'gerrako haurrak' izango diren oroimena da nobela honetako ardatzetako bat, bakarra ez ordea. Hasieratik bertatik argumentua paraleloan eraikitzen diren bi bizitzaren inguruan biltzen da. Alde batetik, 'gerrako haurra' daukagu, Peru. Pertsonaia hau umetan Ingalaterrara eramán zuten, baina bertan zegoen familiaren zirkunstantzia berziek galarazi zuten bere garaian bueltat-

zea, eta Ingalaterran bizitzen geratu behar izan zuen. Pertsonaia deserrotuta sentitzen da. Paraleloan Ibairen bizitza daukagu. Honek arazo pertsonal batengatik (auto istripu batengatik eta batez ere honen inguruan iradokitzen den egoera bereziagatik), Euskal Herriatik aldentzea erabaki du. Bien hariiek bat egiten duten Ingalaterran. Bata atzera begira bizi da, oroimenean katigaturik. Besteari oroimenik ez edukitzea gustatuko litzaioke, etorkizuna inolako aingurarik gabe hutsetik planteatu ahal izateko.

Aitortu behar dut, nobelaren barruko edo argumentuaren araberako logikatik begiratuta, ez dudala askotan ulertzen pertsonaiek zergatik egiten duten egiten dutena, haien motibazioa nobelatik kanpo kokatu ezean. Izan ere, kanpoko indar bategen (agian idazlearen biografiak azalduko lukeenak) pertsonaien gorabeherak kontrolatzen ditu.



TXARTEL BAT (DES)HERRIRA
Egilea: Garazi Goia
Generoa: Eleberria
Argitaletxea: Elkar.
Orrialdeak: 188.
Prezioa: 16,40 euro



Inurriez eta gizakiez

■ JAVIER ROJO

Mariasun Landa aurkezpenik behar ez duten idazle horietako bat da. Eta esaldi hau askotan erretorika hutsa bada ere, kasu honetan errealitatearen islatzat har dezakegu. Haur eta gazte literaturak inposatzen dizkion mugak gainditu nahirik, azken urte hauetan helduentzako liburuak egitea ere erabaki du. Eta halaxe aurkezten da 'Inurrien hiztegia' izenburua daraman idazlan hau. Hiztegiengan agertzen den ordena alfabetikoari jarraituz, idazleak narrazio laburren bilduma eskaintzen du. Izenak izen, Espainiako testuinguru kulturallean 'microrrelato' deitu izan direnek osatzen dute, beraz, liburu hau. Liburuaren hasieran, bestalde, printzipioen aldarrikapena dugu, txikitasunaren, apaltasunaren goraipamena egiten baita bertan... euskal literaturan askotan agertzen zaigun jarrera, bide batez esanda.

Bertan azaltzen denaren jatorria argi da-goela iruditzen zait, azken finean txitxararren eta inurrien alegian kontatzen denari buelta ematen zaio-eta. Fabula klasikoan, inurriek jokaera zuhurraren eredia eskaint-

zen zuten, baina hemen inurriek eta inurri-tegiak erakusten diguten munduak gizakien harremanetan eta gizartearen gertatzen denaren ispilua osatzen du. Alegia klasikoaren ifrentzua, beraz. Mariasun Landa haur eta gazte literaturan aritu ohi da, eta, helduentzat idazten duenean ere, badirudi ezin izan duela literatura mota horrekiko lotura guztiz eten. Bertan agertzen den ikuspuntua, ordea, ez da fabuletan agertzen dena, 'Inurrien hiztegia'n ironia baita nagusi, non ez den sarkasmoa. Ikuspuntu ezkorra erakusten du idazleak, inurrien neurriko gure mundu honetako mixeriak kontatzerakoan gizabanakoaren eta gizartearen arteko tirabiran gizabanakoa beti ateratzen baita galtzaila.

Liburuak hitzaurrea du eta gibel-solas bat ere bai, liburu bera nolabait justifikatu beharko balitz bezala. 'Excusatio non petita' baten itxura handia hartu diot azken azalpen honi.



INURRIEN HIZTEGIA

Egilea: Mariasun Landa. **Generoa:** Narrazioak
Argitaletxea: Pamiela. **Orrialdeak:** 128. **Prezioa:** 12 euro

Unión de historia y leyenda

Bestearen begietatik

■ JAVIER ROJO

Ziur aski Jon Arretxe ez da inoiz euskal literaturaren urrezko orrialdeetan agertuko, besteak beste ziur aski euskal literaturan urrezko orrialderik ere ez baitago, edota urrezkotzat hartzen ditugun orrialde horiek ez baitira hain urre bizikoak. Edonola ere, iruditzen zait Jon Arretxe urratsez urrats eta bere lekua zein den oso ondo jakinda, ibilbide gero eta interesgarriagoa egiten ari dela. Nerabe-zaroa atzean utzi nahi ez zuten helduen neurriko istorioak eginez egin zen ezaguna, baina horrez gainera bidaia liburu interesgarriak ere plazaratu ditu. Eta azken urte hauetan, nobelagintza beltzaren bideetatik abiatu da. Euskal Herrian kokatzen diren nobela beltz askotan sinisgarritasunaren arazoarekin egiten dugu topo. Izan ere, askotan idazleek oso presente dauzkate eredu klasikoak (denok dakizkigun izen horiek: Chandler, Hammett), eta eredu klasiko horiek gehiegi errespetatuz argumentuek behar-tuegiak dirudite Euskal Herria bezalako komunitate txiki batean behar bezala funtzionatzeko. Arretxek, ordea, nobela beltzak egiten dituenean, eredu horiek gainditu egiten ditu. Hasteko, Euskal

Herrian aurkitzen diren marjinalitate esparruetan kokatzen ditu argumentuak, '612 euro' deitzen den nobela honen kasuan, Bilboko San Frantzisko auzo beltzean.

Ikertzaile bat daukagu hemen, baina ikertzailea Toure izeneko etorkin afrikarra da, ikerketaren eta engainuaren artean mugitzen den pertsonaia marjinatua, Afrikako pobreziatik ihes eginez lehenengo mundu aberasaren bazterrean bizirautea beste helbururik ez duen pertsonaia. Legearen ertzean kokatzen diren trapitxeoekin ez bada, itxuraz garrantzi handirik ez dauka-

ten ikerketak saiatzen da aurrera ateratzen pertsonaia hau, eta idazleak haren gorabeherak kontatzen dituenean pikareska gogorra ekartzen duen mundu baten berri eskaintzen digu. Izan ere, idazleak 'besteak' jartzen ditu erdigunean, eta besteak subjektu bihurtzerakoan, ia ikusezinak diren beste horiek lehenengo pertsonan hitz egiten dutenean, gu haien begietan 'beste' bihurturik agertzen gara, eta mundua erlatibizatu egiten da. Argumentua, bestaldekik, dibertigarria da eta zalu kontatuta dago, umorea baztertu gabe, umorea askotan garratza bada ere, inguruan beti marjinalitatearen tragedia baitago presente.

612 EURO
JON ARRETXE

Generoa: Eleberria. **Argitaletxea:** Erein.
Orrialdeak: 256 **Prezioa:** 19,20 euro



Complando el azar

Existenziaren metafora

■ JAVIER ROJO

Arrazoi praktikoengatik eman dezagun Karlos Linazasororen eskuatik datorrigun 'Versus' izenburuko liburu hau nobela bat dela. Liburuaren solapan liburu hau Linazasorok helduentzat idazten duen bigarren nobelatzat hartzen da, behintzat. Eta, jakina, liburuaren azpititulua ere hor dago: idazleak «Naufrago baten nobela» hitzekin definitzen baitu bertan egiten duena. Idazlan honetan naufrago bat dugu, Versus izenekoa, irla galdu batean hainbat eta hainbat urte daramatzana. Irla biñeta komikoetan agertzen den irla topikoa da, erdian palmera eta guzti duena. Eta Versusek itsasoak itzultzen dizkion gauzei esker bizirautea lortu du, mundua ordenatzen saiatzen den bitartean.

Baina liburu honetan ez da naufrago horren bizitza bakarrik kontatzen. Liburu osatzeko idazleak 99 atal labur aurkezten ditu, eta bertan pentsakizunak, egoera absurdoak, bizitzari buruzko hausnarketak... aurki ditzakegu, Linazasororen literatura ezagutzen dutenek berehala identifikatuko dituzten osagaiak. Gogoratu behar dugu Linazasorok 'literatureria'

dei litekeen gaixotasuna duela, berak mundua batik bat literatura-
ren arabera ulertzen duela, mundua idatzita dagoen neurrian, alegia. Gauzak honela, idazlea idaztera behartuta dagoela dirudi, mundua desegingo ez bada. Liburuak aurkezten duen egoera horretan giza existenziaren metafora bat dago. Versus pertsonaiaren egoerak absurdoa dirudi: 50 metro koa-
droko irla topiko batean dago bizirautean, guztiz bakarrik, zentzurik gabeko hausnarketak eginez, denbora pasatzen den bitartean, handik aterako duen zerbait itxaroten duen bitartean.



Eta puntu honetan, Godot gogoratu daiteke, liburuaren bertan aipatzen da-eta, edota Julio Cortázar-en 'Los premios' ere bai, idazlanak batzuetan 'Historias de Cronopios y Famas' ekartzen baitu gogora. Istorio absurdo hau kontatzean, gizakien

bizitza inguratzen duen absurdoa begi bistan jartzen digu idazleak, bizitzaren azken helburua heriotza delarik. Eta bitartean literatura daukagu, literaturak bizitza absurdo horrek zentzuren bat eduki lezakeelako irudikapena amesten laguntzen baitigu, munduan ordena bat balego bezala.

VERSUS
KARLOS LINAZASORO

Generoa: Eleberria. **Argitaletxea:** Elkar. **Orrialdeak:** 108 **Prezioa:** 12,25 euro




Galtzaileen memoria

:: JAVIER ROJO

Gerra Zibilaren ingurukoak kontatzea literaturan gure artean aurki daitezkeen korrontetik inportanteenetako bat bihurtu da azken urte hauetan. Garbiñe Ubedak 'Hobe isilik' izenburua duen bere lehenengo nobela honetan bide horretatik jotzen du. 'Hobe isilik' lehenengo nobela badu ere, horrek ez du esan nahi idazleak ez duenik idazketan eskarmenturik, kazetaritza lanetan aritzen baita eta kronika eta saiakeraren arloan koka daitezkeen liburu eman baititu argitara. Baina kazetaritza datorren arren, esan behar da beste idazle batzuek ez bezala Garbiñe Ubedak idazketa estiloan ere jartzen duela arreta. Nobela honetan lehenengo pertsona hitz egiten digun pertsonaia-narratzailea bere aitonaaren irudiaren bila abiatzen da. Berak ez zuen ezagutu. Gerra Zibilean galtzaileen alderdian aritu ondoren (anarkista zen aitona), Frantziara pasatu zen eta han galtzen dira bere aztarnak. Izeba batek gordetako eskutitz batzuk dira aitonaaren bizitza berreikitzin hasteko dauzkan osagaiak eta haietan oinarritzen da bere bilaketan aritzeko.

Honen jardunak ikusgarriak izan daitezkeen bi ezaugarri dauzka, bata, kontamoldeari begira eta bestea, haren motibazioak azaltzeko-edo balio duena. Izan ere, narratzaileak aitonaaren irudia eraikitzen duen bitartean bere gainean sortu duen irudiarekin dago hizketan, aurrean izango balu bezala. Bestalde, motibazioa dago: osagai misteriot-su bat agertzen zaigu, narratzailea aitonaaren aztarnen atzetik ibiltzera bultzatzen duena... odolaren deia, nolabait esateko. Eta honelako narrazioetan gertatzen den bezala, familian gordetzen diren sekretuekin egiten dugu topo, aurreko belaunaldiak gordeta eduki nahi zituztenak azaleratzen baitira.

Galtzaileen memoria eraiki nahi du idazleak eta dudarik gabe 'Hobe isilik' gusura irakurtzen da. Arrisku bakarra du: Gaia gehiegi erabili delarik, irakurlea dagoeneko nekatuta aurkitzearena.



HOBE ISILIK

Egilea: Garbiñe Ubeda
Generoa: Eleberria
Argitaletxea: Elkar
Orrialdeak: 132
Precioa: 14,90 euro



Eleberriaren sukaldea

:: JAVIER ROJO

Idazlan batzuek bere testutasunetik harantzago hedatzen den garrantzia erakusten dute, idazlan horiek literaturaren sotoetan zer gertatzen den erakusten baitute (askotan plaza-ratzen ez den gauza). Horixe izan da burura etorri zaidan lehenengo pentsamendua Yolanda Arrietaren 'Argiaren alaba' izenburuko nobela hau eskuartean hartu dudanean: izan ere, zer dela-eta ez da plazaratu liburu hau argitaletxe konbentzional batean autoedizioa jo beharrean? Argumentuaren abiapuntuan izaba-iloba batzuek egiten duten bidaia dugu. Bidaia horrek Mirari deitzen den iloba, 17 urteko gaztetxoa, bere arbasoen lurraldera eramango du Bizenta Mogel idazle klasikoaren aztarnen bila. Eta izebaren eskutik idazle horren bila dabilerarik, hari buruzko liburu bat idatziko du, non Bizenta Mogelen aztarnen bila egindako bidaia kontatzen den... Metafikzio historiografikoaren kasu baten aurrean gaude, beraz. Liburuan, Bizenta Mogelen aztarnen bila egiten dituzten ahaleginak, espekulazioak eta abar kontatzen dira, idazle klasikoaren bizitzarekin nahasita, bi menderen arteko jauziak eginez behin eta berriro.

Liburua hainbat arrazoiengatik da interesgarria. Lehenengo eta behin, metafikzioaren alorrera hurbiltzen delarik, literatura egiteko prozedurak nabarmendu egiten dizkigu. Nobela bat idazteko sukaldea erakusten digu idazleak, literaturaren funtzionamen-

dua ezagutzeko beharrezkoak diren hainbat alor aipatuz. Bestalde, garai bat (Bizenta Mogelen garaia, erregimen zaharraren gain-behera gertatzen denekoa) begi bistan jartzen digu, historia liburuetan dagoen informazioa bizi-rik sentitzen ditugun pertsonaia batzuen marko moduan aurkeztuz eta Bizenta Mogelen itzala argituz. Eta hirugarrenez, idazkerak berak ezaugarri interesgarriak ditu, erregistroak eta forma dialektalak egoki erabili daitezkeela erakutsiz. Tira, liburuan dena ezin daiteke perfektua izan, eta nire ustez azken bi zati laburrak (liburua lau zatitan dago banatuta) pixka bat soberan daudela iruditzen

zait, literaturaren ikuspuntutik begiratuta behintzat.

Hori guztia kontuan hartuta, azken bolada honetan euskaraz irakurri ditudan liburuaren artean interesgarrienetako bat iruditzen zait Yolanda Arrietarena, eta berriro ere hasierako galdera etortzen zait burura: Zer dela-eta ez da agertu argitaletxe komertzial batean? Espekulazioak baino ezin dirut egin eta espekulazio gehienetan euskal literaturaren sistemaren ajeak nabarmentzen dira.



ARGIAREN ALABA

Egilea: Yolanda Arrieta. Eleberria. Argitaletxea: Egilea-Argitaratzailea. 160 orr. Bilbo, 2014. Salneurria: 10,40 euro



Indarkeriaren muinean

:: JAVIER ROJO

Azken bolada honetan ematen du Unai Elorriaga ezkutatuta ibili dela. Izan ere, gutxitan agertzen zaigu plazara, borondatezko erretiro lasaian balego bezala. Baina kontuan hartuta idazlea ez dela idatzi gabe egon, esan daiteke idazle batek publiko aurrean agertzeko duen berezko modua baino ez duela hautatu: bere idazlanek kontaktzen dute berak adierazteko duena. Azken urte hauetako lan isilaren emaitza 'Iazko hezurak' izenburuko nobela honetan ikus dezakegu. Hemen, Irene Arrias deitutako pertsonaiarengan oinarrituta, Elorriagak indarkeriari buruzko hausnarketara bultzatzen duen testu dentso eta askotan deserosoa eskaintzen digu. Irene Arrias 70eko hamarkadaren hasieran jaioa da Algortan (alde honetatik, idazlearen bizitzarekin kointzidentzia handia dago), eta biolentziaren gaiak obsesionatuta bizi delarik, narrazioan pertsonaia horren bizitza eta edonongo eta edonoizko gertakari biolentzok loturik agertzen zaizkigu, pertsonaiaren bizitzaren edozein momentu egokia baita, momentu horren inguruan edonon (Euskal Herrian ere bai, idazleak ez baitu gure egoera saihesten) gertatutako istorio bortitzak kontatzeko. Bigunkeriarik gabe, leunkeriarik gabe, Elorriagaren eskutik datorrigun testu honetan gizaki batzuek beste gizaki batzuk nola hiltzen, torturatzen, umiliatzen dituzten erakusten duten adibideak azaltzen zaizkigu. Inolako kontzesiorik gabe.

Irakurketa, batzuetan, ez da batere erraza, batez ere irakurlea denbora-pasa lasaia- ren bila baldin badao. Errepikakorra ere bada, eta paralelismo asko eraikitzen dira gertakari- en artean. Esango nuke badagoela hari bat, Elorriagaren nobela eta Bolañoren '2666' mi- resgarri hura lotzen dituen. Biolentziak pertsonaiaren bizitzaren inguruan sare mo- duko bat sortzen du, baina obsesioak azke- nean eldarnio bihurtzen dira, biolentzia gero eta hurbilago sentitzen delarik, lokamutsik txarrenak ere errealtatean gauzaturik ikus daitezke-eta. Bestalde, bortizkeria itogarri honen presentziak ia izaera fisikoa du, gor- putzari buruzko errefe- rentzietatik halako sentsa- zioa azpimarratzen baitu- te.



IAZKO HEZURRAK

Egilea: Unai Elorriaga.
Eteberria: Argitaletxea: Susa. 384 orr.
Zerautz, 2015.
Salneurria: 23 euro

Liburu osoa alderik alde zeharkatuz ideia nagusi bat topatzen dugu, liburu- an bertan esplizituki adierazten dena: Indarke- ria ez da salbuespena. Gi- zakiaren alderdirik ilune- naren berri ematen digu Elorriagak, eta ez dio es- perantzari zirrikitu han- dirik uzten. Irakurlea uka- bilkada batez bezala as- tintzen du liburu honek, eta jakina, hori ez da me- ritu txikia.



Ahanturaren aurka

:: JAVIER ROJO

Nik dakidala, orain arte Luis Garderen literatura ibilbidean ez da eleberririk agertu. Ibilbide horretan agertzen zaizkigun izenburu guztiak poema-liburuei dagozkie. Oraingoa, ordea, literatur generoen banaketa konbentzionalak kontuan hartuz, aldaketa nabarmena ikusten da: idazleak argitara eman duen azken alea, 'Ehiztariaren isilaldia' izenburuko idazlana, nobela baita, eta ez nolana hiko nobela. Liburuak dituen laurdehun orrialdeetan zehar, idazleak memoriaren inguruan ari zaigu. Horretarako, gertakari historiko bat izan du abiapuntu: Gerra Zibilean Ezkaban kokatutako San Kristobal gotorlekutik bertan zeuden presoek ihesaldia. Nobelan, dena dela, ez dira ihesaldi horren gorabehera guztiak kontatzen, kronika bat sortzean egingo litzaitekeen bezala. Gertakari horretan oinarrituta, idazleak memoria (memoria historikoa eta pertsonala) nola erakitzen den azaltzen du. Hau da nobelaren benetako gaia, memoria, eta gai honek protagonista behar duela, hau ez da iparralderantz askatasuna amets ihesean zebiltzan preso horietako bat. Protagonista memoria berreraikitzeko ahaleginetan ari den pertsona dugu. Izen arranditsu bat jarrita, eleberririk honetan egiten dena metafiziko historiografikoaren ildoaren barruan kokatzen da.

1938ko maiatzean, zortziehunen bat izan ziren ihes egitea lortu zuten presoak. Haie-

tatik berrehun inguru hil ziren ihesaldiaren ostean egin zen giza ehizan. Ez ziren bostera heldu muga pasatzera heldu zirenak. Gertakari horien gainean, beste hainbesteren gainean bezala, ahanturaren lainoa zabaldu nahi izan da. Ahantura horren aurka altxatzen da Luis Garderen avatarra dirudien narratzailea. Norberaren memoriak aurrekoen memoriarekin bat egin du langintza gogor horretan. Eta langintza gogorra da, memoria arakatzeko horretan aurki daitekeena mingarria suerta daiteke-eta. Baina edonola ere, isiltasunaren gainean zabaldu beharra dago memoria. Narratzaileak, ihesaldiaren historia berreraikitzean, bi iheslariren istorioa kontatzen du,

hitz handietatik bizipen pertsonaletara pasatuz, adibide xume horretan tragedia osoa laburbilduta azaltzen baita. Garderen nobelak gauza gehiago eskaintzen du, hala nola literaturari berari buruzko hausnarketak.

Liburu aberatsa, sakona, batzuetan gogorra, irakurlearen kontzientzia astintzen duen aldetik. Hitz pare batean laburtuta, idazlearen literatur trebeziari esker ezinbesteko nobela du idazlan hau.



EHIZTARIAREN ISILALDIA

Egilea: Luis Garde.
Eleberririk.
Argitaletxea: Pamiela.
400 orr. Irufia, 2015.
21 euro



Nitasuna ardatz

■ JAVIER ROJO

Alaine Agirrek gogoz ekin dio helduentzako literatura idazteari. Aurten ere irakurle helduei zuzendutako nobela labur bat eskaintzen du, X hil da izenburua duena. Atentzioa ematen duen lehenengo osagaia ahots baten presentzia da. Argumentuaren aldetik narratzaile bat aurkezten da bere maitalearen balizko heriotzaz hitz egiten. Baina maitalearen heriotza kontatzen duelarik, narratzailearen ahotsak berak inposatzen du bere presentzia, halako moduan non esan baitaiteke narratzailea bere buruaz aritzen den ahotsa baino ez dela. Maitalearen heriotza aitzakia, hitz egiten du, baina xehetasun gutxi ematen ditu, ia ez du kontatzen zein zirkunstantzian gertatzen den. Izan ere, heriotza horrek sortuko liokeen zirrara azaltzen du. Maitalearen heriotza balizko mundu batean planteatzen da, narratzaileak bere buruan eraikitzen duen posibilitatea baita. Heriotzaz obsesionatuta agertzen da, beraz, obsesio hau maitalearen heriotzaren posibilitatean gauzatzen delarik. Batzuetan ematen du ez duela berezko izaerarik, zeren

behin eta berriro bere bizitza maitalearekin duen harremanaren arabera aurkezten baitu. Bere nortasuna bestearengan deuseztatze honek bizitzako zirkunstantzietan buruzko ia erreferentzia guztiak desagerraraztera eramaten du narratzailea, ohiko xehetasunak isilduz. Ez dakigu, adibidez, zertan betetzen duen heriotzaren obsesioak libre uzten dion denbora. Baina maitalearen heriotzaren aukerak aztertzen dituen bitartean, garrantzitsuena ez da beste pertsona hori desagertzeari, desagertze horrek berarengan duen eragina baizik. Eta honekin erlazioa daitezke

zeloetako aipamenak. Heriotzaz obsesionatuta dago narratzailea, baina bestearen heriotza abandonu modukoa den aldetik, ia traizio bat. Horrela ikusita, maitasuna lotura itogarria da narratzaile neurotikoa honentzat. Bestaldetik, balizko heriotzak sortzen duen zirrarez gain, idazketa bera du hizketagai, autofikzioaren gorespina egiteko.



X HIL DA

Egilea: Alaine Agirre.
Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Elkar.
Orrialdeak: 84.
Prezioa: 11 euro.

Una novela chipriota

¿Un hispano en la Casa Blanca?

Forjando un imperio

Azalaren azpikoa

ESTOLDA JOLASAK

Autor: Jon Arretxe.
Género: Eleberria.
Editorial: Erein.
Páginas: 208.
Precio: 18 euros.



:: JAVIER ROJO

Estolda jolasak izenburuko nobela honetan protagonista, Mahmoud Toure, Burkina-Fasokoa, Bilbon ahal duen moduan bere bizimodua atera nahi duen afrikarra da. Kasu honetan, istilutan sartu delarik, Afrikara deportatzen dute eta Malin amaitzen du. Emakumeen trafikoan aritzen den mafia nigeriarrarekin egin du topo eta horrek eramango du odol isurtze amaiezina dirudien gertakariaren segida batera.

Jon Arretxek bere literatur langintzaren hasieretan umorea zuen baliabide nagusietako bat, eta irakurleren bat horren bila baldin badoa idazlan honetan, jakin behar du umorea dagoeneko desagertu dela. Kontatzen dituen gauzak ez dira bromatan hartzeko, eta idazleak jakin du bere tonua gai hauei egokitzen. Hilketak, mendekuak, jazarpenak... horrelako osagaiek osatzen dute argumentua. Baina argumentuaren azaleko anekdotan kontatzen direnak alde batera utzita (azaleko anekdota horri erreparatuz gero liburua abentura-nobela interesgarria da), badaude beste alderdi batzuk, idazlea, hasieran komentatu du dan bezala, derrigorrezkoa bihurtzera daramatenak. Lehengo eta behin, 'bestearen' presentzia. Protagonista Bilbon bizi den afrikarra izanik, gure ondoan ia konturatu gabe beste mundu batzuk ere badaudela erakusten digu idazleak.

Eta beste mundu horiek gobernatzeko beste arau batzuk daude, bizirautea lege baita halako munduan bizi direnentzat. Pertsonaiak bereizten dituen ez da egiten dutena, denek, alde edo moldez, eskuak odolez zikinduta dauzkate eta, baizik eta egiten dutenaren motibazioa, eta alor honetan kontrajarren nabarmen dago, leialtasuna eta dirua aurrez aurre jarrita baitaude.

Eta bitartean bertokoak edo ez dira enteratzen zer gertatzen den edo, anaia nagusiak izango balira (poliziak alegia), beren interesen arabera erabili nahi dituzte estoldetan mugitzen direnak. Hiriak azal ikusgarriaren azpian bestelako aurpegia du eta Jon Arretxek oso ondo jakin du mundu hori islatzen.



Nobela itxuran

TXISTU ETA BIOK

Egilea: Juan Luis Zabala.
Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Algaida.
Orrialdeak: 232.
Prezioa: 18 euro.



|| JAVIER ROJO

Juan Luis Zabalak 'Txistu eta biok' idazlanarekin Irun Hiriko Literatura Saria irabazi zuen iaz. Idazleak ibilbide luzea egin du euskal literaturaren arloan, nahiz eta literatur egile moduan beti bigarren plano batean kokatu duen bere burua. Euskal literaturan (eta euskal kulturaren oro har), Juan Luis Zabalaren lekua ikusle pribilegiatuarena izan da gehienbat, Egunkaria-n lehen eta orain Berria-n egiten duen lanagatik. Txistu eta biok izenburuko idazlan hau nobelatzat har dezakegu, nobelaren izendapena guztiz malgua dela-eta. Liburuan hari narratibo bat agertzen da behintzat, hari narratibo horrek, egia esan, garrantzi handirik ez badu ere. Lehenengo pertsonan hitz egiten duen narratzaile batek (idazlearekiko antz handia duen narratzailea, bide

batez esanda) Txistu bere txakurra-ekin egiten dituen paseoak aprobetxatuz hainbat gai aipatzen ditu, gehienbat euskal kulturarekin zerikusia dutenak. Horrez gainera, ibilaldi horietako batean gorpu bat aurkitzen duelarik, trama beltz baten aztarnak izan litzaketen gertakari batzuekin inplikaturata geratzen da. Bi osagai hauek, txakurraekin egiten dituen ibilaldiek eta gorpuren aurkikuntzak alegia, kontakizunaren ardatza osatu beharrean, beste gauza batzuek hitz egiteko aitzakia eskaintzen dute. Idazlearen itxura duen narratzaileak, euskal kultura arloko kazetaria izanik, honen inguruko iritziak eta kezkek plazaratzen ditu, ia beti ironiaz. Desengainatuta agertzen da narratzailea, eta hori dela-eta behin eta berriro kulturaren arloa alde batera utzi eta egunkarian kirol sailera pasatzearena aipatzen du, bere interesei egokitzeko. Narratzailearen ikuspuntuak askotan ezkertiarra izan nahi lukeen burges txiki batena dirudi, adinean aurrera joan ahala behinolako ilusioak eta jarrerak poliki-poliki alde batera uzten baititu. Eta kulturaz hitz egi-terakoan aurkezten dituen jarretan kontraesanak ez dira falta, adibidez arte garaikideaz hitz egiten duelarik. Liburu dibertigarria da, baina nobelan argumentuari garrantzia ematen dion irakurlea agian dezepzionatuta geratuko da, azken finean idazlan hau nobela itxurapean argitaratutako kultur dietario ironikoa baita.

Comedia
Witnik

Des asesinatos
en Londres

¿Qué es el sacrificio?

Digresioen hanpadura

ALSINA
Egilea: Xabier Mendiguren
Generoa: Nobela.
Argitaletxea: Elkar.
Orrialdeak: 244.
Prezioa: 20 euro.



|| JAVIER ROJO

Antza denez nahiko luze jo duen sormen-prozesu baten ondoren 'Alsinak' izenburuko nobela argitaratzea erabaki du Xabier Mendigurenek. Argitaratu den bezala, argumentuaren aldetik nobela honek lau osagai nahiko markatu erakusten ditu. Lehenengo eta behin, Alsinak izeneko emakume batek bere amaren herria ezagutzeko egiten duen bidaia dugu. Emakume hau Estatu Batuetakoa da. Espainiako Gerra Zibila zela-eta, bere aitona-amonak eta bere amak Euskal Herriko alde egin behar izan zuten hasieran Frantziara eta gero Amerikara joateko. 1981. urtearen hasiera aldera, Alsinak Euskal Herrira dator bere erroak ezagutzeko asmoz. Bidaia hau kontaktatzen den bitartean,

Alsinak bere buruan eraikitzen du berrogei urte lehenago bere familiak Amerikara joateko egin behar izan zuen bidaia. Errefuxiatuen gorabeherak azaltzen direneko atal hau da argumentuaren bigarren osagaia. Hirugarren osagaia idazlearekin identifika litekeen narratzaileak bere narrazioari buruz egiten dituen iruzkinak eta plazaratzen dituen iritziek osatzen dute.

Hiru osagai hauek diskurtso berberean integratuta daude. Laugarren osagai bat agertzen da: bi pertsonaiaren arteko elkarriketak osatzen du laugarren atal hau eta argumentuaren aldetik lotura oso ahulak ditu beste osagaiekin. Elkarriketa hau zatika agertzen da nobelan zehar diskurtso nagusian tarakatuta eta nolabait etenda. Bi pertsonaia horiek, antza EAJko kide bat eta ETApn-an militatu zuen PSEko kidea, hizketan ari dira jateke batean, oraingo ikuspuntutik 80ko hamarkadaren hasieran gertatutakoak gogoratuz eta garai hartako garrantzia azpimarratuz. Bi gauzak merezi dute aipamen berezia nobela honetan. Alde batetik, narratzailearen parte hartze nabarmena dago, kontaktatzen duen istorioa azaltzeko. Hain handia da esku hartze hori, non batzuetan digresioek nobelan kontaktatzen den istorioa bigarren planoan uzten duten. Bestalde, EAJko eta PSEko kideen elkarriketa horrek testua politizatzen egiten du, hori bai, oso kontraesankorrak diruditen azalpenak emanez.



ELUR BUSTIA

Egilea: Pello Lizarralde.
Argitaletxea: Erein. 128 orr. 15 euro

Etengabeko bidaian

:: **JAVIER ROJO**

Aurten narratibaren aloren argitaratu diren liburuen artean nire ustez Pello Lizarralderen nobela hau nabarmentzen da. Idazleak ohi duen bezala, lau edo bost urtean behin liburu bat argitaratzen du, eta aurten, 'Elur bustia' izenburukoaren txanda izan da. Lizarralde oso ezaugarri markatuak erakusten ditu bere idazlan guztietan eta halaxe agertzen dira hemen ere. Lehenengo eta behin, iraganik eta etorkizunik gabeko pertsonaia da protagonista, Ramiro. Ez dakigu ia ezer haren iraganari buruz eta etorkizunari buruz egiten dituen aurreikuspenak (haren asmoak eta) ezkutatu egiten zaizkigu, ez baikara pertsonaiaren jokaeraren lekuko baizik. Egiten duena esaten zaigu, ez pentsatzen duena ezta egiten duenaren atzean

dauden asmoak ere. Bestalde, sentsazioen mundu batean murgilduta aurkitzen da, sentsazioek osatzen baitute pertsonaiak inguruarekin duen harremanaren gunea. Pertsonaiek interaktuatzaren dutenean, hitzekin baino gehiago keinuekin eta egiten dute, beraien artean ez baita ia hitzik trukatzeko, komunikazioa ezinezkoa balitz bezala. Eta etengabeko ihesaldian ari direla ematen du (kasu honetan, Hegoalde ia mitoko baterako bidaian, etxera bueltatzeko, Uli-ses galdu baten antzera). Honi gaineratu behar zaio Lizarralde maisua dela idazkeran ere, momentu bakoitzean hitz zehatzena hautatzen baitaki. Osagai hauekin aurkeztu zaigu bizitzaren esentzia, inondik inora ez doan bidaia moduan.

Palaujo tras la catástrofe

Wanda de la juventud

Textos de un autor distinto



SATOR LOKATZAK

Egilea: Jon Arretxe.
Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 232.
Prezioa: 18 euro.

ten jabe denez, afrikarraz baliatzen baita bere legea inposatzeko. Hauxe da planteamendu orokorra, eta testuinguru honetan auzoan zehar mugitzen diren pertsonaien gorabeheren lekukoa izango da irakurlea. Toure, alde batetik, lapurketa txiki bat argitzen saiatzen da, ikertzaile ospeari dagokionez. Baina bere lagunekin batera beren bizitzak kontrolatzen eta erabiltzen ari den ertzain horren ka-teatik askatzeko ahaleginak egingo dituzte. Nobela beltzaren esparrukoa da liburu hau, eta intrigak garrantzi handia duelarik ez da komenigarria argumentuaren aldetik gauza gehiago esatea, spoilerrik egin ez dadin. Nobela nagusi den ikuspuntua eta bertako giroak inplikatzeko duena, dena dela, aipatu daitezke. Aurreko nobeletan gertatzen denarekin konparatua Tourek eskaintzen duen ikuspuntuan aldaketa ikusgarria dagoela irudituzait. Aurreko nobeletan pertsonaia honek harridura erakusten zuen, ulertezina begitantzen zitzaion munduaren aurrean. Honetan, ordea, eszeptizismoa nagusi da. Pertsonaia oso ondo ulertu du zein den bere lekua, eta horren arabera jokatzeko du. Giroari dagokionez, 'besteen' bizitzak kontatzen direnez, marjinazio mundua da nagusi, Bilboko beste biztanleek ezagutzen ez duten mundu paraleloa. Aurreko nobeletan umorearen aztarnaren bat aurki liteke. Honetan, dagoeneko, ez. Izan ere, krudelegia da mundu paralelo hori.

|| JAVIER ROJO

Jon Arretxek, bere azken nobela, Toure ikertzailearen istorioen beste entrega bat eskaintzen du. 'Sator lokatzak' izenburuarekin bataiatu du liburu hau, eta argumentuaren aldetik izenburu horrek gauza handirik argitzen ez badu ere, giroa behintzat nahiko ondo adierazita geratzen da izenbururako hautatu dituen hitzetan. Toure ezaguna da dagoeneko Arretxeren aurreko nobelak irakurri dituenarentzat. Afrikarra da jatorriz, eta Bilboko San Frantzisko auzoan bizi da, batzuetan ikertzaile pribatuaren papera betez. Bizirautea helburu duelarik, auzoko gertakari batzuk argitzen saiatzen da, diru apur baten edota mantenuaren truke. Bitartean, nahi gabe, behartuta dago inguru hartan zelatatzeko dagoen ertzain baten aginduak betetzera, ertzain hau, Toure-ri buruzko sekretu ba-



Bandoen gerrak

:: JAVIER ROJO

Juan Kruz Igerabidek begirada atzera zuzendu du, Erdi Arora hain zuzen, 'Ez lemaio' izenburuarekin argitaratu den nobela labur hau idazteko. Izenburu hori irakurle askorentzat misteriosua izan daitekeela jakinda («Aramaio dabenak, ez lemaio»), azpizitua gaineratu du: 'Arrasateren erreketak'. Hemen kontatzen den istorioa, beraz, XV. mendean gertatutako erreketak horretara eraman zuten gertakari in-guruan antolatuta dago.

Nobela historikoa dugu eta, gaia eta generoa kontuan hartuta, ezinezkoa da euskal literaturaren historian pixka bat sakondu duen pertsonarentzat Yon Etxaidek 1964an argitara eman zuen 'Gorrotua lege' izenburuko hura ez gogoratzea. Biek garai bera dute aipagai, biak antolatuta daude argumentuak 1448an gertatu zen Arrasateren erreketara hel daitezten. Bietan, oinaztarren eta gangoatzen arteko liskarrek ekarri zuten suntsiketaren aurrean, bakezaletasunaren aldeko jarrera era-

kusten da. Igerabideren nobelan gatazkaren jatorrian eta honen inguruko hausnarketa politikoa sakondu beharrean, pertsonaien ibilbidean zentratzen da. XV. mendean hasieratik erreketak gertatu arte pertsonaien bilakaeraren lekuko izango gara, nola bando desberdinetan kokatutako pertsonaien arteko harremanak gorrotoaren gainean erakitzen diren behin eta berriro lehiaren eske-ma errepikatuz. Eta borroka eta lehia giro honetan, bi bandoak elkar suntsitzeko asmoarekin aritzen dira elkarren aurka. Baina honekin batera, eta paradoxa moduan, bandoak elkarren beharrea daude, etsaierik gabe norberaren taldeak ez baitu zentzurik izango. Eta giro horretan pertsonaien arteko harreman pribatuak gauzatzeko, ia beti giro horrek zapaltzen dituelarik.

Ezkontzak har ditzakegu adibidetzat, esparru pribatukoak izanik politikoki erabiltzen baitira behin eta berriro leialtasunak irabazteko asmoz. Eta giro horretan agertzen dira beste pertsonaia batzuk (Garxot errementaria adibidez), bakea helburu dutenak. Gatazkaren arrazoi materialak baztertuta, bandoen arteko borroka batez ere giza kondizioari dagokion kontua dela ematen du, eta azkenean itxaropenerrako bidea uzten bada ere, gizakia-ri buruzko ikuspegia nahiko ezkorra da oro har.



EZ LEMAIO. ARRASATEREN ERREKETA

Egilea: Juan Kruz Igerabide. Eteberria Argitaletxea: Beta Bilibo, 2016
144 orr. 12,50 euro

ZER EGINGO DUGU ORAIN OPARIEKIN-ARITZ GORROTXATEGI (*El Correo*, 2017-07-29)

Larunbata 17:07:29
EL CORREO

BEGIAK ZORROZTEN | **TERRI TORIOS** | 11



Etsipenerako bidea

|| JAVIER ROJO

Aritz Gorrotxategi bederatz narrazioren bilduma bat eskaintzen du 'Zer egingo dugu orain opariek?' izenburuko idazlan honetan, zeina Donostia Hiriko Kutxa Literaturari Sariatetan irabazle gertatu baitzen. Narrazio gehienetan antzeko protagonistak aurkitzen ditugu: pertsonaia nagusiak, gaztaroa atzean utzita, helduaroan murgiltzen ari dira, eta aro honetan agertzen zaizkien arazoei aurre egin behar diete. Aldaketa puntu batean aurkitzen direlarik, batzuetan egoera berrira egokitzeak zailtasunak erakusten dituzte. Egoera honetan pertsonen harremanak (familia barruan, lanean zein adiskideen artean) dira kezken iturri nagusiak. Batzuetan ipuinetan agertzen diren pertsonaiaik seme-alaba txikiak dituzte, eta honek mugatzen du beraien jokoera. Ezin dute nahi dutena egin beraien bizitzak seme-alaben inguruan antolatuta baitaude, ezinbestean. Beste batzuetan, denbora agertzen zaigu pertsonaien arteko harremanak higatzen, behinolako adiskide-

tasuna hondatzen. Lanean ere agertzen zaizkigu, garai batean amestu ere egingo ez lituzketen baldintzak onartzen. Bizitza arrunteko egoera normalak dira gehienak, baina Aritz Gorrotxategiren ipuinetan aurkezten diren bezala, egoera normal hauek galera moduan aurkezten dira.

Azken urte hauetan, euskal literaturan ohiko samarra bihurtzen ari da horrelako planteamendu ezkorra aurkeztea. Izan ere, pertsonaiaik helduaroan sartzen diren heinean beraien bizitzak aldapan behera doazela ematen du, aspaldiko ilusioek zerikusirik ez baitute gero etorriko den errealitatearekin. Ildo honetatik jotzen dute idazlan honetako narrazioek. Edonola ere, idazleak beste osagai bat gaineratu du planteamendu ezkorrean: ironia, erakusten den ikuspuntua gehienbat ironikoa baita. Bizirautearen arazoa gaindituta dagoenean, politika-kezkak dagoeneko bigarren maila batean geratzen direnean, pertsonaieik transzendentziak, edozein delarik ere, huts egiten dienean, bizitzan proiekturik gabe geratzen dira, eta kontrolatzen ez duten joko batean peoi hutsak izatera mugatzen dira, bizitza ikaragarritzko txantxa izango balitz bezala.

Txantxa honetan kokatuta, etsipena da pertsonaien jarrera definitzeko balio dezakeen hitza.



ZER EGINGO...

Egilea: Aritz Gorrotxategi
Narrazioak
Argitaletxea: Algaidea
Sevilla, 2017
136 orr. 18,00 euro.

BI ALDIZ ERDITU ZINEN NITAZ, AMA-ALAIINE AGIRRE (*El Diario Vasco*, 2017-08-19)

66 | CULTURA | LIBROS |

Sábado 19/08/17
EL DIARIO VASCO

Lección de altruismo y humanización

Una novela, aparentemente ligera, que ofrece más hondura de pensamiento de lo que se pudiera esperar en un momento de vida en los que el ego...

Una novela, aparentemente ligera, que ofrece más hondura de pensamiento de lo que se pudiera esperar en un momento de vida en los que el ego...

Una novela, aparentemente ligera, que ofrece más hondura de pensamiento de lo que se pudiera esperar en un momento de vida en los que el ego...

Una novela, aparentemente ligera, que ofrece más hondura de pensamiento de lo que se pudiera esperar en un momento de vida en los que el ego...

Bere buruaz

BI ALDIZ ERDITU ZINEN NITAZ, AMA

Egilea: Alaine Agirre
Argitaletxea: Elkar
Argitalpena: Donostia, 2017
Orrialdeak: 180 orr.
Prezioa: 18 euro (e-Pub: 10,99 euro).



:: JAVIER ROJO

Alaine Agirrek irakurle helduentzat idatzi duen hirugarren eleberririk 'Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama' du izenburua. Aurreko liburuetan bezala, idazleak bere eleberrira eraikitzeko erabili duen gai nagusia bere burua delarik, zaila egiten da liburu honen izaera zehaztea. Edonola ere, aitorpenetik edo kasu kliniko baten deskribapenetik hurbil dago idazlan hau. Aurrekoetan bezala, idazlearen paretzat hartu daitekeen narratzaile batek (A letrarekin identifikatuta agertzen dena) azaltzen du bere gaixotasun mentalaren bilakaera, kasu honetan narratzailearen eta honen amaren arteko harremanetan zentratuta. Harreman hauek, bestalde, aukera ematen diote narratzaileari bere inguruari buruz pixka bat hitz egiteko, zeren familia kontuak eta ere azaltzen baitira, gainetik bada ere.

Narratzaileak behin eta berriro hitz egiten du bere buruaz, unitertso osoa haren inguruan biraka ariutuko balitz bezala. Atal laburrez osatuta dago nobela, eta honek mosaiko itxura eman dio idazlariari. Atal horien bidez kontatzen diren pasarteetan narratzaileak jarrerara bikoitza erakusten duela ematen du. Bere buruarekiko, narratzaileak bere izaera, bere gaixotasuna, bere mugak onartu beharra erakusten du, bizitzan aurrera joateko. Besteekiko, ordea, jarrera anbiguo samarra da. Beste guztiek berearekin zor bat dutela pentsatzen du. Edo ulertzen ez zutelako, edo behar zuena eman ez diotelako, edo beste edozein arrazoiengatik, besteak zorretan bide daude narratzailearekin. Narratzaileak, dena dela, barkatzen ikasi du eta batzuetan oso kondeszendientea dirudien jarrera erakutsiz kito egin nahi du zor horiekin, hutsetik hasteko.

Alaine Agirre idazle trebea da, eta introspektorako ahalmen handia duela erakutsi du orain arte argitara eman dituen hiru nobeletan. Baina gai bakarra du literaturan, bere gaixotasun mentala. Literatura egiteko gai bakar hori erabiltzeak, idazlanetan bere burua hain era nabarmenean biluzteak, nire ustez mugatu egiten du literatura bilakaera. Behin eta berriro gai horretara bueltatzea agian lekutasun moduan interesgarria izan daiteke. Literaturaren aldetik, ordea, nago irakurleari zerbait gehiago eskaini behar zaiola.



Deserrotuak

✪ JAVIER ROJO

Eider Rodriguez da euskal literaturan eguneroko bizitzan ezkututzen diren ezinegona eta frustrazioak hobekien islatzen dituen idazleatariko bat, eta hala agertzen zaigu bere azken liburuan, 'Bihotz handiegia' izenburuarekin argitaratu den narrazio liburuan. Sei istorio agertzen zaizkigu idazlan honetan, eta lehenak (luzeenak, bestalde) ematen dio maileguan izenburua liburu osoari.

Sei narrazio, non pertsonaia frustrazioan amilduta agertzen diren, askotan beraiek ohartzen ez badira ere. Ipuin bakoitzean agertzen den egoera zehatza kontuan hartu gabe, liburu honetan ageri diren pertsonaia nagusiek antzeko ezaugarriak aurkezten dituzte. Alde batetik, ematen du beraien neurriko mundu bat eraikei nahi izan dutela beren inguruan, burbuila baten barruan isolaturik egongo balira bezala. Pertsonaiek beren mundua dute eta badirudi bertan eroso xamar daudela. Baina, beste aldetik, noizean behin inguru babesgarri horretatik atera behar dute eta or-

duan benetako egoera nabarmentzen zaie. Deserrotuta daudela konturatzen dira, bakardadean bizitzera kondentatuta daudela ikusten dute, burbuila horretatik kanpo geratzen zaien inguruan arrotz.

Honez gainera, besteek asmatzen dizkieten planen arabera antolatuta behar izaten dituzte beren bizitzak, nahi gabe ere. Eta autoengainuan erorita, besteek desiraturakoa beraiek desiratzen dutela sinestera ere hel daitezke, gelditzen zaien autonomia apurra galduz. Egoera honetan, zoriona beraiei ez dagokien osagaia dela sentitzen dute, auzoarena da-eta. Frustrazioa nagusitzen da, harrabots handirik gabe agertzen den arren, frustrazioa giroan dagoen zerbait zehaztugabea baita, sentimendu baten aztarna sotila. Edonola ere, momenturen batean protagonista hauei ere nabarmendu egingo zaie beren egoera, eta flash moduko baten bidez geratzen dena begi-bistan materializatuko zaie.

Narrazio hauek erakusten dute egunerokotasunean saretuta geratu den gizaki modernoak, balentria handiak egin behar ez dituen gizakia, zorionaren itxura batean bizi izanda ere, bakarrik eta deserroturik dagoen gizajoa besterik ez dela, eta, horren jakitun denean, karga horrekin aurrera jarraitu behar duela.



'BIHOTZ HANDIEGIA'

Egilea: Eider Rodriguez
Argiteletxea: Susa
Zarautz, 2017
160 orr. 17,50 euro.



Genero indarkeria

:: JAVIER ROJO

Beste idazle batzuek dagoeneko ibilbide luzea eginda daukaten adinean iritsi da Maixa Zugasti euskal literaturaren alorrera. Horretan, idazle hau salbuespen moduan ikus dezakegu. Euskal literaturan egin duen ageraldia 'L.A.A.' izenburua duen nobelarekin egin du. Argumentuaren aldetik idazleak gaurkotasan handiko gaia hautatu du, nobelaren kontatzen duen istorioa genero-indarkeriaren gainean aritzen da-eta. Istorioaren abiapuntuan Maria Agerre izeneko psikologoa dugu, narratzailearen papera ere betetzen duena. Kartzelan egiten du lan, eta hori dela-eta Luis Andueza Abasolo (L.A.A.) izeneko presoarekin harreman profesionalak dauzka. Preso hau epaiketaren zain dago, emazte ohia hiltzen saiatzegatik akusatua. Psikologoaren ikuspuntutik begiratuta gizon erakargarria da, eta hasieran harreman profesionala izan zena maitasunezko bihurtuko da. Argumentuaren bilakaera ikusita, nobelak oso desberdi-

nak diruditen bi atal dauzka. Lehenengoan ikusiko dugu nola eraikitzen den harreman afektibo hori, Andueza preso dagoen bitartean. Bigarrenean presoaren aske ateratzen denean, Mariarekin duen jokaera azalduko da. Bi atal hauek argumentuaren aldetik ez ezik, izaeraz ere desberdinak direla irudituz gait, lehenengoan narratzailearen jarrera pertsonala azaltzen baita, bigarrenean intrigazko alderdian sakontzen delarik.

Bi atal hauen artean dauden aldeak beste alor batzuetan ere ikus daitezke. Adibidez, psikologoaren eta atxilotuaren arteko harremana eraikitzen denean, argumentuaren bilakaera azal dezaketen kausa materialak bazterrean uzten dira. Esan nahi dut psi-

kologoa gizonarekin itsuki maitemintzen dela azalpen handirik gabe, maitemintze prozesua berez gertatzen den gaixotasuna izango balitz bezala, idazleak ia 'deus ex machina' moduan jokatzeko duelarik. Nobelaren bigarren zatian intriga nagusitzen denean, honelako istorioetan klasikoak diren osagaiak (ikertzaile pribatua eta guzti) agertzen dira, eta pertsonaiaren bilakaera psikologikoa baino gertakarietan zentratuago dago liburua.

Gaia interesgarria da, eta liburua gustura irakurtzen den horietakoa da, batez ere intrigaren atala, narrazioak jakin-mina pizten du-eta.



L.A.A.

Eleberria
Egilea: Maixa Zugasti
Argitaletxea: Algaida
Sevilla, 2017
152 orr. 18,00 euro

LOS MÁS VENDIDOS

Novela

1. *Los hijos del viento* de María José Guebara

2. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

3. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

4. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

5. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

6. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

7. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

8. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

9. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

10. *El tiempo que me quedo a tu lado* de María José Guebara

Gente rota en la trinchera urbana

Este libro de cuentos de María José Guebara...

Todo sobre aquellos funcionarios

Este libro de cuentos de María José Guebara...

EL TIEMPO QUE ME QUEDA A TU LADO

Este libro de cuentos de María José Guebara...

Arriskuaren aurrean

6012

Egilea: Karlos Linazasoro.

Generoa: Nobela laburra.

Argitaletxea: Erein.

Orrialdeak: 96.

Prezioa: 13 euro.



:: JAVIER ROJO

Orain dela berrogei urte, Tolosako tren geltokiaren ondoan istripu bat gertatu zen. Tren bat errailetatik atera zen. Konboi horrek zera matzan bagoien artean zisterna bat zegoen, 55 tona azido zianhidrikoz (zianuroaren izen dotorea) beteta. Leherketa arrisku handia zegoen eta hura gertatuz gero zisterna barruko gasa Tolosa osoa suntsitzeko adina bazen. Tentsio handiko orduak izan ziren. Benetako gertakari hauetan oinarrituta, Karlos Linazasorok nobela labur bat idatzi du, '6012' izenburua duena, horixe baitzen errailetatik atera zen trenaren zenbakia. Nobela ez da hiriaren izena aipatzen, 'T.' besterik ez. Eta argumetuaren pertsonaia nagusi moduan bertako alkatea (T.-ko presidentea liburuan) eta tren geltokiko arduraduna agertzen dira.

Istripua gertatu eta lehenengo momentutik alkatea geltokira joan zen egin beharrekoak zuzentzeko. Gaur eguneko ikuspuntutik begiratuta, harrigarria da halako istripu baten aurrean egin behar ziren lanak bideratzeko protokolo falta nabarmena. Alkateak, beraz, bere gain hartu behar izan zituen ardura eta erantzukizun guztia, denak hark esaten zuenaren zain geratzen zirelarik. Egoera horretan protagonista horren jorkaera bihurtzen da nobelaren erdigunea. Berak pentsatzen duena, bere dudak, besteei buruzko iritziak, hartzen dituen erabakiak azaltzen zaizkigu testuan. Honetan guztian ondoan duen laguna, geltokiko arduraduna alegia, izango da aurkituko duen berme bakarra, kaosa hirian nagusitzen den bitartean. Bi pertsonaia hauek elkar osatzen dutela ematen du. Arriskuaren aurrean bakarrik geratu den pertsonaia baldin bada alkatea, aingeru guardakoaren modukoa agertzen zaigu laguna. Eta kontrapuntuan, besteen jorkaera ziztrina. Nobela ia osoa bi pertsonaia hauen arteko elkar-erriketa da eta honi gaineratzen badiogu bulego batean pasatzen dutela denbora gehiena, liburuak antzerki lanaren itxura hartzen du.

Tragediaren muga, zirt edo zart egiteko momentu erabakigarriaren dauden gizaki xume batzuen jarrera etikoa azpimarratzen da eleberri labur honetan.



Berlin Blues

NEGUKO ARGIAK

Egilea: Irati Elorrieta.
Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Pamiela.
Orrialdeak: 288.
Prezioa: 19 euro.



∴ JAVIER ROJO

Añes Berlinera joan da bizitzera eta hiri horretan bera bezain galduta dauden pertsonaia batzuekin harremanetan hasi da. Halaxe labur liteke nobela honen argumetua, laburpenak idazlan honetan kontaktzen zaiguna guztiz desitxuratu ez balu. Egia da Irati Elorrietak idatzitako 'Neguko argiak' izenburuko liburua Añes deitzen den emakume bati buruz ari dela. Pertsonaia Berlinera joan da, bertan Marta bizi baita, Parisen ezagutu duen laguna. Hiria neguaren atarian dago eta Añesen bizipenen eskutik beste hainbat pertsonaia agertzen dira. Gehienak beste non-baitetik heldu dira Berlinera. Ez dira bertokoak, eta hiria pertsonaia-sare horien bizi hariak lotzen direneko lekua bihurturik agertzen zaigu. Lekua, edo hobeto esanda, ez-lekua, bizitzan zehar egiten den bidaian geltokia baita. Pertsonaia gehienak beren erroetatik

ihes egiten ari direla ematen du. Baina erroek dakarten zama horretatik askatzen saiatzen diren neurrian deserrotuta geratzen dira, Berlinen ere beren jatorrizko lekuetan bezain arrotz. Haien artean harreman afektiboak sortzen dira, askotan adiskidetasun eta amodioaren simulakroak dirudienak. Añesek bere etxeko leihotik ikusten ditu beste leihotik batzuk eta haien atzean beste bizitza batzuk antzeman daitezke berea bezalakoak.

Egoera honetan bakardadearen sentimendua nagusitzen da eta alde guztietara hedatzen. Pertsonaiek biziraun behar dute, materialki eta afektiboki; eta horrek eramaten ditu askotan oso egokiak ez diruditen hautaketak egitera. Añes, berriz, iraganaren matazan lotuta geratu da, iragan horrek mamu baten itxurapean (hildako lagun baten oroitzapena) behin eta berriro estutzen duelarik. Denbora-pasa moduan argumentu dibertigarria bilatu nahi duen irakurlea zapuztuta geratuko da nobela honenekin. Baina giza arimaren zirrikietan barneratu nahi duena, sentimenduetan sakondu nahi duena, berehala konturatu da nobela handi baten aurrean dagoela, literaturak, handia izango bada, bizitza ulertzeko ere balio behar baitu.

Alice Phoebe Lou kantari hegoafrikarrak badu 'Berlin Blues' deitzen den kanta. Izenburuko bi hitz horiek laburbiltzen dute nobela honek uzten duen sentsazioa.



Itzulera zaila

:: JAVIER ROJO

ETAkoa izateagatik kartzelan hogeita bost urte egon ondoren, Rosa herrira itzuli da. Bizitza erdia pasatu du giltzapean eta batean egoera berri batean egokitu beharrean dagoela ikusi du, buruan eraiki duen ideiarekin oso bat ez datorren egoera batean. Abiapuntu honekin tesi nobelaren itxura hartzen du Pako Aristiren eskutik datorkigun 'Rosa itzuli da' izenburuko nobela honek. Rosa herrira itzuli da eta pertsonaia honek heroiaren tratamendua espero du, ia-ia halakotzat har dezatela exijitzeraino. Baina garaia desberdinak dira. Bere gaztaroan bizitza osoa politikaren ardatzaren inguruan antolatzen zen. Bueltatzean, ordea, politika bigarren maila batean geratu dela ikusi du eta bera bezalako pertsonaia gizarte abertzalearentzat ere deserioak izan daitezkeela konturatu da, batez ere sinbolo bezala erabili nahi dutelarik. Nobelan agertzen diren elkarrizketetan talka hauek aurkezten dira, pertsonaien arteko kontrajarpenak ba-

rik ideien arteko topaketak izango bailiran elkarrizketok.

Baina hasieran narrazio politikoaren izaera duenak thrillerrera jotzen du poliki-poliki, gizarte berrian egokitzean dituen zailtasunak kontatzen direlarik pertsonaia amarekin duen harremanean sakondu ahala. Izan ere, amak alzhemerrarengatik oroimena galtzen duen bitartean, haren bizitzan misterio handiak daudela ikusten du protagonistak eta haiek argitu beharra sentitzen du. Rosak lotura berezia aurkitzen du orduan berak hartutako erabakien eta amak ezkutatzan zuten sekretuaren artean, dena karma berezi baten bidez elkartuta baitago. Amaren misterioek, dena dela, geruza asko dauzkate, eta dena argitzekotan dagoela dirudienean, beste misterio bat azaltzen zaio espekulazioen bidez baizik konpondu ezin daitekeena.



ROSA ITZULI DA

Eleberria
Egilea: Pako Aristi
Argitaletxea: Erein
Donostia, 2018
224 orr. 18,00 euro

Pako Aristik euskal gatazkaren gaia ETA ondoko garai batean kokatu du eta bertan nabarmen geratzen da aro berriek jarrera berriak eskatzen dituztela, aggiornamento honek nahiko lampedusarra badirudi ere. Nobelan aurkezten diren elkarrizketa hiperpolitizatuek oso ondo erakusten dute zeinen arin pasatzen diren garaiak, eta nola lehen sendoa zidriena deseginda agertzen den, ahanztura zabaltzen den bitartean.



Esan gabekoak

JAVIER ROJO

Idazle bat, Ismael, blokeatuta geratu da bere nobelari jarraipena eman ezinik. Argitaratzaileak, bitartean, presionatzen du liburua lehenbailehen amai dezan, baina idazleari ezinezkoa zaio behar duen ahotsa aurkitzea. Honela laburbildu daiteke Karmele Jaiok argitara eman duen nobelaren hasierako plantamendua. Irakurleari gauza asko eskaintzen dion idazlan baten aurrean gaudelarik, Jaioren nobela norabide askotara irekitzen da.

Adibidez, ahots eta ikuspuntu desberdinak txandakatzen dira, Ismaelen blokeoaren atzean ezkutatzen den sakoneko errealitatea, geruzaz geruza, argira ekartzeko. Jasone, haren emaztea, agertzen zaigu, gertakarien gainean beste ikuspuntu bat eskainiz, edota Libe, arreba, kontrapuntu modukoa osatuz.

Eta denaren atzean, generoak pertsonengan nola eragiten duen, bakoitza zein puntutara ino bere generoaren ondorioa den azaltzen zaigu, azken finean generoak determinatzen baitu besteek norberaren gainean erai-

AITAREN ETXEA
KARMELE JAIO

Argitaletxea: Elkar.
Orrialdeak: 216.
Prezioa: 18,90 euros.



kitzen duten irudia, eta subjektuak sare horretan kateatuta daudelarik horren arabera jokatzerara behartuta daude.

Ismaelen bizitza isiltasunez beterik dago, bere buruari ere esateko ausardiarik ez duen sekretuz beterik, eta, ia konturatu gabe ere, bere aitaren eredu erreplikatzeko du. Jasoneren mundua, bestalde, ukazioz erai-ki da, benetan desira zuenari ezetz esaten bizi izan baita. Osagai hauekin, eta beste askorekin (sorkuntzari buruzko ideiak, adibidez), Karmele Jaiok jakin du ia oharkabean pasatzen den idazkera adierazkor eta sotil bati esker askotariko ahotsak erabiltzen eta pertsonaien ariman arakatzeko, ezkutukoa azaltzen. Idazlan mirezgarria iruditu zait nobela hau, sakona bezain hunkigarria.

Nunca hemos vivido estas fechas así. Se quedarán grabadas en la memoria, como 'La última tentación de Cristo' o el concierto a favor de Cruz Roja

LIBROS	MÚSICA
LIBRO El camino del fascismo en Navarra	LIBRO El padre de la música española
LIBRO Presente por el momento	LIBRO El libro del...

ELEBERRIA

Beruna eta sua

JAVIER ROJO. Poliki-poliki euskal gatazka ardaztat duten liburuen uholdea lasaitzen ari dela ematen du. Horren ordez, gatazka beste era batez aurkezten da euskal literaturan, beste gai batzuen hondoko marko moduan alegia. Edonola ere, gaiak oraindik ere badu zeresanik, batez ere ikuspuntua aldatzen bada. Eta halaxe jokatu du Itxaro Bordak 'Susmaezinak'en.

Nobela honetan idazleak gatazkaren erdigunera eramaten ditu irakurleak, 80ko hamarkadako berun eta suzko egunetara. Idazlanean kontatzen da nola osatu den Iparraldeko jendearekin komando ibiltaria. Komandoko kideek, Frantziako herritarrak izanik, izugarrizko erraztasuna dute Espainia aldean lasai asko mugitzeko inork detektatu gabe, eta atentaturik odoltsuenak egiteko. Komandoko kideek eguneroko bizitza arrunta dute, lan arruntetan aritzen dira eta komandoaz ezertxo ere ez dakiten familiak dituzte. Eta horixe da nobela honetan dagoen puntu bitxieta: nola moldatzen diren pertsonaiak beren iguru hurbilenekoek

ezer susmatu gabe halako bizitza bikoitza eramaten. Bitartean, atentatu odoltsuak egiten dituzte eta hilketaz hilketa 80ko hamarkadako kronika osatzen da.

Eleberria komandoko kideengan zentratzen da, baina kontrapuntu moduan biktima batzuen ikuspuntuarekin ere topatzen da irakurlea.

Pertsonaiak eskizofreniaren antzeko egoeran bizi dira eta ez dira arduratzen inguruan sortzen duten sufrimenduaz, beren burua heroitzat baitute. Iru-di hau apurtuta geratzen da «besteen» ikuspuntua azaltzen denean. Pertsonaiek heroiak direla pentsatzen dute, askatasunaren alde-edo aritzen direla adierazten baitute. Beraien jarretan eta jardunean ideia jaso eta absolutu horiek deuseztatzen dira: sufrimendua sortzen dute, familia engainatzen dute eta, gizonetzkoen kasuan, matxista hutsak dira.



Eskuragarri: 'on line' liburutendetan

Siempre nos quedará París

Las locuras de Yves Saint Laurent, *Scenes de aménages* por Monty Python y el último largometraje de Agnès Varda

LITERATURA

CINE

MODA EN LA RED

El libro
de...

Los locos de toda una vida

ELEBERRIA

Hiri iluna

JAVIER ROJO. ‘Mesfidatu Hitzez’ (Erein) izenburuarekin argitaratu da Jon Arretxeren eskutik datzokigun Mahamoud Toure burkina-fasoarraren abenturen azken entrega. Aurrekoetan bezala, literatura beltzaren parametroen barruan koka daitekeen eleberri baten aurrean gaude, eta literatura beltza eta Toure-k protagonizatu-tako beste nobelaren bat ezagutzen dituen irakurleak berehala identifikatuko du sailaren marka dei litekeen hori. Protagonista afrikarra da eta Europara etorri da bizitza hobe batek liluratuta. Europan non eta Bilboko San Franzisko auzoan bizitzea suertatuko zaio eta bizirauteko asmoarekin ikerketa txikietan arituko da baina nahi gabe ere gero eta larriagoak diren kontuetan nahaspilatuta geratuko da.

Liburu honetan, ordea, aldatketak daude. Garrantzitsuena, agian, gertakarien toki aldaketa.

Aurreko nobelaren argumetua Bilbon gertatu beharrean Nafarroako mendialdeko herri txiki batean kokatzen zen, eta beti bezala egoera korapilatu batetik

pasatu behar zen pertsonaia. Horretatik ihesi, Parisera lekualdatuta ikusten dugu azken entrega honetan, eta gosearen mugan egon beharrean, lapurketak egin da ekonomikoki askoz lasaiago dagoela ikusten dugu. Egoera ezin orekatua izan eta berriro ere ezagun bati laguntzeko ikerketa nahasian murgilduko da, non txinatar mafiarekin topatuko den. Paris distiratsuaeren atzeko aldea erakusten digu nobelak. Eta hirian, pertsonaiak txotxongiloak izango balira bezala hariak mugitzen dituen botere ilun baten presentzia, ustelkerian lasai asko mugitzen diren polizien joan-etorriak, prostituzioa, trapitxeoak eta Parisera doazen turistek ikusten ez duten mundu ezkutua.

Nobelatik nobelara planteatzen den bilakaera ere ikusgarriagoa da hemen, umore ironikoa zeharo desagertu baita, trama beltzean gehiago zentratzen delarik, irakurleak jakin-minez irentsiko duen argumentu korapilatu eta interesgarria sortuz.





Errepidean

JAVIER ROJO

Pello Lizarralde berebiziko abildadea du narrazio batean xehetasunak islatzeko. Momentu oro hitz egokia erabiltzeko ahalmena du eta xehetasun horien artean sentsazioei dagozkienak lehenengo plano batean agertzen dira, halako moduan non gai baita irakurleak sentsazio sare horretan murgilarazteko. Abilezia honen beste froga bat utzi digu 'Argiantza' izenburuko nobela labor honetan. Argumentuak, azalekoenari erreparaturaz gero, ez daukala interesgarria izateko gauza handirik ematen du. Izan ere, zine aretoak dauzkan enpresa bateko gerenteak bidaiari egiten du aretoak ikuskatzeko eta pertsonaia, beraz, ezer berezirik ez duela dirudien bidaiari batean sartuta ikusten dugu. Ez da ahaztu behar bidaiari beste klabeetako bat dela Lizarralderen literaturan. Errepide literatura egiten du askotan eta, gure inguruak honelako literatura egiteko oso egokia ez badirudi ere, hor daukagu idazlearen magia edozein bidaiari arrunt misteriotsu eta transzendente bihurtzeko.

Kontakizuna hiru mailatan gauzatuta dago. Alde batetik hiruga-

ARGIANTZA
PELLO LIZARRALDE
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 88.
Prezioa: 12.00 euro.



ren pertsonaia idatzitako atalak dira, zehatzak. Bigarrenaz, gerenteak berak lehen pertsonaia kontatzen duen ardura hartzen duen atalak, non bidaiariak uzten dion inpresioa eta bere bizitzari buruzko zenbait xehetasun azaltzen diren, doi eta egoki. Eta hirugarren mailan bidaiari topatzen dituen pertsonaiekin beren ikuspuntua eskaintzen dute. Idazkeran ere desberdintasunak islatzen diren hiru maila horien bidez erreferentzia gurutzatuen sarea sortzen da, eta irakurleak poliki-poliki osatu ahalko du bidaiari honen izaera.

Argumentuaren garaia zehatza da, 80ko hamarkadaren hasiera. Lekuak, ordea, misterio giroan irudikatzen dira, eta bidaiari arruntak labirinto batean galduta dagoen pertsonaia ibilbidea bihurtzen da. Esperientzia estetikoia ia thriller bilakaturik erakusten digu nobela bikain honek.

Laugarren Atala

Poesia

Lurra eta amodioa

José Luis Otamendik poesia arloan kritika saria irabazi berria du liburu honekin. Idazle hau ez da euskal literaturan ezagunenetakoa, baina hamabost urteko ibilbidea egitu du dagoeneko poesian. Hamabost urteko ibilbidea eta bost liburuko emaitza. *Lur bat zure minari* izeneko liburu hau bi zatitan banatu du, eta bi zatik *Polderrak* eta *Almitzak* izenekin bataiatu ditu. Iradokizunez beteriko izenburuak eta liburuaren banaketak



POESIA

JOSE LUIS OTAMENDI
Lur bat zure minari

SUSA
IRLINA, 1995
60 ORR 1200 PZTA.

berak hambat klabe eskaintzen dizkigu liburua ulertzeko. Izan ere, liburuan agertzen diren poemak amodiozkoak dira, baina amodio hau ez zaigu era idealizatu batean agertuko, ez da amodio erromantikoa izango. Askoz ere hurbilago eta errealago aurkeztuko zaito irakurleari, zeren esfortzuz irabazi eta zaindu behar den amodioaren aurrean baitago. Amodio honek, gauzatuko bada, hurren beharra izango du, lanaren indarraz itsasori irabazitako hurren beharra, hain zuzen. Liburuak sinfonia baten itxura daukala irudituko zaito batzutan irakurleari, oinarritzko zenbait elementu (hitzak zein truditak) liburuan zehar askotan errepikatzen baitira, lanari osotasuna emanez. Bestalde, estloa dela eta, poesia gordina da idazle honena, erretorikari gutxitan amore ematen diona.

JAVIER ROJO

IBILALDIA. ITINERARIO 1950-1999-JUAN MARI LEKUONA (*El Correo*, 1996-06-20)

EL CORREO JUEVES, 20

Una

Bidearen mugarriak

Bere ibilbide poetiko osoari erreparatzen badugu, esan dezakegu Juan Mari Lekuona gaur egun euskal poesiak duen ordezkariarik garrantzitsuen eta hobereena dela. Izan ere, orain arte berrogeitaka urtez luzatzen den bide honetan Juan Mari Lekuona beti saiatu izan da here obra desberdinetan poesiari zerbait gehiago erasten, poesiak euskal kulturari zerbait gehiago eskain diezaión. Bide honetan bere liburuek mugarri desberdinak osatzen dituzte, poesia

molde desberdinak arakutsiz: poesia erromantikoa, existentzialismo humanista, surrealismoa... Eta orain arteko ibilbide honen azken pausuztat. Mimodramak eta ikonoak liburua, non poesia oso kontzeptualaren eta landuaren bidez euskal izaera eta arimaren bila abiatzen baita, poesia ezagutzeko era bat ere badela frogatuz. Mugarri desberdinak, beraz, baina helburu bakar bat: beti aurrera urrats bat gehiago emateko asmoa. Bere poesiaren ikuspegi osoa eskaintzeko, liburu hau dugu. Ez dauka Lekuonaren poesia guztiak (faltu dira, esate baterako, Liburuen karroxa-koak), baina bai gailurrak. Poesiaz gain, erderazko izulpenak eta hainbat idazle eta kritikoren iritzia ere irakur ditzakegu. Eta opari berezi bat: Lekuonaren beraren hitzaurrea, «Neure poetikari buruz» izenburuaz.



OLERKIA

JUAN MARI LEKUONA
Ibilaldia-itinerarioa
(1950-1999)

UPV-EHU
DONOSTIA, 1999
426 CFIR: 1.600 PZTA

JAVIER ROJO

La int

Mundua eta mindura

Felipe Juaristiren poesiaren zenbait giltzarri apatu beharko banitu. Hauexek azpimarratuko nifuzke: errealtateak sortzen duen mindura, malenkoniaren presentzia, eta maitasunarena ere bai, ia-ia salbaidide bakarra baitlitzen... Izan ere, Juaristiren poesia subjektua eta munduaren arteko kontrajarpen ia erromantikotik sortzen da. Poetak oso ondo ulertzen ez duen (edo ezin ulertu duen) mundu batean ikusten du bere burua, eta mundu honen aurrian poesia erantzun gabeko galdera sorta bezala sortzen da. Egoera

honetan gauza konkretu batzuetan baino ezin da aurkitu trauteko indarra, zeren poesiak, dagoeneko, ez baitu baho ideia edo sentimendu orokorrak adierazteko. Juaristik honelaxe definitzen du bere ekintza poetikoa: «*Norberak bizi duen/stant theskorra harrapatu/eta beti guzitrako bihurtzen saiatu*» (84 orr). Errekurtsuak direla-eta, irakurleari irudituko zaio liburu honetako poemak oso sinpleak direla. Ia-ia aforismoen antza hartzen dute askotan. Baina sinpletasun hau iburuzkoa baino ez da, estiluzazio lan miresgarriaren ondorioz lortu baitu erretorikari askotan izaten duen apaingarri-kutsu guztia kentzea. Hitz gutxitan: bai kontzeptuen garapenagatik, bai estiluzazio honengatik benetan liburu ona iruditu zait huu.

JAVIER ROJO



OLERKIA

FELIPE JUARISTI

Galderen geografia

ALBERDANIA
DONOSTIA, 1997.
75 ORR. 1.300 PZTA.

La es

Ahots biderkatua

Olerkia nitasunaren esparru berezkoa omen da; poema poetaren beraren sentimenduen isla zuzentzat hartu izan da askotan. Ohiko iritzi hauen aurka, Juanjo Olaagarrek bestelako bideak ere badaudela erakutsi nahi izan du 'Puskak biziz' poema liburuan. Poetak ageriko nitasuna alde batera utzi du eta, bere ahotsaz mintzatu beharrean, pertsonaia batzuen eskuetan utzi du poemaren ardura. Idazleak asmatutako pertsonaia huel elkarri zuzentzen dizkiote hitzak, beraien artean elkarrizketa antzekoak sortuz. Hitz

hauek, erreferentzia gurutzatuek eta guztia lotzeko gordetzen den hari narratibo ahulak antzerkitik hurbil jartzen du poema liburu hau. Idazlea saiatu da, bere aldetik, poemak sortzen dituzten ahots desberdinak bereizten, bakoitzari bere ezaugarriak emanez. Ez du beti horrela egiterik lortu, ordea. Izan ere, tonu etsian eta denboraren iragatearen aurreko jarrera ezkorrean ia denak oso antzekoak dira, enbor bereko ezpalak, edo olerkari bakarra biderkatzearen ondorioak. Poema asko, gainera, narratiboak dira oso eta beren poematasunak, agertzen direneko testuinguruaren ondorioa ematen du, beren ezaugarriena baino gehiago. Edonoia ere, erromantizismoaz aspertutako irakurleek agian aurki dezakete hemen zerbait desberdin bilatzeko lekua.

JAVIER ROJO



OLERKIA

JUANJO OLASAGARRE

Puskak biziz

SUSA
NAFARROA, 2000
128 OR. 1.500 PZTA.

Las n

Azalaren hutsa

Anjel Errok poesiaren bideak urratu nahi izan ditu 'Eta harkadian ni' izeneko lan honetan. Liburua bi partetan banatuta dago, klasikoak esaten zuen moduan: lehenengoak «Epigramak» du izena; bigarrenak, «Eglogak». Izenek berek iradoki dezakete nondik abiatzen den liburu honetako poesia. Izan ere, mundu helenistikoa gogora ekartzen duen estetizismoa begi bistakoa da lehenengo momentutik. Oihartzun klasikoak dituzten erreferentziak, edertasuna adierateko asmoz egindako hitz joko barrokoak edota paradoxarako

joera erabatekoa izan daitezke helenismo itxurako estetizismo hura adierazten duten zenhait osagai. Baina estetizismo hau guztia itxura hutsa baino ez dela iruditu zait, hau da, barnea hutsik daukan azala, atentzioa ematen duen jarrera soila. Badirudi idazleak zenhait literatur eredu gogoko dituela (Kavafis eta honen eraginez idatzitako poesia), eta horien argipean sailtu dela bere poesia eraikitzen, irakurketei pausatzeko denborarik eman gabe, poesia liburu bat sortzeko beharra izango balu bezala. Itxuran geratzen den estetizismo honen ondorioz liburu zurruna sortu da. Gaztelerazko poesian ora in hogeit urte alde batera urtzi ziren, hemen agertzen diren bezalako bideak, erabiliaren erabiliaz guztiz agortuak.

JAVIER ROJO



OLERKIA

ANJEL ERRO**Eta harkadian ni**ELKARLANEAN
DONOSTIA, 2002
130 ORR. 11,25 EURO

Alre Subjektu poetikoa

NARRATIVA
JACQUES DE DECKER
La noria
TRAD. BLANCA GAGO
BASSARAT
VITORIA, 2003
157 PÁGS. 12 EUROS


Desde que la enfermera El zabeth conversa con Sabne, amiga de la adolescencia y le confiesa su falta de ilusión existencial, hast que ella misma proporciona el ánimo para seguir viviendo con esperanza. Zoe, paciente sometida a un rutinario chequeo médico se han sucedido diez relatos, diez diálogos de diferente signo. Todos se concatenan en 'La noria', un novela del belga Jacques Decker recientemente presentada por la editoria Bassarati. Con la parsimonia y falta de estrópiteo del tradicional atracción d feria, con una naturalidad sencilla, sin forzaciones, los personajes se el testigo de la narració sobre sí misma hasta cer primera protagonista y u poco proyecta para adu brios como la cama de un

Atrás hemos dejado u de hechos faltos de arreb una obra carente de acont excepcionales, pero que i trasladar continuamente sentimientos, emociones sin sabores y frustraciones nunca explicitadas, p proclives a manifestarse

Las caras

Abril de 1901. Pablo Ruiz Pí so tiene sólo 20 años y acaba regresar a París. Su am Carlos Casagemas se ha quitado la vida. Mientras ricaba su primera exposic en Vollard, no tendrá el me inconveniente en ganar confianza amorosa de la a go íntima que aquel dejó a gojada por su radical acci Henry Gidel, crítico liter y biógrafo, parte de las circunstancias que rodea Pléssis, de cuya muerte Francia se cumplieron a treinta años, para estable una biografía crítica del g artista, a base de catas e mundo de relaciones y el d rrollo de su agitada acti sexual dentro y fuera de matrimonios. Cada lenco a roso, cada relación -de la i con personajes como Max. ven al autor para estable muchas veces desafiada y carísima obra. En medio las épocas, Gidel parece a siada complacencia sin m a que la creación del mito l detrás. Gidel no discute al el trabajo creativo, y tan l los precios como generoso trabajo. Sin embargo, int fenómeno desde su raíz, co que a veces se dedica a las partes dedica das a la época de la ocupación nazi, en que Pí aso permanece en París, y a la evolución de su temporal militancia en el Partido Comunista.

'Mailu isila' izenburua du Juan Kruz Igerabidek, irakurle heldua buruan, argitaratu duen azken poema liburua. Lehenengo momentutik nabarmena egingo zaio irakurleari liburuaren planteamendu orokorra. Hiru zati dauzka, ia-ia dialektiko dei litekeen banaketa batean aurkeztuak. Lehenengo zatian, inguruko erreallitate gordinean oinarritzen da poesia. Poesian ohitutako edozein irakurlek erraz identifikatuko ditu bertan literaturaz egiten diren behin eta berriroko erreferentziak. Bigarren zatian ere erreferentziak begi-bistakoak dira gehienetan. Ikuspuntua aldatu da, ordea. Erralitate gordinean aritu beharrean, idealismoz murgildutako poesia goi-arnastua agertzen zaigu hjemen. Hirugarren atalak atalik pertsonalena dirdi. Poesia munduaz edota zeruaz aritu beharrean, subjektu poetikoaz aritzen da eta eguneroko bizitzan egiten diren ekintzetan oinarritutako poesia eskaintzen du. Izan ere, subjektua erreallitatearen eta idealismoaren artean harrapatuta sentitzen delarik, bere buruarengana biltzen ditu begiak, eguneroko hizkeratik hurbil dagoen adierazpen poetikoa erabiliz. Dena dela, ohiko munduan mugitzen den poesia intimista honetan ere, ez zaio ekintza arruntan atzean dagokeen transzendentzia bilatzeari uko egiten.



OLERKIA
JUAN KRUZ IGERABIDE
Mailu isila
ALBERDANIA
DONOSTIA, 2002
144 OR. 13 EUROS

JAVIER ROJO

J.A.GONZÁLEZ CARRERA

arruntan atzean dagokeen transzendentzia bilatzeari uko egiten.

JAVIER ROJO

guerra de Irak. Las se en una entrevista a Robert Bandinter sobre la construcción europea.



NARRATIVA, FICCIÓN
MARIANNE CURLEY
Los elegidos
SALAMANDRA
BARCELONA, 2003
200 PÁGS. 12 EUROS

Historia de adopción

'Historia del Ganges', Asha cuenta la historia de una niña que es la suya y que crece en el orfanato de cuando empieza a ser menos unos padres. Cuando la niña tenía tres años ese sueño se cumple en Barcelona para ser adoptada por una nueva familia. Después volverá a su país para reencontrarse con su familia y su identidad que se fue perdiendo durante la



MANIFIESTO
LOU MARINOFF
Pregúntale a Platón
TRAD. GLORIA SANJUAN
EDICIONES B
BARCELONA, 2003
160 PÁGS. 10 EUROS

Historia de adopción

Historia de Marcel Moring es el libro 'En Babilonia', sarcástico y cuyo protagonista es un holandés, último vástago de una familia del mismo nombre que cuenta que acude a la herencia de un tio suyo para cumplir la voluntad de éste de escribir su biografía. En la historia pasa cinco días en París y reviviendo la vida de su familia de refugiados que llegaron a Holanda al límite entre Polonia y Francia para crear una saga.



EL NOTICIERO Nº 14
Dir. Fernando García de Cortázar
EL GRUPO CORREO
PRENSA ESPAÑOLA
MADRID, 2003
96 PÁGS. 6 EUROS

Mezu galduak

JAVIER ROJO

Azken urte hauetan Castillo Suarez-en izena poliki-poliki ezaguna egin da euskal poesiaren arloan, eta lortzen ari den emaitzak ikusita, ez dago zalantzarik azken belaunaldiko poeta interesgarrienetako bat dela. 'Spam poemak' bere azken emaitza poetikoa da. Izenburuak iradokitzen duenari kasu egi-

nez, poema hauek noraezean zabaldutako mezuen parean daude, nork irakurriko zain. Amodioaz hitz egiten dute askotan, baina momentu guztietan gai honetaz aritzean ia ohar-kabea ager dakizkigukeen topiko erromantikoak alde batera uzten saiatu da. Amodioa agertzen zaigu, baina hau ez da ezeren sublimazioa, naturaleza ez dugu hor poemaren ondoren gaiari marko egoki eta polita jarri nahirik. Amodioa pertsonen arteko harreman bat besterik ez da. Harreman hau, dena dela, absentiaren bidez ere nabarmen daiteke, presentziaren bidez bezainbeste edo gehiago. Halaxe gertatzen da askotan hemengo poemetan, absentiak markatutako amodioaren berri ematen baitzaigu. Lirismoari itzuri egiten dio

idazleak poema hauetan. Eguneroko hitzetan bilatzen du lehengaia eta batzuetan pratik hurbil dagoen poesia erraza dela dirudi. Baina azaleko erraztasun honen azpian, sakontasunik ez dute falta poema hauek.

Olerkia



Castillo Suarez
Spam poemak

Argitaletxe
Elkarlanean
Donostia, 2004
Orrialdeak 108
Prezioa 10,80 €

Giza kondizioa

JAVIER ROJO

Felipe Juaristik nobela, haur eta gazte literatura eta poesia txandakatu ohi ditu bere literatur jardunaldian. Honetan, poesiaren txanda izan da Begi-ikarak izeneko liburu honekin. Juaristiren poema hauen bidez ez zaizkigu sentimenduak adierazten, edota, zehazkiago esateko, sentimenduak ez ezik,

bestelako gauzak ere eskaintzen zaizkigu, sentimenduen gainetik nabarmentzen direnak. Poema liburu honetan, ideiez hitz egiten zaigu, giza kondizioaren inguruan hausnarketa egiten den aldetik. Izan ere, badirudi idazleak gizakia definitzen duena zer den bilatu nahi duela. Gauzak honela, Juaristiren poesian gizakia itxaropenaren eta minaren arteko lehian murgilduta ikusten dugu. Poesia abstraktua da, oinarriko metafora batzuen inguruan biltzen dena. Argia, airea, urdina dira horrelako osagai metaforikoak, eta gizakiak horietara heldu nahi luke. Baina gaua, bakardadea eta mina indartsuagoak izan eta, horren ondorioz, batzuen desirak eta besteen errealitateak osatzen dute

gizakien mundua. Ezkor hitza egokia izan liteke poesia hau definitzeko. Idazlea momentu guztietan saiatzen da nitasunetik aldentzen, kontatzen dena esperientzia pertsonaletik haraindiago baitago, orotara heltzen den giza kondizio hura islatu nahian.

Olerkia



Felipe Juaristi
Begi-ikarak

Argitaletxe Erein
Donostia, 2004
Orrialdeak 88.
Prezioa 8,9 €

Sakoneko errealitatea

JAVIER ROJO

Juan Kruz Igerabidek aforismo-bilduma idatzi du 'Egia hezur' izenburua duen liburu honekin. Izenburuak berak markatzen du zeintzuk diren honelako literaturaren ezaugarri nagusiak. Zerrenda txikia eginda honela defini litezke: azaleko errealitatearen atzean (hau da, itxurazko errealitateri kontrajarrita),

sakoneko errealitate bat daukagu, benetakoa; sakoneko errealitate honen eta azalekoaren artean paradoxazko harremana dago, beraz, kontrakoak izaten dira bi errealitate maila horiek; ironia ere onartzen da batzuetan, sakoneko errealitate hori espiritualitatearekin parekatzen denean eta errealitate materialetik gehiegi urruntzen denean; edonola ere, sakon zein azal, edozein errealitate beti da erlatiboa. Aforismoak batzuetan gregeriaren itxura hartzen du, eta irakurleari umore surrealista eskaintzen zaio. Bestetan, haiku baten aurrean gaudela pentsa genezake, ahapaldi horren itxura emango bagenio esaldiari. Mundu moderno oso ondo ulertzen ez duen pertsona dirudi idazleak eta jainkorik gabeko erlijio

batean sinetsi nahi luke. Ez ahaztu, dena dela, aforismoak hutsik dauden botilak direla, irakurleak esanahiz bete behar dituenak. Hitzek beti gezurra baitiote, esaldi honetan bezalaxe.

Aforismoak



Juan Kruz Igerabide
Egia hezur

Argitaletxe
Alberdania
Donostia, 2004
Orrialdeak 104
Preziora 11 €

Itsasoa eta ispilua

JAVIER ROJO

Leire Bilbao poesiaren alorrean eskaintzen duen lehen emaitza da 'Ezkatak' izeneko liburu hau. Poesia da, eta generoari askotan eskatzen zaion bezala, hasiera batean lirikaren ohiko bideetatik abiatzen dira poema hauek, poetarekin identifika daitekeen 'ni' eta zehaztu gabea den 'zu' batzuen

arteko elkarrizketa moduko batean gauzatuak. Edonola ere, poesiaren subjektuok inposatzen dituzten mugak gainditzen saiatzen da idazlea, eta hasierako poemetan ia erabateko den jokaera hori motelduko da liburuan aurrera egin ahala, beste pertsona batzuk ere subjektu poetikoen esparruan sartuta. Badirudi poema liburu honetan irudi batzuk klabeak direla, adibidez, itsasoarekin zerikusia daukatenak, idazlearen jatorria kontuan hartuta erraz ulertzekoa dena. Dena dela, irudi klabe horien artean inportanteena ispiluarena iruditu zait, liburuan zehar agertzen diren planteamenduak irudi horretan laburbilduta agertzen baitira. Irudi honen bidez identitatearen gaia agertzen

zaigula esan daiteke, izatearen eta itxuraren arteko lehia zaharra berrituta. Izan ere, idazlea batzuetan poeta moduan ez ezik, pertsona moduan ere bere tokia bilatzen ari dela ematen baitu.

Olerkia



Leire Bilbao
Ezkatak

Argitaletxe Susa
Nafarroa, 2006
Orrialdeak 80
Prezioa 10 €

Kundera



Haikuak eta aforismoak

JAVIER ROJO

Karlos Linazasorok poema liburu bat eskaini die euskal irakurleei, 'Zein beste mundukoa' izenburupean. Eta

zein bildumatan argitaratu den ikusita (Elkar etxeak argitaratzen duen 'Bizi taupadak' izeneko bilduma, hain zuzen), gaztetxoei zuzendutako poemak direla zehaztu behar da. Linazasorok gustukoa du aforismoak idaztea, eta poesia aritzen denean ere, ia estilomarkatza hartu daitekeen zaletasun hori azaleratzen zaio. Izan ere, liburu honetan agertzen diren poemak poema laburrak dira, askotan hiru lerrokoak besterik ez, haikuak izango balira bezala. Eta aforismoak idazterakoan gertatu ohi den bezala, honelako poematoxak idazterakoan ere idazleak joera handia erakusten du paradoxak agertzeko. Paradoxak neurri handi batean islatzen du begi aurrean dugun munduak sortzen duen harridura, halako mundua ez baita guztiz ulergarria gertatzen, bere alde ilun eta ezkutuekin.

Liburu honetan gai bat eta irudi bat nabarmentzen dira. Gaia, maitasuna da. Norberak dituen hutsuneak (bakoitza osatugabeko izakia baita) betetzen laguntzen du maitasunak, norbera 'norberagoa' izan dadin, hemen ere paradoxa na-

gusi delarik: maitasunak norberak dituen hutsuneak nabarmentzen dituen neurri bereberean, hutsune horiek gainditzeko aukera ematen baitio, bestearengan aurkitzen baitu batek ments duena. Trenaren irudia, bestalde, existenziaren

metaforatza har daiteke. Eta gure eguneroko bizitzetatik bidaiak luzeak erritmo motelean egiteko balio zuten tren arruntak desagertzen direlarik, trenak ia mitiko bihurtzen dira, eta beren izaera metaforikoa nabarmentzen da. Trena existenziaren metafora izan daiteke, eta inpresio hau handitu egiten da liburu honetako beste sail batean agertzen diren haikuak ikusita, Linazasorok hilabete bakoitzari haiku bat eskaintzen baitio, naturalezaren erritmoetan oinarrituta. Haikuak dira poema gehienak, eta honek esan nahi du batzuetan poemak txinparta modukoak direla, irudi distiragarriak. Besteetan, naturaleza begiratzearan sortzen diren inpresio xumeak dira, eta noizean behin, hizkuntza-

rekin jolas egiteko gonbitak. Eta poema hauek haiku izateak justifikatzen du liburu hau gaztetxoentzako bilduma batean agertzea, zeren laburrak, itxuraz sinpleak, hizkuntzarekin egindako jolasak izateak hurbildu baititzaizke poema hauek gaztetxoentzako mundura. Existenziaz hitz egiten dute, ordea, eta nago irakurle helduek hobeto baloratuko dituztela.

Olerkiak



Karlos Linazasoro
Zein beste mundukoa

Argitaletxea Elkar
Donostia 2008
Orrialdeak 84
Sainneurria 7,75 euro



Loturetan sakonduz

Lotur

:: JAVIER ROJO

'Scanner' izenburua daraman liburu honek bigarren mugarrira jartzen du Leire Bilbao poesiaren alorrean egin duen ibilbidean, 2006an argitaratu zen 'Ezkatak' izenburuko haren ondorengoa. Liburu honetan agertzen diren poemak zuzenak dira, eta normalean lirikotasunarekin erlazionatzen den hizkeratik urruntzen dira bertoko lerroak. Izan ere, lirikotasunaren izenpean askotan postromantizismo moduko bat ezkututzen da, eta estiloaz behintzat, hemengo poemek ez dirudite zerkusi handirik dutenik postromantizismoarekin. Liburu honetan argitaratzen diren poemak sei sailetan antolatuta daude, antolamendu horren oinarrian gaiak daudelarik. Poema batzuetan, 'Amaz erditu naiz' deitzen den sailekoetan, agertzen zaigun gai ardatz hori amarekiko harremanean aurkitu ahal dugu. Poetak bere burua ikusten du islatuta amaren irudian, eta antzekotasunak eta desberdintasunak kontuan hartuta, bere identitateari buruzko hausnarketan aritzen da. Izan ere, bera eta ama izaki desberdinak izanik, badago hari bat biak lotzen dituen, eta lotura hori funtsezkoa da subjektu poetikoarentzat. Harantzago joan gintezke harreman honetan eta amaren eta alabaren arteko erlazioa klabe sinbolikoan uler liteke.

Beste poema batzuek gorputza dute hizpide. Alde honetatik deigarriak dira 'Galdere bat da gorputza' saileko poemak, eta esanguratsua sail horretarako hautatu duen hitza,

'galdera' alegia. Sentsazio fisiokoez hitz egiten dute eta gizakiaren gorputzasunean sarkontzea dute helburu. Batzuetan sentsualitate handiko poemak izatera heltzen dira. Eta gizakiaren gorputzasunaz aritzean animalien irudiak agertzen zaizkigu askotan, gorputzasun horretan gizakiaren animalitasuna ere aurkituko balitz bezala. Leire Bilbao bere poesia egiteko irudien iturria hurbileko munduan aurkitzen du, eguneroko gauza arruntetan bilatzen baititu sinboloaren mailara igotzen saiatzen den objektuak. Eta batzuetan objektu horien erabilera kontuan hartuta, irudien erabilera surrealismo ukitu baten aztarnak uzten ditu: «belarra aterra zaio etxeko sofari» bezalako lerroak idazten ditu Bilbao (bide batez esanda, Tom Waits-en kantu baten oihartzunak dakartzana).

Edonola ere, liburuan nagusitzen den sentimendua, batzuetan ezkutuan besteetan agerian, arrotasuna da. Bizitza mundu ezezagun batean zehar egindako bidaia izango balitz bezala, izakiak umezurtz aurkitzen dira. Hortik amari lotzen dion haria indartu beharra.



SCANNER

Egilea: Leire Bilbao. Olerkiak.
Argitaletxea: Susa. 94 orr.
Zerautz, 2011.
Saiameurria: 13 euro



Metrika saioak

✪ JAVIER ROJO

Batzuetan ematen du Karlos Linazasorok denbora garaitu nahi duela literaturaren bidez. Esan nahi dut literatur lanak idatziz denborak inposatzen dituen mugak gainditu nahi dituela, garaien gainetik igaroz iraute moduko bat lortzearren. Eta denbora erreala, benetakoa, labur zaiolarik, azken uneraino bete behar du literatur sorkuntzan murgilduta. Xerezade sindromea dei genietzaioke honi. Bere ibilbide ugari horretan aurki dezakegun azken emaitzetako bat da 'A zer lau elementu!' deitzen den liburua. Liburua eskuen artean hartzean irakurleak gaztetxoei begira eginda dagoen poema liburu baten aurrean dagoela esango du. Horixe izango litzateke lehenengo inpresioa. Eta horrexegatik bakarrik izango balitz ere, liburu interesgarria izango litzateke. Izan ere, poesia gure literatur sisteman bazterrean dagoen generoa da, narraitibaren nagusitasun osoaren aurrean, poesiari ia-ia espazio sinbolikoa (sinboloaren espazioa) baiziki utzi ez zaiolarik. Eta eske-ma hau errepikatuta ikusten dugu irakurle gazteei begira egiten den literaturan ere.

Dena dela, zentzu estu batean, liburu honetan poesiaren alorra erdia baino ez da, poemez gain bestelako testuak ere agertzen zaizkigu: hiztegi moduko testuak, aforismoen parekoak, antzerki laburraren itxura duena... Hau da, gazteei begira sortutako miszelanea bat, non atal guztiak batzen dituen osagaia tradizioan lau elementu nagu-

sizat hartzen ziren horien presentzia baita. Liburuaren hezurdura (ikuspuntu tradizional horretatik begirata unibertsoarena bezala, bide batez esanda) suaren, lurrraren, uraren eta airearen presentziak markatzen du. Lehen esan bezala, poemek hartzen dute zatirik handiena. Lau gai, elementu horiek agertzen zaizkigu poema horietan. Baina, batzuetan, lau elementu horien presentzia poemak sortzeko aitzakia baino ez dela iruditu zait.

Poemek bi ezaugarri nabarmen dituzte: Alde batetik idazleak ahalegina egin du metrika mota desberdinak erabiltzen, gure artean batere normalak ez diren ahapaldi motak agertuz. Alde hone-

tatik aztertuta, metrika ikastarotzat ere hartu daiteke liburua. Bestaldetik, liburua eraiki egin dela esan daiteke, hau da, ez dela inspirazioaren ondorioz sortu, baizik-eta alde aurretik egindako planifikazioan duela jatorria. Eta jakina, nerabezaroaren hasieretan dauden irakurleentzat pentsatuta dagoenez, irakurleok erakarri behar, eta horretarako maitasuna bezalako gai bat ere erabiltzen du askotan.



A ZER LAU ELEMENU!

Egilea: Karlos Linazasoro.
Olerkiak.
Argitaletxea: Pamiela, 88 orr.
Irudia, 2013.
Salneurria: 8,20 euro



Gu eta haiek

:: JAVIER ROJO

Euskaraz egin ohi den poesiaren barruan badago eredu bat, denborarekin ia estandar bihurtuta agertzen zaiguna. Poesia mota honetan 'gu' bezala definituta agertzen den osagai bat aurkitzen dugu. Era desberdinetan osaturik aurkezten zaigu 'gu' hau, baina batzuetan 'ni' eta 'zu' dira haren atal nagusiak. Bi elementu hauen artean harreman afektiboa, amodioa, eraikitzen da. Bestalde, 'haiek' bezala defini daitekeen bestelako osagaia topatzen dugu, aurrekoarekin kontrajarrita. 'Haiek' arrotzak dira, 'gu' barruan sartzerik ez dutenak, 'zuk' eta 'nik' osatzen dugun 'gu' hori nola-bait suntsitzeko asmoa dutenak. 'Gu' afektibitatearen erakuslea den neurrian, 'haiek' gaiztakeriaren esparrutzat har litezke. Honelako oinarriak erakusten ditu Mikel Etxaburuk idatzitako 'Hodeiak zapatetan' poema liburuak. Idazlearekin erraz identifikatzen den subjektu poetikoa (autobiografiaren presentzia nabarmena da-eta) bere amodioaren helburua den objektuarekin erkidego antzeko bat osatzen du, non kanpoko osagaia, inguru erasokor baten erakusgarri den osagaia, sartzerik ez dagoen.

Poemak eraikitzeko, ohikoa izaten den iruditeria erabiltzen du idazleak, bi metafora nagusiren inguruan antolatua: itsasoa eta

kartzela. Begi-bistako esanahiaz horniturik agertzen dira bi irudi horiek, askatasuna eta askatasun-eza adierazten baitute hurrenez hurren. Baina bestelako konnotazioak ere aurki ditzakegu beraien erabileretan. Kartzelak errepresentatzen duen errealtate hurbilaren aurrez aurre itsasoak irudikatzen duen itxaropena dugu, oraindik ere bete ez diren desioen esparrua baita. Baina jaki-

na, momenturen batean amestutako ilusioen benetako izarearekin egiten da topo. Kartzela inguru erasokorra izan daiteke, baina horren aurrean ilusioak eraikitzen direlarik, ilusio horiek mantentzen dituen babeslekua ere bada kartzela: «[...] badiotsut/ maiteago izan dudala/ ziegako paretan artean/ amestu nuen herria». Horixe esaten zaigu 74. orrialdean, kartzelaren errealtateaz haraindi dagoen errealtateaz gordintasun osoz azaltzen denean. Izan ere, bertako poemek batzuetan neke handirik gabe irakurketa politikoa izan dezakete, ia-ia alegoriaren mugan baitaude.

Eta inguru erasokortzat hartzen zuenaren aurka amestutako aberri batean sinistu duenari nekeza gertatzen zaio aberri hori ezinezko ametsen munduan baino ez dagoela onartzea, errealtateak, ilusioen gainetik, bere arauak inposatzen dituelarik.



HODEIAK ETA ZAPATETAN

Egilea: Mikel Etxaburu.
Olerkiak, Argitaletxea:
Susa. 80 orr. Zarautz,
2014. Salneurria: 12,50
euro




Euriaren inguruan

LAINOA
JANEZ

JUAN KRUZ IGERABIDE

Generoa: Olerkiak.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 96.
Prezioa: 11 euro.



:: JAVIER ROJO

Juan Kruz Igerabideren azken poema liburua metafora handi baten inguruan egituratuta dago. Liburuak Lainoa Janez du izenburua baina metafora handi hori zeharka baizik ez da aipatzen izenburu horretan. Osagai egituratzaile moduan agertzen den irudi hori euria da. Lehenengo momentu batean euri-garaitik idatzita dagoela ematen du. Talai horretatik begira agertzen zaigu subjektu poetikoa. Atzera begira dugu beraz, oroitzapenetan bere izaera aurkitzen baitu subjektuak. Alde honetatik, oroitzapenen eta egitasmoen orekaren aurrean nabarmena da subjektua oroitzapenen aldean jartzen dela, gehiago baitago iraganera begira etorkizunera baino. Baina nostalgiaz betetako begirada egon litekeen leku horretan idazleak iro-

nia puntu bat jartzen ere jakin du. Eta horretarako poeta bere burua urrunetik ikusteko gai agertzen zaigu, nitasuna subjektu moduan ez ezik objektu moduan ere aurkezten duelarik. Baina euriak izaera bikoitza duen aldetik aukeratu da irudi hori ardatz moduan agertzeko, azken finean kontrakoak batzeko ahalmena baitu. Euria poema batzuetan zerua eta lurra lotzen dituen hari modukoa da, zerua lurra hurbilduz, zerutiara eskueran utzita. Baina batez ere euriaren izaera bikoitza urtaroekin erlazionatzen denean agertzen zaigu. Lehenengo momentuan udazkeneko euri baten aurrean kokatzen gara poema hauetan, baina udaberrikoa ere bada euria, eta orduan amaiera baten iragarle izan beharrean hasieraren iradokitzaile dugu euri hori. Euriaren irudian malkoak daude, noski, baina baita ere lurra eradoskitzen duen ura. Existentziaren metafora bezala agertzen zaigu horrela, heriotza eta bizitza batuz. Bere poemetan Igerabidek esentzialera jotzen du, haikuetan ohikoak diren baliabideak edozein poematan ere erabil daitezkeela erakutsiz; hitzak, beraz, biluzik agertzen zaizkigu, apaindurarik gabe, azken finean Igerabidek poemak egiteko duen teknika soberan dagoen guztia kentzean baitatza. Artea, literatura eta filosofia lagun dituelarik, poesia honetan Igerabide gizakiak gizakiago bihurtzen dituen transzendentziaren bila dabil, gizakia beti erdigunean jarrita.

MUNDUA BETETZEN ZENUTEN-TERE IRASTORZA (*El Diario Vasco*, 2016-01-23)

Sábado 23 0116
EL DIARIO VASCO

LIBROS | CULTURA | 71

Los días venidos

Desamor en la bandiera

Los problemas del detective

Biografía de Shakespeare

Hildakoen hutsunea

MUNDUA BETETZEN ZENUTEN
TERE IRASTORTZA
Generoa: Olerkiak.
Argitaletxea: Pamiela.
Orrialdeak: 112.
Prezioa: 13,50 euro.



:: JAVIER ROJO

Tere Irastortzaren azken poema liburua, 'Mundua betetzen zenuiten' izenburuarekin argitaratu den idazlana, heriotzaren gaiaren inguruan antolatuta dago. Bere ibilbidean Irastortzak gure artean dauden poetetan hoberenetako bat delako frogara asko utzi ditu orain arte, eta liburu honek hori berretsi baino ez du egiten. Bere poemetan agertzen den bezala, heriotza hutsunea da, hildakoei betetzen zuten espazioa (begiratu izenburua) hutsik geratzen da. Eta hutsune honek poeta umezurtz uzten du. Besteengan ikusten zuten nolabait islatuta bere burua, edo besteengandik jasotzen zuten horretan gauzatuta agertzen zen bere izaera, eta besteak falta direnean izaera hori kolokan dagoela ikusten du. Poema askotan iradokitzen den bezala, denbora

gelditzea desiratuko luke, denbora gelditzearekin batera heriotza bera ere desagertuko balitz bezala. Baina denborak berezkoa du mugimendua, eta mugimendu honekin batera heriotza. Heriotza, edonola ere, ez da gehienetan gai abstraktu moduan aurkezten. Pertsona konkretu batzuen faltaz ari zaigu. Are gehiago, poema batzuk pertsona horiekin egindako elkarrizketa moduan antolatuta daude, idazleak hildakoei egindako interpelazioak izango balira bezala. Hildakoei, baina, ez dute erantzuten. Isiltasuna baizik ez du jasotzen haiengandik. Irastortzak, dena dela, zenbaitetan abstraktura jotzen du eta testu filosofikoak ere planteatzen ditu. Heriotzaren aurrean oroitzapena geratzen da, besteak oroitzea, heriotzaz ondoko bizitzan sinestea ezinezkoa baitzaio. Eta idaztea ere bai, asmatzea heriotza bera gaindi dezakeen ekintza baita. Irastortzaren poemek zer pentsatua ematen dute, irakurtzeko gutxienezko baretasuna eskatzen dute, eta bere hitzak, zehatzak eta iradokizunez beteak beti, eguneroko harrabotsetatik aldentzeko gonbidapenak dira. Eta baretasun honi lotuta, itsasoaren irudiak zeharkatzen du idazlan hau, heriotzaren alderdi bikoitzaren erakusgarri, beldurtzen duen neurri berberean erakargarria baita itsaso. Irastortzak lortu du idazle askok desiratuko luketena: modetatik aparte bere literatur ibilbideak zentzu osoa izatea.

MAITE POEMAK HASIBERRIENTZAT-JUAN KRUZ IGERABIDE (*El Diario Vasco*, 2016-06-18)

Sábado 18 de 16
EL DIARIO VASCO

| LIBROS | CULTURA |



Lehenengo amodioak

**MAITE POEMAK
HASIBERRIENTZAT**

Egilea: Juan Kruz Igerabide.

Generoa: Gazte poesia.

Argitaletxea: Denonartean.

Orrialdeak: 56.

Prezioa: 7 euro.



|| JAVIER ROJO

Juan Kruz Igerabideren eskutik heldu zaio euskal irakurleari Maite poemak hasiberrientzat izenburuko idazlana. Kasu honetan izenburuak oso ondo laburbiltzen du irakurleak bertan aurkituko duena: maitasun poemaz osatutako idazlana da, eta irakurle gazteei zuzendutakoa. Gazteentzako poesia, beraz. Askotan pentsatzen denaren kontra, gazteak ohituta daude poesia moduko testuetan beraien sentimenduak islatzen dituzten hitzak bilatzen. Kontua da testu horiek eta poesian adituak diren irakurle helduek poesiatzat hartuko lituzketenak ez datoze-la bat askotan. Gazteak beste inguru batzuetan bilatzen dute osagai poetiko hori: abestietan edota interneten aurki daitezkeen hainbat testutan, adibidez. Hortaz, ez dugu pentsatu behar haiei poesia arrotz

zaienik. Testuinguru hau kontuan hartuta, lehenengo eta behin azpimarratu behar da Igerabidek, poesia eta gazte literatura oso ondo ezagutzen dituelarik, badakiela gazteen interesekoak izan daitezkeen testuak prestatzen. Izan ere, aurreiritziak alde batera utzita, bera izan zen nerabea begi aurrean paratu eta nerabe haren kezak, ideiak, zalantzak azaltzen ditu testu hauetan. Idazlan honetan lehenengo amodioez aritzen da eta ikuspuntua amodio horiek gogoratzten dituen helduarena da. Baina ikuspuntu horrek eskaini lezakeen talaia baztertua, nerabezaroko begirada errugabea berreskuratzen saiatzen da. Poema hauetan ikusiko dugu nola gogoratzten diren dudak eta ezinegona, beldurrak eta zalantzak. Gorputzari buruzko erreferentzia ugari agertzen zaizkigu. Sexuaz ere aritzen da, baina kasu honetan idazleak zeharkako erreferentzien bidez egitea erabaki du. Lehenengo amodioetan agertzen diren gorabeherak azaltzeko musikaren garrantzia azpimarratzen da gitarra objektu enblematiko moduan azaltzen zaigularik. Lehenengo amodioak lurralde ezezagun batean egindako abenturen parekoak dira. Eta abentura hauek beren alderdi txarrak ere izan ditzakete: hortaz, ezinbestean desamodioa edota norabide bakaerreko maitasuna aipatu beharrekoak dira. Nerabeentzako liburua da hau, baina ziur nago irakurle helduek ere gustura irakurriko dutela, aurreiritziak bide bazterrean utziz gero.



Lekukotasuna

✎ JAVIER ROJO

Azken urte hauetan Alaine Agirrek agerpen indartsua egin du euskal literaturan, eta, haurrentzako idazlanak egiten eta nobelagintzan aritu ondoren, poesian ere utzi nahi izan du bere lanaren emaitza. Azken genero honi dagokio 'Txoriak etortzen ez diren lekua' izenburuarekin argitaratu den idazlana. Idazleak ez ditu inoiz ezkutatu osasun psikikoa dela-eta izan dituen arazoak, arazo hauek literatura egiteko ardatz moduan aurkeztu baititu. Eta halaxe egin du liburu honekin ere. Poema liburu labur honek psikiatrikoan sartuta iragandako garaia du abiapuntua, hango bizitzan ohikoak diren gertakariak kontagai direlarik. Bertan kontatzen dena, beraz, guztiz pertsonala da, ia aitoren modukoa, non idazleak bere barrua agerian uzten duen.

Liburu honetako poemetan idazlea psikiatrikoko bizitza azaltzerakoan erabiltzen duen egunerokotasun hori transzenditzen saiatzen da, existentziaren metafora bihurtu nahirik, inoiz ere bere burua adierazi nahi duela ahaztu gabe. Bertako bizi-penak eta gertakariak aurkezten diren moduan, psikiatrikoa kar-

tzelarekin parekatu daiteke, bertan bizi delarik, askotan ulertzen ez dituen arauak betetzera behartuta baitago. Eta berehala sortzen da leku horrekiko herra. Ezinezkoa baita bertan eroso egotea, inguru horren eta subjektuaren artean erabateko etendura dagoen aldetik. Edonola ere, leku arrotz horrekiko desegokitasunean gertakari berezia dagoela ikusten dugu berehala. Izan ere, idazlea bere borondatez giltzapetuta baitago ospitalean. Nolabait esateko, psikosiak dakarren infernuari aurre egiteko psikiatrikoak irudikatzen duen kartzela aukeratu du idazleak. Eta honetan ezin eroso sentitu.

Norberaren esperientzian oinarrituta literatura egiten denean, batzuetan idazleak gehiegi erakusten dute beren burua, literatura egiteko esperientzia hori bera nahikoa izango balitz bezala. Baina literaturak zerbait gehiago behar du, norberaren burua irakurleen aurrean jarri baino zerbait gehiago. Hemen gaixotasunaren lekukotasuna eskaintzen zaigu, eta horren ondorioz psikiatriko batean bizi izandakoa deskribatu. Ikuspuntu honetatik irakurtzen badugu, bere funtzioa bete duela esan daiteke.



TXORIAK ETORTZEN EZ DIREN LEKUA

Egilea: Alaine Agirre
Olerkiak
Argitaletxea: Erein
Donostia, 2017
68 orr. 9,00 euro

Crimen de clausura



Defensión de un asesino



Revolución y ramificaciones



Poetaren ibilbidea

ELURRA IKUSI DUT

Egilea: Xabier Lete.
Generoa: Olerkiak.
Argitaletxea: Elkar.
Orrialdeak: 304.
Prezioa: 21 euro.



;; JAVIER ROJO

Ja zortzi urte pasatu dira Xabier Lete hil denetik, eta bere figura gogoratzeko, Koldo Izagirrek paratutako antologia argitaratu da: 'Elurra ikusi dut'. Antologia egiteko, Izagirrek hari kronologikoa hartu du kontuan eta Xabier Leteren liburuetan ez ezik bere diskoetan ere agertzen diren testuak erabili ditu liburu hau osatzeko. Izan ere, Leteren kasuan biak ala biak maila berean kokaturik agertzen dira irakurle-entzuleen memorian. Hari kronologikoa erabiltzen bada ere, gaika irakurtzeko aukera ere ematen da poema bakoitzaren aurrean agertzen diren beste testuei buruzko aipamenak direla medio. Irakurketa, beraz, edozein puntutan hasi daiteke, gida moduko horien

bidez idazlearen gai errekkurrentee-tan zeharreko bidaia bihurturik. Lana bikaina, Izagirrek egin duena, non alderdi ilunagoak bazter-tzen ez diren. Leteren obra ezagu-tzen dutenek ia kronika sentimen-tala izango balitz bezala errepasatu dezakete. Izan ere, belaualdi ba-teko jendearentzat, bizitzaren au-rrean aurkitutako euskarria izan zen poeta. 60ko hamarkadan gazte ziren horiek bidelaguna aurkitu zuten Leterengan, idazle honen testuetan beren sentimenduak eta bizipenak islatuta aurkitu zituzten. Beste hitzetan esanda, belau-naldi horren ordezkaria izan zen Xabier Lete. Bere poesian hainbat gai aurkitzen ditugu: Bizi nahi duen herriaren aldarria, zapaldua-ren aldeko begirada xamurra, in-konformismoa, heriotzaren au-rreko jarrera... Gai askok existen-tzalismoan dute oinarria, arlo soziala ahaztu gabe. Denbora pasa-tu ahala, heriotza balizkoa izateari uzten dion heinean, poemetan aurkitzen diren kezkek kutsu erli-jiosoaren aztarnak hartzen dituz-te. Gizakia izan zen poetaren kezka nagusia eta gizakiari da-gozkion alderdi esentzialak plaza-ratzen ditu.

Kronika sentimental moduan irakur daiteke liburu hau, eta alde honetatik begiratuta, gure ingurua zenbat aldatu den ere kontuan hartu behar da. Idazlearen kezkek unibertsalak ziren, baina bere tes-tuak garai bati oso lotuta begitant-zen dira gaur egun.

LOS MÁS VENDIDOS

- CASTELLANO**
- Ficción**
- 1 Los asquerosos
S. Lorenzo. Blackie Books
 - 2 Todo lo que sucedió con Miranda Huff
Javier Castillo. Suma de letras
 - 3 Lluvia fina
Luis Landero. Tusquets
 - 4 Toda la verdad de mis mentiras
E. Benavent. Suma de letras
 - 5 Sakura
Mafalda Azens. La Esfera
 - 6 El último barco
Domingo Villar. Siruela
 - 7 Días sin ti
Elvira Sastre. Seix Barral
 - 8 Reina roja
J. Gómez-Jurado. Ediciones B
 - 9 La frontera
Don Winslow. Harper Collins
 - 10 Tus pasos en la escalera
A. Muñoz Molina. Seix Barral

- No ficción**
- 1 Una historia de España
A. Pérez-Reverte. Alfaguara
 - 2 Cómo hacer que te pasen cosas buenas
Marian Rojas. Espasa
 - 3 El libro de Gila
J. de Cascaete. Blackie Books
 - 4 J. de Ajuaguerra
Eugenio Ibarzabal. Erein
 - 5 Yo confieso
M. Lejarza/F. Rueda. Roca
 - 6 Los campos de concentración de Franco
Carlos Hernández. Ediciones B
 - 7 Diccionario de las cosas que...
R. Mejide. Espasa
 - 8 Sapiens. De animales a dioses
Y. Noah Harari. Debate
 - 9 Come comida real
Carlos Ríos. Paidós
 - 10 Manual de resistencia
Pedro Sánchez. Península

EUSKERA

- Fikzioa**
- 1 Deklarazioak ez
Behat Sarazola. Susa
 - 2 Keatrako estarririk
Uxo. Albetri. Susa
 - 3 Idazleen gupatzak
Karkka Agirre. Elkar
 - 4 Faktoreen abetsa
Harkaitz Cano. Susa

- Ez fikzioa**
- 1 Tallardegi batasunaren pentsalaritza
Miren Rubio. Jakin
 - 2 Feminismoa denon kontua da
Beñ. Hooks. Katakrix
 - 3 Nojed naiz. 10 urte eta dibortziala
Nisard Aliu/Carmen Gisseloa. Erein
 - 4 Amaren etxea
Jokin Urain Larralaga. Astero

- DIRECTORIO DE TIENDAS**
- Elkar, Fnac, Cámara, Casa del Libro, El Corte Inglés.

NOVEDADES

Vila-Mata y los límites de la ficción

ESTA BRUMA INSENSATA
Autor: Enrique Vila-Mata.
Editorial: Seix Barral.
Páginas: 311.
Precio: 10,90 euros.



namitas. La expectativa de su reencuentro le hará especular sobre la trascendencia real de su función como proveedor de citas, como el Penece particular de Rainier. «Yo era el tipo que le daba a la literatura de Gran Bretaña su marca de agua». Pero no sólo. Según avanza la narración, «Esta bruma insensata» destila un compendio de sutilesas digresiones sobre el acto literario y sus límites: el fetichismo de la originalidad, la angustia existencial de escribirse...

La fiesta de la burbuja de Lehman Brothers

VER Y MAQUINAR
Autor: Pablo Novach.
Género: Ensayo.



Antología de diez poemarios de Circe Maia

TRANSPARENCIAS
Autor: Circe Maia.
Género: Poesía.



Osotasun nahia

ITSAS BIZIMINA

Egilea: Pello Otxoteko.
Género: Olerkiak.
Argitaletxea: Balea Zuria.
Orrialdeak: 108
Prezioa: 12 euro.



OSI JAVIER ROJO

Pello Otxotekoren lan poetikoan pentsamendua erdigunean dago. Bere poemen lehengaita ideiak dira, eta hausnarketa da lehengai horrekin burutzen duen jarduna. 'Itsas bizimina' poema liburua ezaugarri horren adibide hautatu-tzat har daiteke. Izenburuan azaltzen den bezala, itsasoaren irudia jartzen da liburuaren ardatzean eta honen inguruan harilkatzen den matxan bizitzari buruz ari zaigu hausnarean subjektu poetikoa. Honen planteamenduak gardena dirudi: jainkoek huts egin dioten subjektuak transzendentzia behar du, eta horren bila dabil euskari sendorik ez dagoen mundu batean. Subjektu honen atzean agertzen zaigun gizakiak izaera bikoitza erakusten du. Batetik, unibertsoaren atal bat besterik ez da, txikia, ezberdea. Bera gabe, unibertsoak bere hartan jarraituko luke. Baina subjektu honek hausnartzeko ahal-

mena duelarik, misterio bat topatzen du unibertso horretan, eta horren atzetik abiatzen da, antzeman eta azal ezina dela jakin arren. Existentziaren oinarritzko galderekin egiten du topo, eta erantzun bezala itsasoaren irudiak iradokitzen dizkionak agertzen zaizkio. Osotasuna bilatzen duen gizaki mugatua da subjektua. Bizitza gertatu egiten zaio, horren gainean kontrol gutxi duelarik, eta aritzea baino pentsatzea dagokio subjektu horri.

Bestalde, pentsatzeko ahalmen horrek bihurtzen du gizakia neurri batean unibertsoaren erdigunea. Pentsamendua ez da, orduan, mundua ulertzeko tresna bakarrik, mundua sortzeko eta moldatzeko balio duen lanabesa baizik. Munduaz pentsatzea mundua pentsatzea bihurtzen da horrela. Transzendentzia bilatzen duen subjektuak egia absolutua topatu nahi luke, halakoak bermea eskainiko bailioke existentziarako. Baina bilaketa horretan topatzen duen egia absolutu bakarra heriotzaren presentzia da. Amaierak hasierari ematen dio zentzua. Eta hasierarik gabe ez dago existentziarik. Irudiak pentsamenduaren galbahetik pasatzen diren bezala, sentimenduekin berdin gertatzen da. Izan ere, sentitzen dena azaldu beharrean, sentitzen den horretatik sortzen den pentsamendua agertzen zaigu.

Poesia honek irakurlea bere iza-teaz oinarritzko galderak planteatzea bultzatzen du ezinbestean.



Vladimir N.

Autorea: Vladimir N. (argazkia)



Este liburuaren bidez, Jon Gerediaga bere poesia oinarri oso markatuak ditu, eta alde honetatik begiratuta bere poemagintza koherentzia handiz aurkezten zaio irakurleari. Lehenengo oinarria naturalezaren presentzia da. 'Natura berriak' du izenburua bere azken poema liburuak eta izenburutik bertatik lehenengo oinarri honen aztarna agertzen zaigu. Naturalezaren gaiak alderdi desberdinak aurkezten ditu Gerediagaren poesian, eta gehienetan deboraren igarotzearekin du zerikusia, non ziklikotasuna azpimarratzen den. Naturalezaren subjektua difuminatuta geratzen da, haren elementu bat besterik ez izateraino. Gizakiaren bizitzak, beraz, bat egin behar du ziklo horiekin, harmonia aurkituko badu. Eta bat egite harmoniatu horren adibidea da liburu honetan aurkezten dena. Gizakiaren bizitzaren zikloak, urtaroak erakusten dituenak eta egunean zehar islatzen direnak sintonian agertzen

Naturalezarekin bat

JAVIER ROJO

Jon Gerediagaren poesia oinarri oso markatuak ditu, eta alde honetatik begiratuta bere poemagintza koherentzia handiz aurkezten zaio irakurleari. Lehenengo oinarria naturalezaren presentzia da. 'Natura berriak' du izenburua bere azken poema liburuak eta izenburutik bertatik lehenengo oinarri honen aztarna agertzen zaigu. Naturalezaren gaiak alderdi desberdinak aurkezten ditu Gerediagaren poesian, eta gehienetan deboraren igarotzearekin du zerikusia, non ziklikotasuna azpimarratzen den. Naturalezaren subjektua difuminatuta geratzen da, haren elementu bat besterik ez izateraino. Gizakiaren bizitzak, beraz, bat egin behar du ziklo horiekin, harmonia aurkituko badu. Eta bat egite harmoniatu horren adibidea da liburu honetan aurkezten dena. Gizakiaren bizitzaren zikloak, urtaroak erakusten dituenak eta egunean zehar islatzen direnak sintonian agertzen

direlarik, denboraren igarotzeari eta beraz heriotzari esanahia eta zentzua aurkitzen zaizkie, etengabeko gurpila sortuz. 'Lokatza' izan daiteke hitz klabe bat honetan, amaiera adierazten duen neurri bereberean bizitza berri baten hasiera errepresentatzen baitu.

Poesia honek hausnarketara bultzatu nahi du irakurlea, poesia bizitzaz pentsatzeko bidea baita. Hauxe da bigarren oinarria, hausnarketaren eta adierazpen poetikoaren artean dagoen lotura, edota bi elementu horiek ezin banatzea. Formaren aldetik Gerediagaren poemek estiluzio erretoriko nabarmena aurkezten dute. Funtsezkoa ez den gutxia bazterrean utzita esentziale-nera jotzen du, irudi soiletara.

Izan ere, liburu honetan agertzen diren irudiek zirkunstantziarik gabeko naturaleza abstraktu eta orokor baten presentzia erakusten dute. Aldi berean naturalezaren parte eta behatzailea den subjektua gero eta kontzientea goa da bere lekuaz, eta unibertsoa bere inguruan aritzen dela pentsatu beharren bera unibertso horren atal txiki eta xumea dela ulertzen du. Eta hau onartuta, zorianarekin parekatu daitekeen baka erdiesten da.



NATURA BERRIAK
JON GEREDIAGA
Pamiela. 144 orr. 14 euro

Sociedad encastillada

Hari etengabea

JAVIER ROJO

Helduei zuzendutako literaturari bakarrik erreparatuz gero, Leire Bilbao liburu gutxi argitaratzen dituzten idazle horietakoa da. Izan ere, 2006an hasitako literatur ibilbidean 'Etxeko urak' izenburuko poema liburu hau hirugarren emaitza da. Honetan argitaratzen diren poema guztiak gai baten inguruan antolatuta daude: amatasuna, hain zuzen. Eta gai honetan sakontzeko alderdi desberdinak hartzen dira kontuan.

Lehenengo eta behin, amatasunaren gaia gorputzari loturik azaltzen da, gorputzak berak, izaera fisikoak, sentimenduen oinarria irudikatuko balu bezala. Ikuspuntu honetatik begiratuta, gorputzean sumatzen diren aldaketak erdigunean jartzen dira. Eta kate baten segida osatuz, badago ideia bat, askotan latentea zeren-eta ez baita hitzetara guztiz bihurtzen, poema askotan agertzen dena: amatasunak alienazio moduko bat inplikatzeko du, besteren arabera bizitzera behartzen duen aldetik. Bestalde, umearikiko harremanak bere amarekiko harremana birplanteatzera ere eramaten du subjektua. Orduan norberaren

**ETXEKO URAK
LEIRE BILBAO**
Argitaletxea: Susa.
Orrialdeak: 96.
Prezioa: 13,50 euro.



amatasuna, amatasun propioa, hari handiago baten zatia besterik ez da, non belaunaldiz belaunaldi keinu eta gertakari berberak errepikatzen diren etengabeko gurpil batean. Umearikiko harremanak bere ama hobeto ulertze-
ra eta beste begi batez begiratze-
ra eramaten du subjektua azken finean.

Liburu honetako poemak intimistak dira, eta intimismo horretan gertakari arrunt eta xumeek berebiziko garrantzia dute ohikotasunean murgilduta ikusten dugun subjektuarentzat. Baina Leire Bilbao ez da ohikotasun horren deskripziora mugatzen, idazlearen hitzetan anekdota sinpleak diruditenak esanahiz betetzen di-relarik. Eta horixe da poesiaren magia: hitz handirik gabe, ia barkamena eskatuz bezala hitz egiten duen ahots apal batez, sakonera hurbiltzen gaitu idazleak.

Bosgarren Atala

Saiakera

Haur literaturaz

TERRITORIOS 4

EL CORREO MIÉRCOLES, 18 DE FEBRERO DE 1998

Haur literaturaz

Xabier Etxaniz idazle ezaguna da haur literaturaren munduan, genero honetako liburuak idazten buru-belarri aritzen baita aspaldian. Orain, ordea, liburua ez dagokio genero honi, gaia alde batera utzi ez duen arren. Izan ere, lan honetan Xabier Etxaniz haur eta gazte literaturaren generoa mugatzen saiatu da. Hasiera batean idazlanetan oinarritu da eta lan horiek nondik datozen aztertzen du. Haur eta gazteentzat bereziki idatzitako idazlakan, haurrek bereganatu dituztenak eta folklorea: hauexek dira Etxanizek seinatzen dituen jatorriak. Baina hemen ikerketak bere ekarpen behinena ematen digu, harreraren estetikan oinarritu delarik. Idazlanak berak hain desberdinak direlarik, lan horiek irakurtzean literatura bihurtu dituzten haurrei zuzendu die begirada eta honek haurren ezaugarriak aztertzerara darama. Puntu honetan, teoria guztiak azaldu beharrak piskat aztora dezake gai honetaz gauza handirik ez dakien irakurgarri eta entretenigarria izateko egiten duen ahalegina. Gauzak honela, haur literatura zer den baino, zer izan behar den aztertuko du batez ere. Dударik gabe, gaiari heltzeko hartu duen ikuspuntu berri honetan du liburu honek bere baliorik handiena.

JAVIER ROJO



«Lo peor de los libros para niños es contar las cosas sin encanto»

El escritor Xabier Etxaniz irakurtzen duen liburu bat. Irudiak Etxaniz idazlearen liburu bat erakusten du, baina irudiak irakurketa oso txikiak dira.

«Lo peor de los libros para niños es contar las cosas sin encanto»

El escritor Xabier Etxaniz irakurtzen duen liburu bat. Irudiak Etxaniz idazlearen liburu bat erakusten du, baina irudiak irakurketa oso txikiak dira.

EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN HISTORIA- XABIER ETXANIZ ERLE (*El Correo*, 1998-09-02)

EL CORREO MIERCOLES, 2 DE SEPTIEMBRE DE 1998

9 TERRITARIOS

Vein

Ikerketa zabala

Gauza jakina da euskal liburuaren produkzioan haurrei zuzendutako lanen garrantzia, hain handia, ugi denez, non Euskal Herrikoak ez diren zenbait argitaletxak ere haurrentzako euskal liburuak argitaratzen hasi baitira. Horrexegatik, lanaren tamainagatik alegia, harrigarria da Xabier Etxanizek Euskal haur eta gazte literaturaren historia honetan burutu duen lana. Produkzio osoa, aztertu nahi izan du, lehenengo idazlanetatik hasita

oraintsu arte, jatorrizko liburu eta argitalpenak, erdal idazlanen euskal itzulpenak eta itzultza egon gabe orokorrean garrantzitsurzat hartu ohi diren erdal lanak kontuan hartu dituelarik. Ikerketa hau burutzeko, hiru garaitan banatu de produkzio hori (hasieratik 1940.era arte; 1940.etik 1980.era arte; 1980.etik 1996.era arte). Lehenengo bietan kronologia izan da liburuak aztertzeko ardatza. Azken zatia generoen eta gaien arabera ibertu du eta egituratuago dago. Gaiari hurbiltzeko oinarritzko lana iruditu zait (eta egia esan, oinarritzkoa baino arago), kontsulta liburu moduan ere oso erabilgarria, aurkibide eta taula egokiek horretan laguntzen dituelarik. Lan honekin, eta idazle beraren Haur eta gazte literatura liburu teorikoarekin irakurleak badu non bilatu gai honi buruzko informazioa.



SARAKERA

XABIER ETXANIZ

Euskal haur eta gazte literaturaren historia

PAMELA, NAFARRUA, 1997.
368 ORR. 3000 PZTA.

JAVIER ROJO



Kronica pertsonala

:: JAVIER ROJO

Mikel Hernández Abaituak bere bizitza eta oroitzapenak lehengaitzat erabili ditu 'Azukre xehea gatz larria' izenburuko liburu hau idazteko. Memoria liburua eta kronika sentimentalak uztartzen zaizkigu testu honetan, beste ezaugarri interesgarri batzuen artean hauxe du bat: frankismoaren amaierarekin batera mundua ezagutzeko aukera izan zuen belaunaldiaren kronika izatearena. Izan ere, berrogeita hamar urteren bueltan dabilzten irakurle askok alde edo molde beren burua islatuta ikusiko dute liburu honetan kontatzen diren gauzetan. Azken berrogei urteetako kronika egiteko lau zutabe erabili ditu idazleak: literatura, musika, adiskideak eta politika. Eta iruditu zait, lau zutabe horiek kontuan hartuta, idazleak bere ibilbide pertsonala azaldu nahi izan duela. Ez dakit 'zuritu' hitz egokia den, azken finean idazleak ez baitu zertan zuritu bere ibilbidean egin duena, baina nolabait egin dituenak zergatik egin dituen azaltzen digu hemen. Eta irakurlea berehala konturatuko denez, Hernández Abaituaren jarrera da bere herrian bertan deserriari bizi izan den pertsonarena, barne deserriari egongo balitz bezala, garai batean euskal kulturari ia erabatekoa zen ezker abertzaleen muturreko jarrerak agintzen zuen mundu batean desegoki sentituko balitz bezala. Azken finean, euskaltzalea izanik, bere adineko jende asko bezala abertzaleen inguruan mugituta, Hernández Abaituak desberdina zela sentitu izan du betidanik. Bere

bizitzan desberdintasun hori nabarmendu duen gertakari bat dago, ia epifanikoa: osabaren bahiketa aldia ETaren eskuetan.

Kontakizunean zehar, euskal kulturari oso ezagunak diren pertsona batzuen izenak agertzen dira. Susako kideak, esate baterako, behin eta berriro aipatzen dira orrialdeotan, bera ere hasieretan behintzat susakumea izan baitzen. Edota Ramon Saizarbitoria, miresmenez aipatzen duen idazlea eta adiskidea, Hernández Abaituarentzat erreferentzia puntua izan dena. Frankismoaren leize-zuloetatik ilusiora, ilusiotik dezepzio-

ra eta dezepziotik helduaroko egoera orekatsura doan ibilbide hori kontatzerakoan, batzuetan gauzak gehiegi azaltzen direlarik (adibidez, NO-DO zer den azaltzen du), iruditu zait liburuak garai hura ezagutu ez duten irakurleengan pentsatuta idatzi duela.

Nolabait zorraz kitatu nahi izan ditu eta, egia esan, oso erraza zuen liburua mendekua hartzeko erabiltzea, baina horren ordez idazlearen begirada xamurra nabarmentzen da.



AZUKRE XEHEA GATZ LARRIA

Egile: Mikel Hernández.
Kronika liburua.
Argitaletxea: Alberdania. 160 orr. Inan, 2010.
Salneurria: 15,80 euro

Eranskina

Oihane Calvo Ugarte

Artikuluen datak

Lehen Atala. Alfa eta Omega

1. Ezpataz hil-Koldo Biguri (*El Correo*, 1996-03-07)
2. Kilker bat autopistan-Bernardo Atxaga (*El Correo*, 2021-02-27)

Bigarren Atala. Egile kanonikoak

RAMON SAIZARBITORIA

1. Hamaika pauso (*El Correo*, 1996-04-21)
2. Bihotz bi. Gerrako kronikak (*El Correo*, 1996-12-19)
3. Aberriaren alde (eta kontra) (*El Correo*, 2000-03-22)
4. Gorde nazazu lurpean (*El Correo*, 2001-01-31)
5. Rossetiren obsesioa (*El Correo*, 2001-05-09)
6. Bi bihotz, hilobi bat (*El Correo*, 2002-01-23)
7. Kandinskyren tradizioa (*El Correo*, 2003-05-21)
8. Lili eta biok (*El Diario Vasco*, 2016-04-23)
9. Miren eta erromantizismoa (*El Diario Vasco*, 2020-02-01)

ARANTXA URRETABIZKAIA

1. Koaderno gorria (*El Correo*, 1999-01-20)
2. 3 Mariak (*El Correo*, 2011-04-16)
3. Zuri-beltzeko argazkiak (*El Correo*, 2015-01-24)
4. Bidean ikasia (*El Diario Vasco*, 2017-03-11)

ANJEL LERTXUNDI

1. Azkenaz beste (*El Correo*, 1997-03-06)
2. Lehorreko koaderno (*El Correo*, 1999-01-13)
3. Zorion perfektua (*El Correo*, 2003-03-26)
4. Zoaz infernura, laztana (*El Correo*, 2009-02-07)
5. Etxeko hautsa (*El Correo*, 2011-10-15)
6. Paper-festa (*El Diario Vasco*, 2012-12-28)

7. Zu (*El Diario Vasco*, 2016-06-04)
8. Gilles de Rais (*El Diario Vasco*, 2020-07-11)

JOAN MARI IRIGOIEN

1. Poliedroaren hostoak (*El Correo*, 1996-05-30)
2. Lur bat haratago (*El Correo*, 2001-03-21)
3. Ipuin batean bezala (*El Correo*, 2003-04-02)
4. Odolean neraman (*El Correo*, 2005-05-04)

BERNARDO ATXAGA

1. Sara izeneko gizona (*El Correo*, 1997-01-16)
2. Groenlandiako lezioa (*El Correo*, 1998-12-23)
3. Soinujolearen semea (*El Correo*, 2004-03-10)
4. Markak. Gernika 1937 (*El Correo*, 2007-08-08)
5. Zazpi etxe Frantzian (*El Correo*, 2009-04-10)
6. Txoriak kolpeka (*El Correo*, 2015-01-10)
7. Muskerraren bidea (*El Diario Vasco*, 2016-03-25)
8. Etxeak eta hilobiak (*El Diario Vasco*, 2020-03-14)

KOLDO IZAGIRRE

1. Non dago Basques Harbour (*El Correo*, 1997-08-28)
2. Nik ere Germinal! egin gura nuen aldarri (*El Correo*, 1999-05-12)
3. Sua nahi, Mr.Churchill? (*El Correo*, 2006-04-19)
4. Franco hil zuten egunak (*El Diario Vasco*, 2017-01-14)

JOSEBA SARRIONANDIA

1. Lagun izoztua (*El Correo*, 2002-03-27)
2. Kolosala izango da (*El Correo*, 2004-01-28)
3. Gau ilunekoak (*El Correo*, 2008-12-06)
4. Kartzelako poemak (*El Correo*, 2011-12-10)
5. Narrazio guztiak (*El Correo*, 2012-01-28)
6. Lapur banden etika ala politika (*El Correo*, 2016-04-09)

MIREN AGUR MEABE

1. Azalaren kodea (*El Correo*, 2000-09-13)
2. Bitsa eskuetan (*El Correo*, 2010-10-23)
3. Kristalezko begi bat (*El Diario Vasco*, 2013-03-29)
4. Hezurren erretura (*El Diario Vasco*, 2019-08-31)
5. Nola gorde errautsa kolkoan (*El Diario Vasco*, 2021-01-02)

KIRMEN URIBE

1. Portukoplak (*El Correo*, 2007-05-02)
2. Bilbao-New York-Bilbao (*El Correo*, 2009-06-06)
3. Mussche (*El Correo*, 2013-01-19)
4. Elkarrekin esnatzeko ordua (*El Diario Vasco*, 2016-12-10)

HARKAITZ CANO

1. Beluna Jazz (*El Correo*, 1996-06-27)
2. Bizkarrean tatuaturiko mapak (*El Correo*, 1998-07-01)
3. Pasaia Blues (*El Correo*, 2000-05-03)
4. Twist (*El Correo*, 2012-03-03)
5. Beti oporretan (*El Diario Vasco*, 2016-01-16)
6. Mecanografiak (*El Diario Vasco*, 2018-11-10)
7. Fakirraren ahotsa (*El Diario Vasco*, 2019-02-02)

Hirugarren Atala. Kontakizuna

1. Gasteizko hondartzak-Xabier Montoia (*El Correo*, 1997-07-17)
2. Berriro igo nauzu-Xabier Mendiguren (*El Correo*, 1997-12-31)
3. Kilkirra eta roulottea-Joxemari Iturralde (*El Correo*, 1998-04-29)
4. Un ange passe-Pello Lizarralde (*El Correo*, 1998-11-18)
5. Urregilearen orduak-Pako Aristi (*El Correo*, 1999-04-14)
6. Ostiralak-Jon Arretxe (*El Correo*, 2000-01-12)
7. Connemara gure bihotzetan-Julen Gabiria (*El Correo*, 2000-04-12)
8. Rock'n'Roll-Aingeru Epaltza (*El Correo*, 2001-04-25)
9. Ipuin erotikoak-Karlos Linazasoro (*El Correo*, 2001-07-25)
10. Agur, Euzkadi-Juan Luis Zabala (*El Correo*, 2001-08-08)
11. SPraiko tranbia-Unai Elorriaga (*El Correo*, 2001-08-22)
12. Sartu, korrontea dabil-Ixiar Rozas (*El Correo*, 2002-01-09)
13. Larunbatak-Jon Arretxe (*El Correo*, 2002-03-13)
14. Larrepetit-Pello Lizarralde (*El Correo*, 2002-07-10)
15. Van't Hoffen ilea-Unai Elorriaga (*El Correo*, 2003-06-18)
16. 110-street-eko geltokia-Iñaki Zabaleta (*El Correo*, 2003-11-05)
17. Eta handik gutxira gaur-Eider Rodriguez (*El Correo*, 2004-11-10)
18. Ecce homo-Laura Mintegi (*El Correo*, 2006-06-28)
19. Bat, bi, Manchester-Irati Jimenez (*El Correo*, 2006-10-04)
20. Sustrai beltzak-Jon Arretxe (*El Correo*, 2007-06-06)
21. Diotenez-Karlos Linazasoro (*El Correo*, 2007-08-22)
22. Festa aldameneko gelan-Mariasun Landa (*El Correo*, 2008-01-05)
23. Jalgi hadi plazara-Itxaro Borda (*El Correo*, 2008-03-08)
24. Antzararen bidea-Jokin Muñoz (*El Correo*, 2008-03-15)
25. Zulo bat uretan-Iñigo Aranbarri (*El Correo*, 2008-05-31)
26. Burbuilak-Irati Elorrieta (*El Correo*, 2008-06-28)
27. Iragaitzaz-Pello Lizarralde (*El Correo*, 2008-09-20)
28. Autokarabana-Fermin Etxegoien (*El Correo*, 2009-11-28)
29. Musika airean-Karmele Jaio (*El Correo*, 2009-12-26)
30. Elurra sutan-Juan Kruz Igerabide (*El Correo*, 2010-01-02)
31. Katu jendea-Eider Rodriguez (*El Correo*, 2010-10-09)
32. Fucking Artists-Xabier Montoia (*El Correo*, 2011-02-12)
33. Orbanak-Pello Lizarralde (*El Correo*, 2012-08-04)

34. Boga boga-Itxaro Borda (*El Correo*, 2012-10-13)
35. Motoa-Juan Kruz Igerabide (*El Correo*, 2012-11-10)
36. Bertan goxo-Karlos Linazasoro (*El Diario Vasco*, 2012-12-14)
37. Ez naiz ni-Karmele Jaio (*El Diario Vasco*, 2013-02-15)
38. Txartel bat (des)herrira-Garazi Goia (*El Diario Vasco*, 2013-05-10)
39. Inurrien hiztegia-Mariasun Landa (*El Diario Vasco*, 2013-05-17)
40. 612 euro-Jon Arretxe (*El Diario Vasco*, 2013-08-02)
41. Versus-Karlos Linazasoro (*El Diario Vasco*, 2013-08-09)
42. Hobe isilik-Garbiñe Ubeda (*El Diario Vasco*, 2013-12-06)
43. Argiaren alaba-Yolanda Arrieta (*El Correo*, 2014-10-18)
44. Odol mamituak-Alaine Agirre (*El Correo*, 2014-12-27)
45. Iazko hezurak-Unai Elorriaga (*El Correo*, 2015-02-28)
46. Ehiztariaren isilaldia-Luis Garde (*El Correo*, 2015-10-03)
47. X hil da-Alaine Agirre (*El Diario Vasco*, 2015-12-11)
48. Estolda jolasak-Jon Arretxe (*El Diario Vasco*, 2016-02-20)
49. Txistu eta biok-Juan Luiz Zabala (*El Diario Vasco*, 2016-07-02)
50. Alsina-Xabier Mendiguren (*El Diario Vasco*, 2016-11-12)
51. Elur bustia-Pello Lizarralde (*El Correo*, 2016-12-17)
52. Sator lokatzak-Jon Arretxe (*El Diario Vasco*, 2017-02-04)
53. Ez lemaio-Juan Kruz Igerabide (*El Correo*, 2017-04-01)
54. Zer egingo dugu orain opariekin-Aritz Gorrotxategi (*El Correo*, 2017-07-29)
55. Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama-Alaine Agirre (*El Diario Vasco*, 2017-08-19)
56. Bihotz handiegia-Eider Rodriguez (*El Correo*, 2017-12-09)
57. L.A.A-Maixa Zugasti (*El Correo*, 2018-03-03)
58. 6012-Karlos Linazasoro (*El Diario Vasco*, 2018-05-19)
59. Neguko argiak-Irati Elorrieta (*El Diario Vasco*, 2019-01-05)
60. Rosa itzuli da-Pako Aristi (*El Correo*, 2019-03-16)
61. Aitaren etxea-Karmele Jaio (*El Diario Vasco*, 2020-02-29)
62. Susmaezinak-Itxaro Borda (*El Diario Vasco*, 2020-04-10)
63. Mesfidatu hitzez-Jon Arretxe (*El Diario Vasco*, 2020-05-10)
64. Argiantza-Pello Lizarralde (*El Diario Vasco*, 2020-10-31)

Laugarren Atala. Poesia

1. Lur bat zure minari-Jose Luis Otamendi (*El Correo*, 1996-05-23)
2. Ibilaldia. Itinerario 1950-1999-Juan Mari Lekuona (*El Correo*, 1996-06-20)
3. Galderen geografia-Felipe Juaristi (*El Correo*, 1998-03-25)
4. Puskak biziz-Juanjo Olasagarre (*El Correo*, 2001-03-07)
5. Eta harkadian ni-Angel Erro (*El Correo*, 2003-03-05)
6. Mailu isila-Juan Kruz Igerabide (*El Correo*, 2003-04-09)
7. Spam poemak-Castillo Suarez (*El Correo*, 2004-06-09)
8. Begi-ikarak-Felipe Juaristi (*El Correo*, 2005-01-05)
9. Egia hezur-Juan Kruz Igerabide (*El Correo*, 2005-02-02)
10. Ezkatak-Leire Bilbao (*El Correo*, 2006-04-12)
11. Zein beste mundukoa-Karlos Linazasoro (*El Correo*, 2008-11-08)

12. Scanner-Leire Bilbao (*El Correo*, 2011-10-22)
13. A zer lau elemenu!-Karlos Linazasoro (*El Correo*, 2014-03-08)
14. Hodeiak zapatetan-Mikel Etxaburu (*El Correo*, 2014-05-24)
15. Lainoa janez-Juan Kruz Igerabide (*El Diario Vasco*, 2016-01-09)
16. Mundua betetzen zenuten-Tere Irastorza (*El Diario Vasco*, 2016-01-23)
17. Maite poemak hasiberrientzat-Juan Kruz Igerabide (*El Diario Vasco*, 2016-06-18)
18. Txoriak etortzen ez diren lekua-Alaine Agirre (*El Correo*, 2017-05-27)
19. Elurra ikusi dut-Xabier Lete (*El Diario Vasco*, 2018-03-17)
20. Itsas bizimina-Pello Otxoteko (*El Diario Vasco*, 2019-04-27)
21. Natura berriak- Jon Gerediaga (*El Correo*, 2020-09-19)
22. Etxeko urak-Leire Bilbao (*El Diario Vasco*, 2020-10-10)

Bosgarren Atala. Saiakera

1. Haur eta gazte literatura-Xabier Etxaniz Erle (*El Correo*, 1998-02-18)
2. Euskal haur eta gazte literaturaren historia-Xabier Etxaniz Erle (*El Correo*, 1998-09-02)
3. Azukre xehea gatz larria-Mikel Hernandez (*El Correo*, 2010-12-04)

IKERTUZ

Ikerketa lanak
Trabajo de investigación

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua
argitalextea@ehu.eus

Servicio Editorial de la UPV/EHU
editorial@ehu.eus

Tel.: 94 601 2227
www.ehu.eus/argitalpenak

emen ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ISBN: 978-84-1319-569-8